

Miren Ibarluzea Santisteban

Literatur itzulpenaren kritika

Lehen pausoak: dibulgazio-kritikaren
azterketa

LABAYRU IKASTEGIA
AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA
BILBAO
2011

© *Argitaraldi honena:* LABAYRU IKASTEGIA - AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

© Miren Ibarluzea Santisteban

Diseinua: IKEDER, S. L.
Fotokonposaketa, fotomekanika: IKUR, S. A.
Silutegia: BASTER S.L.L.

ISBN: 978-84-92599-19-6
Lege gordailua: BI-936-11

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukina biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldeaz aurreko eta idatzizko baimen barik.

Hurre-hurrekoeri, ikerketa honek ostu deuskun denbora
guztiagaitik...

Aurkibidea

Eskerrak	9
Aitzin solasa; Mari Jose Olaziregi	11
1. Sarrera: ikergeraia, hasierako hipotesiak eta ikerketaren helburuak ..	13
2. Teoria- eta metodologia-irizpideak	17
2.1. Polisistemen teoria itzulpengintzan aplikatua	17
2.2. Itzulpen-arauak	18
2.3. Itzulpena non kokatzen den literatur polisisteman	19
2.4. Zertan den itzulpen-kritika: kritikaren aztergaiak	22
2.5. Itzulpenaren kritika Euskal Herrian	28
3. Corpusa eta aztergaiak	33
3.1. Gure corpusa eta aztergaiak	33
3.2. Corpusaren azterketa	37
Kritika kopurua	37
Kritika-argitaratzaileak	38
Kritikagileak	42
Kritiken argitalpena	44
Kritika-testuak	45
Hasierako araua	47
Kritika mota	47
Agente eragilea	48
Jarduera-agentea	50
Itzulpena eta hizkuntzak	54
Obra jatorrizko polisisteman	70
Obra xede-polisisteman	72
Testu mota	82
Jarduera-arauak	82

4. Ondorioak	87
5. Bibliografia	91

Eskerrak

Mari Jose Olaziregiri, ikerketa honetako zuzendaritza-lanagatik.

EIZIEko Itzulbaitako kideei eta Kritiken Hemerrotekako kudeatzaileei, beharrezko datuak eskuratzen laguntzeagatik.

Xabier Artiagoitia, Iñaki Camino eta Joseba Lakarra EHUko Euskal Filologia eta Hizkuntzalaritza masterreko zuzendari eta master-tesiko defentsako epaimahaikideei, ikerketari buruz egindako gogoeta eta oharrengatik.

Miren Atutxa, Ana Toledo eta Lurdes Unzueta Santi Onandia Bekako epaimahaikideei, lana irakurrita egindako oharrengatik.

Manu Lopez Gaseniri, zati teorikoa errebisatzeagatik.

Iñigo Rokeri eta Eneko Zuloagari, testua orrazteko emandako aholkuengatik.

Zornotzako Udalari eta Labayru ikastegiari, ikertzeko eta argitaratzeko bidea emateagatik.

Aitzin solasa

Mari Jose Olaziregi (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Atsegin handiz ausartzen naiz Miren Ibarluzearen lehenengo liburu honi hitzurre labur hau idaztera; ausartu diot, liburu gehienek bezala, esku artean duzun honek hitzaurrerik behar ez duelako. Orriotan barneratzen dena laster ohartuko da Ibarluzearen estiloaren argitasunaz, bere hausnarketan erakarmenaz.

Argitalpen honen oinarrian master-tesi bat dago, 2009-2010 ikasturtean “Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia” masterrerako nire zuzendaritzapean burutu zena, hain justu. Ikerlanari eman beharreko ordu luzeetarako denbora Amorebieta-Etxanoko Udalak kudeatzen duen “Santi Onandia” ikerketabekak ahalbidetu zuen, eta bihoakio, ezer baino lehen, Udalari nire esker ona urtetan babestu duten ekimen honengatik, 1998an ni neu onuradun izan nintzen eskuzabaltasunagatik.

Esan genezake, kritika akademikoak berezkoak dituen irizpide teoriko-metodologikoak betetzen dituela lan honek, helburuak, hasierako hipotesiak, eta metodologia bezalako atalak zehaztasunez deskribatzen baitira. Baina ez hori bakarrik, ikergai zinez garrantzitsua hautatu du Miren Ibarluzeak, literatur itzulpenaren kritika, hain zuzen, eta bere instituzionalizazioa berma dadin eman beharreko pausoez hausnarketa egiten du.

Hasieratik azpimarratzen dira itzulpen-ikasketek gurean dituzten erronketako batzuk, hala nola, unibertsitate-ikerketetan ezinbestekoak diren itzulpenaren teoria eta kritikari dagozkionak. Egun hain ezagunak diren kritikarien ekarpenak bere eginez (ikus, besteak beste, Even Zohar 1990 eta 1999; Toury 1999 eta 2004; Van Den Broec 1988), euskal literatur itzulpenek gure sisteman luketen bazterreko lekuaz egiten da gogoeta. Ibarluzeak iradoki bezala, itzulitakoa nola, non eta nork aztertzen den begiratzea besterik ez dago dauden hutsune metodologikoak antzemateko.

Edonola ere, Ibarluzearen azterkizuna 511 dibulgazio-kritikek osatu dute, eta azpimarratzekoa da ikasleak corpus hori osatu eta aztertzeko jarraitutako sei irizpideen sendotasuna. Alde horretatik, ikerlan honek datuak eskaintzen ditu, frogak, orain artean uste genuena baieztatzeko: dibulgazio-kritiken hedapen eta sendotasun eskasa, batetik, eta kritikarien espezializaziorik eza, bestetik. Ibarluzeak iradoki bezala, euskal itzulpenen kritikan dihardutenak zailtasunez asmatzen dute Touryk azpimarratutako “itzulpenaren ikusezintasuna” delakoari muzin egiten. Etengabe errepikatzen diren topikoetan, euskararen normalizazioari dagozkion baieztapenetan, besteren ahotan jartzen diren iruzkinetan, sistematikotasunik gabeko iruzkinetan... Ibarluzeak xehetasunez aztertu dituen elementuotan guztiotan islatzen da kritikariaren ziurtasun eza.

Ikerlanaren ondorioen artean, deigarriak dira kritikari-itzultzaile profilarren ugaritasunari buruzkoak, literatura konparatuak kritikei egiten dien ekarpenei buruzkoak... eta, batez ere, kritika akademikoaren beharrari dagozkionak. Euskal Itzultzaile Interpretari eta Zuzentzaileen Elkarteak, EIZIEk, elkarte profesionala den aldetik, martxan jarritako ekimenen garrantzia dudatan jarri gabe, bistakoa da esparru akademikoan daukagula erronka, gradu-ikasketetan dauden ikasle berrien formazioan, eta etorkizuneko doktorego-tesien sustapenean. Ibarluzeak azpimarratzen duen bezala, kontzeptu malgutzat hartua izan da *Translation Studies* delakoa (ik. Valero Garcés, 1995), baina bistakoa da bertan barneratzen diren hainbat arlok (itzulpenaren estilistika, teoria eta kritika, esaterako) ez duela inongo islarik gaur egun euskaraz egiten den itzulpenen gaineko kritikan.

Lan interesgarria, ez bairik gabe, euskal literatura eta kritika maite ditugunoi eskaintzen zaiguna.

1. Sarrera: Ikergaia, hasierako hipotesiak eta ikerketaren helburuak

Egun, onarturik dago literatur sistema bat aztertzeko, hura osatzen duten elementu guztietan paratu behar dela arreta, aurreiritziak alde batera utzita. Euskal Literatur Sistemaren (ELS) deskripzio orokorra egiteko, hortaz, haur eta gazte literatura, helduena, antzerkia, poesia, saiakera, ipuingintza, eskoletarako beren-beregi sortutako literatura-lanak, itzulitako obrak... denak izan behar dira kontuan. ELS finkatu zenetik (Olaziregi: 2001), literatur itzulpenak gero eta garrantzi nabarmenagoa erdietsi du gure sisteman. Halaxe azpimarratu dute, ezbaierik gabe, gurean bideratu diren doktorego-tesi apurrek. Horixe dago, esaterako, Manu Lopezek Haur eta Gazte Literaturan itzulpengintzan izandako garrantziaz diharduen 1999ko tesia (Lopez: 1999), edo ikerlan interesgarritzat har genezakeen Lopezen auto-itzulpengintzari buruzko lana (ik. Lopez: 2005). Itzulpenak euskal literaturari egindako ekarpenez mintzo da, halaber, Anjel Lertxundiren baieztapen ezaguna: “Euskararen normalizazioak itzulpengintzan du elikagai nagusienetako bat. Nobela sorkuntza prozedurako izugarri aberasgarriak dira atzerriko idazleen itzulpenak.” (*El Pais*, 2001-7-4).

Garrantzi horren lekuko ditugu, baita ere, atzerriko literatura euskaratzeko egiten diren saio gero eta ugariagoak. Literatura Unibertsala bilduma dugu horietako bat¹. Ezin dira aipatu gabe utzi, bestalde, Elkar, Igela, Erein edo Alberdania lako argitaletxeek atzerriko literatura itzuli eta argitaratzeko egiten duten ahalegina.

Bestalde, aipagarria da itzulpengintzari buruzko ikerketa akademikoek gurean azken urteotan izan duten garapena. Horren lekuko ditugu, esaterako,

¹ ik. http://www.eizie.org/Argitalpenak/Literatura_Unibertsala | Azken kontsulta 2010-09-08 |

EHUn zein Michel de Montaigne-Bordeaux III unibertsitatean abiatu diren masterrak. Urruti geratu dira Martutenen 1980an abiatutako egitasmoak, urteak aurrera joan ahala argi geratu baitzaigu euskal hizkuntza literarioaren garapen eta eguneraketari itzulpenak egin dion ekarpen duda ezinezkoa.

Halatan ere, itzulpenak bidea egokiro egin dezan, funtsezkoa da bidean arnas hartzeko eta norabidea begiztatzeko pausagune bat egitea. Berebiziko garrantzia du non gauden eta orain artekoak nola egin diren zehatz aztertzeak.

Itzulpenak abiadura handian gora egin badu ere, literatura itzuliaren kritika akademikoa eskasa, urria, da gurean. Hala ondorioztatu zuten, 2008an, EIZIE (Euskal Itzultzaile, Interprete eta Zuzentzaileen Elkarte) barruan Itzulbaita egitasmoak garatutako *Literatur itzulpenak baloratzeko irizpideak* lan saioan. Lan taldearen arabera, euskarazko literatura itzuliaren kritikan, dibulgazio-xedea duen kritika da nagusi, helburua irakurleari gidaritza eskaintzea eta itzulpengintza sustatzea izanik. Lan saioko parte-hartzaileek premia kotzat jo zuten kritika espezializatuan dagoen hutsuneari aurre egitea, ezen gurean hutsunea ia erabatekoa baita itzulpenaren kritika espezializatuaren alorrean. Badago kritika mota hori egiten duenik, baina oso gutxi dira, eta zabalkundea ere oso urria da. Horretarako, ordea, tresnak eta baliabideak falta ei dira, kontzeptuak zein materialak, eta euskalgintzaren alorren arteko elkarlana.²

Bestalde, badirudi orain arte egin diren itzulpenari buruzko lanek, oro har, testua izan dutela aztergai. Testu jakin bat, jatorrizko hizkuntza edozein izanda, euskaraz emateko jarraitutako prozesua eta euskaraz nola eman den; horixe izan da orain arte aztertu izan dena. Itzulpena, baina, ez da soilik testu jakin bat jatorrizko hizkuntzatik xede-hizkuntzara igarotzen deneko prozesua; itzulpenean badira hizkuntzaz kanpoko eragileak, ezen itzulpena ekintza kulturala baita, hots, literatura eta kultura jakin batetik bestera egindako zubi-lanean parte hartzen duten eragile guztien emaitza, zelanbait esateko. Eragile horietan jarriko dugu, hain zuzen ere, lan honetan arreta. Eta eragile horien azterketak eskainiko dizkigu literatur itzulpenaren euskal panorama eta, harago joanda, ELSren panoramaren deskripzio egokia egiteko tresnak eta baliabideak.

Itzulpenean eragiten duten faktoreek (zer itzultzen den, zergatik, zein autore, zer hizkuntzatatik, gizarte jakin batean itzulpena onartuta dagoen, jatorrizko kulturari edo xede-kulturari begiratuta itzultzen den, zenbat diruren tru-

² <http://www.itzulbaita.eu/jarduerak/lit-balorazio-irizpideak> | Azken kontsulta 2010-09-08 |

keko lana den, zein itzultzailek egiten duen...) ezin dira euren-eurenean aztertu, testuak edo testuaz kanpoko produktuak dira aztertu behar direnak. Hor-taz, guk literatur itzulpenen kritikak aztertzeko hautua egin dugu, testu horie-tan baitaude islatuta aipatu eragile edo faktoreak. Horixe izango da gure azter-gaia: hizkuntzaz kanpoko eragileen islak itzulpen kritiketan.

Amaigabeko erruleta balitz bezala, kritika bera itzulpenaren kanpo-eragile horietako bat ere bada. Alegia, kritika nola egiten den, horrek ere eragingo du itzulpenaren bilakabidean. Eta hargatik hartu dugu aztergaitzat. Izan ere, itzulpen-kritika akademikoa urria den sistema aztertuta, kritika akademikoa egiteko tresnak zehazten baditugu, itzulmolde, eskola zein kritika-ildo berriei eman diezaiekegu bidea, bai eta literatur itzulpenen prozesuan eragin ere, hutsuneak betetzeko eta okerrak bideratzeko, itzulpenaren leku soziala zehaz-teko eta itzulpenaren onarpena lortzeko bidean.

2. Teoria- eta metodologia-irizpideak

2.1. Polisistemen teoria itzulpengintzari aplikatua

1970eko hamarkadan Even-Zohar-en polisistemen teoria zabaldu zen nazio-arteko ikerketan, eta esparru espainiarrean harrera ona izan zuen, batez ere kulturartekotasuna ematen zen inguruetan. E. Bou, A. Figueroa (1991 eta 1992), Sanz Cabrerizo (1992) eta M. Gallego Roca ikertzaileek bide horri ekin zioten, eta laster zabaldu zen joera hori literaturaren teoria arloan (Iglesias Santos, 1999). Euskal esparruan, teoria horren arabera lan egin dute Mari Jose Olaziregik eta Manu Lopez Gasenik, kasurako, euskal literaturaren alorrean. Ikerlan horietan guztietan, diskurtsoa ez dago teoria humanistei loturik soilik. Zoharren teoriari jarraikiz, ikerketa eredu flexible bat sortzen da, kulturaren eta literaturaren izaera heterogeneoa kontuan hartzen duena, bai eta literaturaren dimentsio diakronikoa ere.

Gizarte- eta kultura-fenomenoak modu enpirikoan ikertzeko, joerak aztertu behar dira, hots, “norma intersubjektiboak” deritzenak (Iglesias Santos, 1999: 15). Hortaz, ikertzailearen lehen egitekoa fenomenoak ezaugarritzen dituzten legeak, eragileak, normak, identifikatzea da. Itzulpenaren ikerketaz denaz bezainbatean, funtsezkoa izan zen “norma” kontzeptuaren agerpena (guk “arau” esango diegu); “arauak” dira itzulpenari eragiten dioten irizpideak, erregelak edo estrategiak. Hortaz, polisistemen teoriak itzulpen-fenomenoen ikuspegi funtzionala emango luke, itzulpenaren barnean ere aintzat hartzen baitira ekonomia-, gizarte- eta kultura-eragileak.

Bestalde, Zoharren teoriaren lorpen handienetako bat hizkuntzaren, literaturaren eta kultur identitatearen arteko harremanak birplanteatzea izan da; horrek ekarri du “literatura nazionala” kontzeptua zalantzan jartzea. Are gehiago, aipatu teoriaren arabera, itzulpenak eragin zuzena du literaturaren kolonizazioarekin eta kanonizazioarekin. Lanbert ikertzailearen lanek, hain

zuzen ere, horixe dute ikergai. Polisistemen teoriak, oro har, literatur sistemak kultur sistema orokorrean duen eragina deskribatzeko balioko luke.

Gideon Toury-k ekarri zuen Polisistemen teoriaren aplikazioa itzulpengintzara. Touryren teoria, laburki esanez, (Toury, 2004) xede-kulturaren sisteman, itzulitako testuak estatus ezberdinak har ditzake; eta kontestualizazio egokiaz ari garela, Touryk azpimarratu egiten du ez dela jakintzat eman behar, berbarako, itzulpen-sistema ezagutzen denik itzulpenean eragiten duten hizkuntzen ezaugarriak deskribatzeko gai izanagatik. Harago joan behar da, hizkuntza-azterketaz harago, alegia. Itzulpena behar bezala kontestualizatuko bada, kultura jakin bateko itzulpen-elementuen artean behar den moduko bereizketa egin behar da, itzulpen jakinen posizio justua deskribatu behar da, ezen testu beraren itzulpen bik ez baitute jatorrizkoaren leku berean zertan egon. Gainera, itzulpenak betetzea aurreikusten ziren helburuak zein ziren azaldu behar da, itzulpena nola aurkeztu den aztertu eta, azkenean, aurreikusitakoak bete diren frogatu, eta itzulpena onartzen denetz ikusi. Touryren metodologiari jarraituz gero, ez da soilik itzulpena orokorrean zer den aztertzen, ez bada itzulpena errealitatean zer den deskribatzen. Dударik gabe, erregelak, arauak eta idiosinkrasiak existitzen dira itzulpengintzan, “Translation norms” izenez aurkeztu zaizkigu bere obran. Arauok aldatu egiten dira gizarterik gizarte edo kultura batetik bestera.

2.2. Itzulpen-arauak

Itzulpenean eragiten duten arauen sailkapenean eta eragileetan sakontzen du Toury ikertzaileak “La naturaleza y el papel de las normas en traducción” artikuluan (Toury, 1999: 233). Haren ustean, itzulpen-arauak Geest-en normatibitatearen taularen arabera ikertzekoak dira; arauon gradualtasuna aldatu egin daiteke, eta gizarte jakin batean jarrerak ebaluatzeko erabili.

Era bitako arauak daude Touryren arabera: aldez aurreko arauak (*preliminary norms*) eta jarduera-arauak (*operational norms*).

Aldez aurreko arauak itzulpen politikari dagozkio. Itzulpen-estrategiari lotutakoak molde honetakoak dira: zein hizkuntzatatik itzuli dugun, zergatik, itzulpena egiten direneko kultura- edo hizkuntza-helburuak zein diren... Talde honetakoak dira, halaber, itzulpenaren literalitatearekin lotzen diren auziak: zeharkako itzulpena onartzen al da? Zer motatako testuetan? Zein garaitakoetan? Itzulitako obrak markatu egin behar al dira? Itzulpenak ostendu egiten al dira? Zubi-hizkuntzen berri ematen al da?

Jarduera-arauak, ostera, testuari berari eragiten dioten arauak dira. Bi sailetan bereiz daitezke: matrizialak (testuaren segmentazioari lotutakoak) eta testualak (orokorrak edo partikularrak izan daitezke).

Esan daiteke alde zuzeneko arauak jarduerazkoak baino lehenago datozela, baina ez dezagun ahantz denak daudela euren artean erlaziozuzen.

Itzulpena kultura eta hizkuntza parearen zubi den aldetik, itzulpen-arauen graduazio biren mende egongo da (jatorrizko hizkuntza eta kulturaren itzulpen-arauen graduazioa eta xede-hizkuntza eta kulturaren itzulpen-arauen graduazioa). Bi horien arteko tentsioa kasuan kasu aldatu egingo da eta, kasuan kasu, emaitza bat edo beste izango du.

Itzulpena arauen aurreko jarrera baten arabera egiten delako ideia itzulpen mota guztiei zabaltzen zaie: zientzia-testuak, filosofia-testuak, kazetaritza-testuak, literatura-testuak... nahiz gehien aplikatu den eremua literatura-testuena izan den.

Hartara, alde zuzeneko eta jarduera-arauen gainetik legoke hasierako araua (*initial norm*). Arau horrek ezartzen du itzulpena sorburu-hizkuntzara (SH) begira egiten den, hots, “egokitasuna” (*adequacy*) bilatzen den; edo xede-hizkuntzara (XH) begira egiten den, hau da, xede-sistemak ezarritako “onargarritasuna” (*acceptability*) bilatzen den.

Ezinezkoa da itzulpen-arauok diren-direnean aztertzea (prozedurak baitira); hortaz, emaitzak dira aztertzen direnak; testuetara jo beharra dago itzulpen-arauen emaitzak ikusteko. Itzulpen-arauak iturri testualetan (itzulpenak diren testuetan) agertuko zaizkigu, bai eta testuz kanpokoetan ere (formula-zio semi-teoriko eta kritikoetan).

Itzulpen-arauak aztertzeko ikerketa bat burututa, oro har, arauok itzulpenak polisisteman duen lekuari loturik daudela ondorioztatuko dugu; beraz, ezin dugu panorama osoa alde batera laga. Polisistemako elementu jakin bati begiratuko bazaio ere, egoera orokorra beti izan behar dugu gogoan.

2.3. Itzulpena non kokatzen den literatur polisisteman

Itzultzen deneko testuinguruari jarraikiz, itzulpenak leku bat edo beste izan dezake literatur sistemaren barruan. Honelaxe dio Even-Zoharrek, kasurako:

Considero la literatura traducida no sólo como un sistema integrante de cualquier polisistema literario, sino como uno de los más activos en su seno. ¿Pero cuál es su posición dentro del polisistema y cómo se relaciona con la naturaleza de su repertorio global? Podríamos tener la tentación de deducir, a partir de la posición periférica de la literatura traducida en los estudios literarios, que también esta literatura ocupa siempre una posición periférica en el polisistema, pero no es así en absoluto. Que la literatura traducida sea central o periférica y que su posición aparezca conectada con reperto-

rios innovadores (primarios) o conservadores (secundarios), dependerá de la ordenación específica del polisistema en cuestión.

(1999: 223-231)

Gaur artean itzulpena literatur sistemaren periferian kokatu dela esan deza-kegu, nahiz eta itzulitako obrak jatorrizko literatur sisteman zentro-zentroan lekua izan. Eredu horren arabera, hobe litzateke beti zeinahi literatur lan jato-rrizko hizkuntzan irakurtzea. Halatan ere, polisistema osatzen duten barne-sis-temak dinamikoak direla kontuan hartuta, polisistemen teoria da literaturaren historia irakurtzeko eta eraikitzeko bide berriak emango dizkigun eredu; ezen, beti ere aipatu ikertzailearen arabera, honako oposizioek eragiten bai-tiote literatur polisistemaren dinamikari (Gallego Roca, 1991: 64):

- Eredu berritzaileak *vs.* Eredu kontserbatzaileak
- Sistemaren zentroa *vs.* Periferia
- Estratu kanonizatuak *vs.* Estratu kanonizatu gabeak
- Kodifikazio indartsudun formak *vs.* Kodifikazio ahuleko formak
- Zenbait genero *vs.* Beste genero batzuk

Itzulpenak polisisteman duen lekua deskribatzeko, André Lefevre-k “patro-nage” gisa izendatzen duen mendekotasunari begiratu behar zaio. Mendeko-tasun horrek gutxienez hiru osagai ditu: ideologia (mezenasa/autorea/hartu-emanak gizartean), ekonomia (autorearen sostengua ziurtatzen du) eta gizar-te-estatusa (autoreari posizio jakin bat eskaintzen dio gizartean) (aip. Gallego Roca, 1991: 66). Horrela, mendekotasunaren eta polisistemaren dinamikari eragiten duten faktoreei begira, kasurako, itzulpen jakin bat literatura-kanon bati jarraikiz eginez gero, edo posizio indartsua duen autore batek egiten badu, hurbilago egongo da literatur polisistemaren zentrotik, edota eragina izango du, literatur lanen banatzaileek, ikertzaileek, irakasleek zein kritikariek obra batean edo bestean jarritako arretak; ezen, esan beharrik ez dago, itzul-penak polisisteman hartzen duen lekuaren berri ematen baitute, kasurako, itzulpen-kritikek eta itzulpenari buruz egiten diren gogoetek.

Itzulpenak polisisteman duen lekuarekin guztiz lotuta dago itzultzailearen ikusezintasunaren auzia. Hainbat eta hainbat urtean itzultzailea originalaren “kopia” ematen zuena zen, besterik gabe. Denborak aurrera egin ahala, badi-rudi itzulpena balioesten hasi garela, eta ikerketen ikuspuntuak aldatu ahala, testuaz gaindiko faktoreei erreparatzen hasi garela, hala nola, itzulpenean kul-tur edukiak “naturalizatu” edo “marjinatu” egiten diren (Gnisci, 2002: 317).

Even-Zoharren ustez (Gnisci, 2002), itzulpenak berrikuntza dakar, batez ere a) polisistema oraindik kristalizatu ez denean, hots, literatura “gaztea” denean,

b) literatura periferikoa edo ahula denean; literatura jakin batean krisiak edo hutsuneak daudenean. Lehenengo eta bigarren kasuetan ereduak jasotzen dira. Hirugarren kasuan itzulpenak egiteko zentrala har dezake historiako krisi-garai jakin batean, adibidez. Hirugarren kasua da, esaterako, faxismo garaietako krisia, non itzulpenak liberazio-tresna bihur baitaitezke. Even-Zoharren planteamendu honek zenbait galdera egitera garamatza: zer literatur sistematan itzultzen da? Noiz? Zer historia-garaitan? Nola eragiten dio itzulpenak xede-hizkuntzako sistemari? Nola erlazionatzen dira itzulpenak sistema jakin bateko jatorrizko testuekin? Nor da itzultzailea? Nola hautatzen dira itzultzaileak? Nola hautatzen ditu itzultzaileak obrak? Zergatik ez dira lan jakin batzuk itzultzen?

Egilea legetxe, itzultzailea zein kritikaria ibilbide kultural jakin bat egindakoak dira, eta haien eskutik zenbait lan literatur sistema bateko parte izatera pasatzen dira, betiere hezkuntza-, ekonomia- eta politika-sistemak lagunduta. Era horretan sortzen da, halaber, kanona.

Kontuan hartu behar dugu, itzulpenari esker literatur eredu berriak sor daitezkeela, baina haien atzean, askotan, nahita egindako hautaketa bat dago, ideologia jakin bat, garai jakin bateko eragina, zentsura, promozioa... Har ditzagun, Mehrez-en hitzak, guzti horren adierazgarri:

El uso de la lengua del otro puede tener una doble finalidad: puede ser el lugar para la confrontación y la resistencia con el Otro, pero puede ser también un medio de liberación.

(Gnisci, 2002: 326)

Edo Pascale Casanovarenak:

En el universo literario, la dependencia no se ejerce de modo unívoco. La estructura jerárquica no es lineal y no puede describirse según el esquema simple de una dominación centralizada y única. Si el espacio literario es relativamente autónomo, es también en consecuencia, relativamente dependiente del espacio político: las huellas de esa dependencia original son múltiples. En otras palabras, en la República mundial de las Letras se pueden observar otros principios de dominación, sobre todo políticos, que siguen ejerciéndose en especial a través de la lengua.

(Casanova, 2001: 157)

Izan ere, itzulpen-politikak ere badira. Aipatu ikertzaileak, *La República Mundial de las letras* lanean, literaturaren historia egiteko molde bat proposatzen duen horretan, itzulpenari buruzko zenbait argibide ematen ditu. Ikertzailearen arabera, itzulpenen inportazioak eta esportazioak literatur boterea-

ren inguruko datuak eman ditzake; ezen, itzulpenak eragina baitu literatur modak heda daitezzen. Hortaz, itzulpenaren arabera, lehenago edo geroago gertatuko dira aro-aldaketak literatur sistemetan. Literatur unibertsoan, itzulpena da erdigunetik kanpokoak diren idazleen sarbidea, errekonozimendu literarioaren formetako bat. Jokalarien norgehiagokarako arma ere bada, espazio internazionalan ari direnen guda moldea. Era berean, itzulpena literatur baliabideak jasotzeko modua da, adibidez, testu unibertsalak hizkuntza menderatu eta literatura lander batera ekartzea. Edo kapital literario zentralaren aberastasun iturria zein literatur unibertsoko zentroan dauden lanak zabaltzeko bidea.

2.4. Zertan den itzulpen-kritika: kritikaren aztergaiak

Itzulpen-ikasketen alorra (*Translation Studies*) kontzeptu malgua eta anbigua da bere horretan. Valero Garcés irakasleak aipatu legez (Valero Garcés, 1995), alor horren baitakoak dira itzulpenaren teoria, itzulpenaren produktioa eta produktuak. Aipatu irakaslearen esanei jarraikiz, itzulpena gizartemarko jakin batean eginagatik, marko horretan eragina duten aktibitate guztiek dute balioa eta zeresana ikerketa-gai gisa; hortaz, itzulpenari gagozkiolarik, produktuan arreta paratuz gero, merkatuan diren itzultako testuei buruz arituko gara, testu originalarekin duten erlazioaz, itzulpenaren irakaskuntza-prozesuaz edo itzulpenaren kritikaz. Sail oso desberdinak dira denak ere, baina guzti-guztiak itzulpen ikasketen baitan hartu beharrekoak.

Itzulpengintza garaikideko pentsamoldeetan ikusmoldeak zabaldu dira, eta, egun, itzulpena fidela/ez-fidela izan daitekeen ideia baino harago goaz, itzulpen-prozesua konplexua baita. Itzulpena produktu gisa (bukaerako testua) soilik hartzetik itzulpenaren funtzioa aztertzeraz igaro gara: itzulpena zergatik, noiz, nola, nork egin duen eta zer eragin duen aztertzen da.

Armando Gnisci autorearen arabera (Gnisci, 2002), ekintza eta obra kulturala da itzulpena, literatura eta kultura jakin batetik besterako igarotze-fenomenoa; eta, egun, izaera globala ezartzen zaio fenomeno horri. Bestalde, garai bakoitzean jokamolde jakinen arabera itzuli ohi dira literatura-lanak. Horrela, garaian garaiko itzulpen-arauak ere kontuan hartu behar dira edozein testu aztertzen dugularik.

Hala diosku Gniscik “La traducción literaria” artikuluan:

Un análisis singular o comparado debería más bien tomar en consideración tales condiciones y efectuar una serie de observaciones en varios sentidos como, por ejemplo: analizar las peculiaridades lingüísticas y léxicas de

cada una de ellas en relación con el periodo histórico en que se realizaron, y también destacar las diferencias entre las traducciones contemporáneas; observar si se conserva o no la estructura métrica original; considerar a qué público se dirige la traducción (...); poner en relieve el prestigio del texto que se traduce (...); considerar el posible prestigio del traductor (...); la fuerza de modelo que toda traducción adquiere en la cultura de llegada respecto a los géneros literarios y a los temas que ya pertenecían a ella, es decir, el efecto innovador o incluso de ruptura producido por la traducción; la posibilidad de reconocimiento de tal fuerza de modelo e innovadora (*sic*) y su codificación con la introducción de las obras traducidas en la historiografía literaria (...).

(Gnisci, 2002: 304)

Itzulpenaren kontzeptzio dinamikoa da azterketaren oinarrian egongo dena, nolabait esateko. Artikuluaren ondorioetan, besteak beste, honela dio Gniscik, arestian esandakoak laburbilduz:

Una vez superados los prejuicios sobre la marginalidad de la traducción, y reconocida la inadmisibilidad de la idea de fidelidad o equivalencia, abolida la jerarquía entre obra original y obra traducida, hoy la traducción se mueve hacia una autonomía esencial, un reconocimiento que ya no cuestiona su alcanzada emancipación literaria y comunicativa. La traducción nunca es «fiel», más bien es «libre», es una apertura que a partir de un texto produce otro, realizando una «transformación interpretativa» que expone los significados múltiples y distintos del texto a través de otros significados, que son igualmente múltiples y distintos. Esto permite a la traducción librarse de la subordinación respecto al texto extranjero y de convertirse en un lugar de desarrollo de una hermenéutica que lee el texto traducido como obra. Sus vínculos y sociales con la lengua y la cultura del tiempo hacen de ella una práctica cultural «política», involucrada en la construcción crítica de identidades extranjeras entre sí además de la formación, conservación o subversión de los modelos literarios.

El reconocimiento de la traducción como lugar de valoración y ya no de supresión de las diferencias culturales es una de las conquistas más importantes de la investigación actual e indica las modalidades con que hay que estudiar los textos en una perspectiva comparatista: contrastar los textos de la lengua de llegada con los de la lengua de partida explorando la dialéctica de adquisición y pérdida y revelando así la estrategia discursiva y lingüística implicada; examinar las discontinuidades de la traducción remontándose al proceso textual de asimilación de aquellos materiales culturales de la lengua de llegada que, usados para reproducir el texto original, conllevan una interrupción de la alteridad del texto; buscar los determinantes ideológicos, sociales e históricos de la traducción, destacando su papel cultural y

político (esto incluye el análisis de la posición de la traducción dentro de las culturas específicas, de los textos seleccionados / descartados para la traducción, de las estrategias, de las recepciones y de la posición canonizada o marginada respecto al discurso cultural dominante).

(2002: 339)

Touryk ezarritako egokitasuna/onargarritasuna kontzeptuak ez ditugu ahortzi behar, edozein itzulpen-azterketa egiten dugularik. “Itzulpen-baliokidetza” izango da, hortaz, kritikaren aztergaietako bat.

Van den Broeck ikertzailearen arabera (Van den Broeck, 1988), itzulpen-kritika ez da kontu subjektiboa. Kritika objektiboa egin daiteke, adibidez, komunikazio-prozesuan eragiten duten faktore interlinguistikoak eta interkulturalak kontuan hartuta.

Mendebaleko herrietan oso itzulpen-kritika gutxi egin izan da, eta ez dago oro har kritikarako tradizioirik. Van den Broeckek argi uzten du bere lanetan ezer gutxi egin izan dela mendebaleko herrietan itzultzaileen estatusa goratzeko. Egin den kritika apurra, gainera, erreseina modura egin izan da, publizisten, itzultzaileen, xede-hizkuntza ezagutzen duten literatura-kritikarien eskutik... baina ez itzulpen-ikasketen arloan adituek. Kritikari batzuek itzulitako obraren azterketari jatorrizkoa balitz bezala ekin izan diote, itzulpena denik ere aipatu gabe. Beste batzuek, ostera, jatorrizkoaren egilearengan eta haren obran jartzen dute arreta, itzulpenari buruz “erraz irakurtzen den testua da itzulpena” edo “akats txiki batzuk ezik, itzulpen ona da” zein “itzultzailearen hizkuntza maila ez dator bat autorearenarekin” bezalakoak esanez. Halaber, badira akatsei soilik erreparatzen dieten kritikariak. Orokorrean (badaude salbuespenak, Alemania mendebala, kasurako), kritikari horien guztien fokua jatorrizkoari begira dago: ez dute itzulitako testua beren testuen artean jasotzen, eta askotan, gainera, fenomeno isolatuak balira legez ematen zaizkigu.

Gauzak hala, Van den Broeckek itzulpen-kritikarako eredia proposatzen du, non lehenik bi testuen alderaketa egin behar den, urrats hauetan:

- Baliokidetasunari begirako azterketa. Touryren arabera, “testu egokia” (egokitasunari begira egindakoa) edo “testu onargarria” (onargarritasunari begira egindakoa) ez da egiazko testu bat, baizik eta jatorrizko testuaren erlazio eta funtzioen berreraiketa hipotetikoa. Erlazio eta funtzio horiei “textemes” esaten zaie. Testu maila guztietan egingo da analisisa, baldin hizkuntzazko eta hizkuntzaz kanpoko elementuek eragin badietzaiokete. “Baliokidetasunaren azterketa” ez da soilik *tertium comparationis* bat izango, ez bada xede-testua balioztatzeko juzku-araua.

- Xede-testuaren eta jatorrizko testuaren konparaketa, aurretik aukeratutako elementuen arabera. Kontuan hartu beharrekoak dira eraginaren arabera gertatutakoak desbideratzeak zein izan diren.
- Xede-testuaren eta jatorrizko testuaren konparaketatik ateratako emaitzak “baliokidetasun” juzku-arauarekin alderatu. Orduantxe ondorioztatuko dugu testuen arteko baliokidetzaren nolakoa den. Horrez gainera, aldeaketa horretatik ondorioztatuko dugu zein itzulpen-arau diren itzultzaileak berak egindako hautuak, hots, zein dagozkion itzultzailearen estiloari, kasurako; eta zein diren une jakin horretako gizarate eta kulturari dagozkionak.
- Bukatzeko, ikertzailearen kritika-testua izango dugu.

Kontuz, baina: kritika egitea ez da akatsen analisia egitea. Van den Broeck ez du bere metodoaren arabera itzulpen bat egokia edo arrakastatsua den deliberatu gura, ez bada *nola?*, *zergatik?* eta *beraz?* galderei erantzun.

Itzulpenaren deskribapenak, gainera, bere gain hartu behar ditu itzulitako testuak jatorrizko testuaren sistemako gainerako testuekin duen erlazioa, jatorrizko eta xede-testuaren sistemen arteko erlazioak, xede-testuaren eta irakurleen arteko harremana, xede-testuaren eta garaitiko itzulpenen arteko eraginak...

Itzulpen-kritika egitea lan akademikoa da; jakintza kontua da, gustu kontua baino gehiago; ulermen eta analisi kontua da, ebaluazio kontua baino gehiago. Hala ere, kritikariaren subjektibitatea ere jokoan dago. Kritikariak, ordea, ez ditu bere hasierako arauak itzultzailearekin nahastu behar. Itzultzailearen hasierako helburuak zein diren onartzen duenean baino ez du kritikariak lan objektiboa egingo.

Valero Garcés irakaslearen irizpideak ere bide bertsutik doaz: batetik, ez dugu itzulpen-kritika akatsen katalogo gisa hartu behar, urteetan hori egin izan den arren; bestalde, itzulpenaren historian egindako itzulpen-kritikako testuek itzulpen bat egokia zenetz baino ez dute aipatu izan, eta, orokorrean, itzulpenean aditu-gabeek egin izan dituzte. Aipatu faktore guztiek eragin dute, hain zuzen ere, itzulpen-kritikaren garapena urria eta zientifikotasunik gabeari izatea. Itzulpen-kritikaren garapena oztopatu duen beste eragileetako bat itzulpenaren kalitatea zehazteko balio eta metodologia estandarrik eza da:

Como muy bien señala Juan C. Sager (1983:121) hay traducciones más o menos adecuadas al propósito para el que fueron llevadas a cabo, pero no un único modelo. Ello significa que diferentes tipos de texto requieren diferentes métodos de traducción y por tanto diferentes métodos de crítica, de

modo que lo que es relevante de un tipo de texto pueda dejar de serlo en otro. A ello hay que sumar que los traductores pueden enfatizar o descuidar diferentes elementos en un texto o pueden tratar diferencias culturales de un modo diferente, y el crítico no puede dejar de considerar tales hechos, aunque consideremos que su labor encierra un cierto grado de subjetividad, al igual que ocurre con el traductor.

(Valero Garcés: 1995, 160)

Kritikariak, testu itzuli bat aztertzeaz dagoenean, egoera komunikatibo osoa begiztatu behar du, itzulitako testua baitu aurrean, ez soilik itzulgaia. Kritikariak bi testuen egoera komunikatiboa aztertu behar du, modu independentean, lehenik, gerora konparazioak egingo badira. Kritikariaren lana partziala baino ez da izango itzulpenaren egokitasunaz ari bada soilik, edo itzulpenaren helburuan jartzen badu arreta bakar-bakarrik.

Agente askok dute eragina itzulpenean (Picken: 1983 eta Hewsond and Martin: 1991):

- Agente eragilea (*Agente iniciador*). Itzulpenaren bultzatzailea da: jatorrizko kulturako eragilea, xede-kulturako eragilea, itzultzailea bera... Hasierako agentea zein den, eta haren egoera sozioekonomikoa nolakoa den, halako edo bestelako eragina izango du itzulpenean.
- Jarduera-agentea (*Agente operador*). Lana egin bitarteko eragileen multzoa da: itzultzailearen lan-egoera, itzultzailearen pentsamoldea, editorial jakin bateko irizpideei jarraitu beharra...

Hewson eta Martinek (Hewsond and Martin: 1991), euren aldetik, itzulpenaren zenbait maila bereizten dituzte, denak ere kritikariak kontuan hartu behar dituenak:

- Itzulpenaren barne maila
 - Jatorrizko testuaren azterketa orokorra hartzen du bere baitan: autoreak, estiloa, haren literatur produkzioa, publikoa, sasoia eta ekonomia, kultura- eta gizarte-eragileak.
- Itzulpenaren kanpo maila
 - Jatorrizko testuaren eta testu itzuliaren erkaketan datza. Zenbait azpi maila ditu:
 - Lexikoa eta semantika
 - Sintaxia eta morfologia
 - Diskurtsoa eta funtzioak
 - Pragmatika eta estilistika

Kritikariaren egitekoa faktore guztiak kontuan hartuta (jatorrizko testuaren autorea, jatorrizko testua, jatorrizko testuaren hartzailea, itzulpenaren agente eragilea, itzultzailea edo operazio agentea, testu itzulia, itzulpenaren hartzailea...), juizioak eta aurreiritziak alde batera utzita, itzulitako testuari buruzko balorazio ahal denik eta objektiboenak ematea da. Itzulpen perfekturik ez den gisa berean onartuko dugu kritika perfekturik ere ez dela; hortaz, funtsezkoa izango da kritikariak erreferentzia-markoa azaltzea eta uneoro balorazioaren helburuaz jakitun egotea.

Valero Garcés irakasleak, aurretik azaldutako agenteei eta mailei erreparatuta, Literatur itzulpenaren kritika egiteko eredu bat aurkezten digu *Apuntes sobre traducción literaria y análisis contrastivo de textos literarios traducidos* lanean (1995, 160). Eredu horren arabera, ondokoak dira kritikariaren aztergaiak:

- 1) Itzulpen-kritikariaren araua
- 2) Barneko elementuak
 - a. Testu mota
 - b. Testuaren analisisa
 - i. Jatorrizko testua
 - ii. Testu itzulia
 - c. Irakurlearen jakintza
 - i. Jatorrizko testuaren irakurlearena
 - ii. Testu itzuliaren irakurlearena
- 3) Kanpoko elementuak:
 - a. Agenteak
 - i. Agente eragilea
 - ii. Operazio-agentea
 - b. Jatorrizko testuaren eta testu itzuliaren erkaketa
 - i. Hizkuntza-tratamendua
 - ii. Itzultzailearen arauen araberrako aldaketak
- 4) Itzulitako testuaren balorazio kritikoa, 1), 2) eta 3) oinarritzat harturik.

Bukatzeko, gogora ditzagun Miguel Gallego Rocaren hitzak (1991, 66): literatur itzuliaren kritikaren helburua literaturaren historia egitea da, ez itzulpen-teknikak ikastea edo irakastea. Ez dezagun ahantzi, halaber, itzulpenaren kritika egitea ez dela erreseina bat egitea.

Laburbilduz, hona atal honetako ideia nagusiak:

Translation studies direlakoan barnean ditugu itzulpenaren teoria, itzulpenaren produkzioa eta produktuak. Itzulpena ematen den markoan, eragina duten aktibitate guztiak izan daitezke ikerketa-gai; eta ikergai horietako bat

dugu kritika. Kritika egiten delarik, aztertzekoa da, noski, garaiak itzulpenean izandako eragina, itzulmoldeak aldatu egiten baitira denborarekin. Ez hori bakarrik, testu mota bakoitzak bere ezaugarriak izanagatik, itzulmolde ezberdinak izango ditu, bai eta kritikatzeko metodo ezberdinak ere. Horrez gainera, hizkuntzak edo praktika kulturalak eta itzulpenak duten lotura behatzea garrantzizkoa da kritika egokiro egingo bada. Halaber, sistema literarioaren barnean zer mugimendu ematen den jakitea eta kritikatzeko den obra mugimendu horiekiko non kokatzen den jakitea beharrezkoa da, bai eta xede-sistemako lanekin zerikusirik duen, kasurako, edo itzulpenak xede-sisteman sortutako lanetan eraginik duen ere. Itzulpena jatorrizko kulturara begira edo xedekora begira egin den ikerketa-gai da itzulpen-kritikan; nola ez, azterketa horietan testuen alderaketa egitea ezinbestekoa da. Akatsen zerrenda egiteaz harago doa itzulpen-kritika; interesekoa honako galderei erantzutea da: *nola, zergatik eta beraz?* Azken finean, kritikariak egoera komunikatibo osoa izan behar du gogoan, juizio eta aurreiritziak alde batera utzita itzulpenari buruzko ahalik eta balorazio objektiboenak emateko.

2.5. Itzulpenaren kritika Euskal Herrian

2008an Itzulbaitak lansaio bat burutu zuen *Literatur itzulpenak baloratzeko irizpideak* izenburupean. Bakartxo Arrizabalaga, Mikel Ayerbe, Inma Errea, Mikel Garmendia eta Manu Lopez Gaseni izan ziren saioko parte-hartzaileak, Itziar Otegi moderatzailearen gidaritzapean. Manu Lopez Gasenik aurretik emandako artikulua gogoetagai, moderatzaileak ekarritako hamaika punturi buruz eztabaidatu ostean, literatur itzulpenaren kritikaren uneko egoera argiro azaltzen duten zenbait ondorio eman zituzten (*Literatur itzulpenak baloratzeko irizpideak lansaioa* - ELI dosierra, 2009).

Manu Lopez Gasenik hiru itzulpen-kritika bereizi zituen gogoetarako idatzi testuan: dibulgazio-iruzkinak, azterketa akademikoa eta erreseina edo aipamenak:

Azterketaren garrantziaren edo sakontasunaren araberako sailkapen honetako lehen lekuan azterketa akademikoa dago. Izen hori ematen diot unibertsitatearen inguruan ez ezik literatura eta itzulpena babesten duten erakundeen baitan egiten den azterketa motari. Horren egileek, irizpide eta metodo akademikoak erabiltzeaz gain, ikergaiez bestelako azterketa motetakoek baino askoz luze eta sakonago hausnartzeko aukera izaten dute. Lan horiek, ordea, doktorego-tesiak, zabalkunde gutxiko monografikoak eta espezializatutako aldizkarietako artikulak izaten dira, eta normalean ez dira irakurleria oso zabalera iristen. Gainera, ikergaiak ez dira gaurkotasu-

neko itzulpena baizik eta, oso maiz, azterketa historikoak, konparazio-lanak, katalogoak eta abar.

Bigarrenik, multzo handi batean, dibulgazio iruzkinak aipatu behar dira. Gaurkotasuneko itzulgaiak izaten dituzte hizpide, luzera aldakorreko testuetan, eta aldizkari espezializatuetan eta informazio orokorreko aldizkari eta egunkarietan argitaratzen dira. Azkenik, erreseina edo aipamenak ditugu: argitaratu berri den itzulpen bati buruzko informazio labur orokorra ematen dutenak, askotan kontrazaleko informazioan edo prentsa oharretan oinarrituta. Horrelakoak informazio orokorreko aldizkari eta egunkarietan agertu ohi dira, eta baita irriari eta telebistako saio batzuetan ere.”

(Lopez Gaseni, 2009)

Lan taldearen arabera, euskarazko literatur itzuliaren kritikan, dibulgazio-xedea duen kritika da nagusi, helburua irakurleari gidaritza eskaintzea eta itzulpengintza bera sustatzea izanik.

Izan ere, gutxi dira kritika akademikoan aritu direnak:

Xabier Mendiguren Bereziartuk, *Senex* aldizkariko lehen bi zenbakietan argitaratutako kritikak direla eta, kritikak nolakoa behar lukeen, zertzelada batzuk ematen ditu “Itzulpen kritikaz” artikuluan. Batetik, Mendigurenek dio ez dela akatsen zerrenda izan behar itzulpenaren kritika; bestetik, kritikak testuaren maila ezberdinei begiratu behar diola dio: eduki semantikoari, eduki pragmatikoari eta estiloari. Artikulu horretan kritikariaren helburuak eta egitekoak zehazten ditu (*Senex*, 1985). Kritika akademikoaren baitako artikulua da, era berean, Bakartxo Arrizabalagak emandako “Itzulpena eta feminismoa” (*Senex*, 2008), non gaiarekin lotutako zenbait ikerketaren errepasoa egiten den.

Kritika molde beronen multzoan sartuko genituzke, halaber, “Literatur itzulpenak baloratzeko irizpideak lansaioko dossierra” (*Senex*, 2009) eta Manu Lopez Gaseni irakasle-ikertzaileak idatzitako hainbat lan (geroago izango ditugu hizpide).

Bide batez, kritika akademikoari baliagarri izan dakiok Mendigurenen “Euskal itzulpenaren garapena” (*Senex*, 1993), Iñaki Aldekoak eta Mari Jose Olaziregik bi eskutara idatziriko “Zenbait gogoeta literatura unibertsala bildumaz” (*Senex*, 2001). Azken hori Literatura Unibertsala bilduma orokorrean hartuta egindako kritika da, nolabait esan. Hutsuneak non dauden aipatzen da.

Lehenago aipatutako lan saiora itzulita, jarrai dezagun bertan ondorioztatu zirenekin. Dibulgazio-kritika egitean, honakoak hartzen dituzte kontuan kritikariek: hartzailea zein den, kritikariarena iritzi subjektiboa dela argi uztea, jatorrizkoa eskutan izatearen ezinbestekotasunaren ukoa, eta kritikak literatur iruzkin gisa agertzea, testuok ez baitira itzulpen-kritika espezializatuak. Hale-

re, iruzkin osoaren barruko atal gisa dakarte itzulpenaren aipua. Itzulpena zenbateraino nabarmendu behar den, ordea, ez zen saioan adostu. Akats puntualak nabarmentzeaz denaz bezainbatean, taldeak ez zeritzon egokia akatsak nabarmentzeari, irakurlea nahasi egiten baita.

Guk, gure ikerketaren ondorioak azken horrekin bat datozen ikusi beharko dugu.

Lan saioko parte-hartzaileek premiazkoztat jo zuten kritika espezializatuan dagoen hutsuneari aurre egitea, ezen gurean hutsunea ia erabatekoa baita itzulpenaren kritika espezializatuaren alorrean. Badago kritika mota hori egiten duenik, baina oso gutxi dira, eta oso eremu urrian zabaltzen dira. Horretarako, ordea, tresnak eta baliabideak falta ei dira, kontzeptuak zein materialak, eta euskalgintzaren alorren arteko elkarlana.

Aipagarria da, kritika akademikoaren alorrean, Manu Lopez Gasenik egindako lana. Bat gatoz haren teoria- eta metodologia-aplikazioekin; haren artikulua eta lan batzuk eredu izango ditugu gure ikerketan.

“Kritika eta kritikoak azken euskal literaturan” artikuluan, esaterako, (1988) euskal literaturan egindako kritiken sailkapen modu bat ematen du: kritika deskriptiboa, linguistikoa, zientifikoa, kritikaren kritika, kritika “ad hominem”, alegia.

Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan (2005) lanean, berriz, *Translation studies* direlakoetatik etorritako emaitzen berri ematen du, labur, euskaraz. Polisistemen teoria azaltzen du Lopez Gasenik. Gainera, literatura itzuliak polisisteman duen lekuaz ere ari da.

“Euskararako literatura-itzulpenen kritikaz” artikulua lehenago ere aipatu dugu; izan ere, Euskal Herrian egindako kritikaren sailkapena ematen du bertan Lopez Gasenik: kritika akademikoa, dibulgazio-kritika eta erreseina edo aipuak. Bada, artikulua horretan, itzulpen-kritikaren inguruko zenbait auzi plazaratzen dira, hala nola, zeren arabera aukeratzen diren kritikatu edo iruzkinduko diren itzulpenak, kritikariak itzulpeneko testuaren iturri den obraren hizkuntza jakin behar ote duen –kritika akademikorako hala behar lukeela dio Gasenik– eta nola jokatu behar den testuko akats edo desegokitasunekin –kasu horretan ere nolako azterketa halako erabakia hartu behar omen da– (Lopez Gaseni, 2009).

“Euskal itzulpenen inbentarioa eta azterketa (1976-2008)” lanaren dosierrean, Gasenik euskal literatur sisteman kokatzen du itzulpena, eta Touryren bidetik, gurean diren itzulpen-arau batzuen zantzuak deskribatzen ditu. Itzultako lanen jatorrizko hizkuntzari dagokionez, gehien jatorrizko hizkuntza ingeleza da, frantsesa, gaztelania, alemana, italiara, latina eta errusiera baino

askoz gorago. Lanen jatorriaz denaz bezainbatean, lan gehienak Ameriketako Estatu Batuetakoak dira. Itzulitako lan gehienak XX. mendekoak dira. Generoa kontuan hartuta, narratiba nagusitzen da, erabat, itzulitako obretan. Bestalde, itzulpen gehienak 1990eko hamarkadan egindakoak dira, garai horretan sortu baitziren itzulpen-ikasketak, Euskal Itzultzaileen Elkartea (EIZIE) zein itzulpenaren lagungarri izan zitezkeen ekimen eta bilduma batzuk. Zatikaturik agertzen dira itzulitako egileen portzentajeak, baina portzentajerik altuena dute Cervantes, Shakespeare, Pio Baroja, Agatha Christie, Wilde eta Maupassant idazleek. Gauza bera gertatzen da itzultzaileekin ere: portzentajeak oso zatikaturik agiri dira. Argitaletxeka banatuta, *Pentsamenduen klasikoak* eta Literatura Unibertsala bilduma ateratzeko hautatutako Ibaizabal argitaletxea dago besteren gainetik. Itzulgaien aukeraketari dagokionez, joera bi omen daude: argitaletxe edo ekimen publiko bidez egindako itzulpenek klasikoak argitaratzera jotzen duten artean, ekimen pribatuek, oro har, salgarriak eta komertzialak diren obretara jotzen dute. Badirudi helduen literaturan jatorrizko hizkuntzatik egin direla itzulpenak; haur- eta gazte-literaturan, ordea, zubi-hizkuntzak ere erabiltzen dira. Jatorrizko izenburuak edo itzultzaileen izena kredituetan agertzeari dagokionez, ez dago uste bezain zabaldua. Jarduerara arauak aztertzea tamaina horretako lan batean ezinezkoa bada ere, Manu Lopez Gasenik joera batzuen berri ematen du: testuen osotasuna itzultzen da, toponimo eta antroponimoetan jatorrizkoak errespetatzen dira (beste garai eta tradizio batzuetan ez bezala) eta badirudi, hasierako araua orekaturik dagoen arren, egokitasunaren eta onargarritasunaren artean, itzulpena egokitasunerantz lerratzen dela, jatorrizko obren eta literatura-sistemen arauak gordetzearen alderantz, alegia (Senex, 2009).

Guk kritiken azterketa egin eta aurreko artikuluan zehaztutako arauben baten zantzua agiriz gero, konparatu egin beharko dugu Lopez Gasenik esandakoarekin, ea 2000-2008 tartean bat datozen eta 2009 aldera aldaketarik nabaritzen ote den.

3. Corpora eta aztergaiak

3.1. Gure corpora eta aztergaiak

Gure corpora osatzeko erabilitako iturria *Armiarma* proiektuko Kritiken Hemeroteka ekimeneko datu basea izan da.

ZIO bildumako lanak³, Pentsamenduaren Klasikoak bildumakoak⁴ zein saiakera-lanak, kasurako, ez ditugu corpusetik atera; izan ere, bestelako ikerketetan ere, Manu Lopez Gaseniren itzulpen katalogoan legetxe, sartuta daude, eta guretik ateratzeak konparazioak egin orduan, alderaketak sinesgarritasuna galduko luke.

³ Hona hemen Zientzia Irakurle Orentzat bildumako jakingarriak: *Iturri beretik sortuak dira literatura eta zientzia, gure jakin-mina asetzeko. ZIO bildumak egungo ezagutza zientifikoa plazaratzen duten askotariko saiakera eder eta irakurgarriak eskaintzen ditu euskaraturik.(...) Goi-mailako dibulgazio-liburuek osatzen dute ZIO. Atseginak dira irakurtzeko; arrakasta eta miresmena berenganatu dute beste hizkuntzetako irakurleen artean, eta aditua ez den baina egungo ezagutza zientifikoaren berri jakin nahi duen irakurleari zuzenduta daude. Bi zuzendari ditu bildumak, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak biak: Juan Garzia Garmendia eta Itziar Laka Mugarza. http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es/p267-content/eu/contenidos/informacion/ee_zio/eu_zio/zio_katalogoa.html | Azken kontsulta: 2010-08-21 |*

⁴ Bildumari buruzkoak jaso ditugu bildumaren webgunean, Aurkezpena deritzon atalean, esan dugunaren adierazgarri: *Gauzak horrela badaude, alde batetik, gure kultur produkzioa urria delako da, eta bestetik, Jaufré Rubel trobadorearen hitzak erabiliz, euskara oraindik "urrunekoaren ostatu" (auberge du lointain) eroso izatera iritsi ez delako, hau da, gure hizkuntzak mendebaldeko kultura honen oinarrian dauden pentsamendu unibertsaleko obra gailenak zuzenean eta sistematikoki berenganatu ez dituelako. Gaur egungo euskal gizarteak, Mendebaldeko kultur eremuan kokaturik dagoenak, erro grekolatindarretatik eta ondorengo mendeetan haietatik abiatuz gure egunotara arte izan duen aberaste filosofiko eta zientifikotik hartzen du bere bizi-iraina. Euskal kulturak, bere ahalbide apalen arabera, altxor horri noizean behin bere ekarpenak egin izan dizkionak, bere ingurunearekiko harreman jariakorrik lortzen ez badu, ez gaztelania eta frantsesaren bidez bakarrik, baita euskararen bitartez ere, ezin izango die etorkizuneko erronkei behar bezala erantzun, eta zimeldu eta ilarantz beste irtenbiderik ez du izango datozen hamarkadetan. http://www.klasikoak.com/Formularios/Sarrera_e.htm | Azken kontsulta: 2010-08-21 |*

Corpusaren azterketa sasoian, gure helburua ez da, ez itzulpenak kalifikatzea, ez eta kritikak ebaluatzea ere, baina kritiketan ageri diren itzulpen-arauen zantzuak identifikatzea. Gure ustez, itzulpenak euskal literatur sisteman duen lekua zein itzulpenaren harrera deskribatzen lagunduko digu ikerketa honek. Horrez gainera, kritika akademikorako lehenengo pausoak emateko moduan izango gara, itzulpen-sistemaren kritikaren deskripzioa egiten ari garen unetik bertatik.

XXI. mendearen lehenengo hamarkada (2000-2009) aukeratzea ez da arrazoiatarik gabeko hautua izan. XX. mendean aurrerapen nabarmena egin zen itzulpengintzan: EIZIE martxan zen ordurako (1987an sortu baitzen), itzulpen-ikasketak abian jarri ziren, bai eta literatur itzulpenen lagungarri izandako zenbait ekimen ere. Uste dugu XXI. mendean finkatuxeago ageri dela euskal itzulpengintza; hortaz, itzulpenen dibulgazio-kritika ere aise finkatuta dagoen aburuz abiatu gara.

Lehenago esana dugu kritika akademikoaren esparruan oso lan gutxi egin direla. Badirudi berriki eman zaiola garrantzi gehiago; eta, abian da, kasurako, *Langintza xeheki* izeneko kritika berezituen atala EIZIEren webgunean. Alabaina, 2000-2009 tartean ez da sistematikotasunik inondik ageri kritika akademikoaren arloan; hortaz, dibulgazio-kritika izango da hemen aztertuko duguna (horixe baita Kritiken Hemeroteka ekimenean biltzen dena⁵).

Jarraian ageri diren fitxa-ereduetan hustu ditugu kritikak. Bi atal sortu ditugu kritika bakoitzerako: “kritika” eta “azterketa”. Lehenengoan, Kritiken Hemeroteka ekimeneko arduradunek helarazitako datuak ditugu: xede-izenburua, jatorrizkoaren egilea, itzultzailea, itzulpenaren argitalpen-data eta argitaletxea, kritikagilea, kritikaren argitalpena, argitaratze-data eta kritika-testua.

Bigarrenean, “Azterketa” atalean, betiere aurretiaz landutako teoria eta metodologiaren arabera, kritika bakoitzaren azterketa islatu dugu. Honako aztergaiak izan ditugu kontuan:

⁵ Halaxe diote ekimenaren arduradunek Kritiken Hemerotekaren webgunean: *Susa argitaletxeak 2001ean sortutako Kritiken Hemeroteka zeharo berri eta beregain hartu du Armiarma webguneak 2007an. Astero argitaratzen diren kritikak biltzen ahalegintzen gara, literatur liburuen gaineko iritziak aise aurkitzeko aukera eskaintzearen. Hona batu dugu, halaber, XX. mendean idatzitako kritika sorta handi bat, 1930etik hasita. Hedabide nagusiak: Aizu!, Anaitasuna, Argia, Berria, Bilbao, Deia, Egan, Eguna, Eguneru, El Correo, El Día, El Diario Vasco, El País, Euskaldunon Egunkaria, Euzkadi, Euzko Gogoia, Gara, Gaiñe, Hegats, Idatz & Mintz, Ipar Atea, Irurero, Jakin, Maxixatzen, Nabarra, Noticias de Gipuzkoa, Oleriti, Ostiela!, Pamiela, Radio Euskadi, Susa, Volgako Batelariak, Zabalik, Zeruiko Argia. http://kritikak.armiarma.com/?page_id=2 | Azken kontsulta: 2010-08-20 |*

EUSKARARA ITZULITAKO LITERATURA - KRITIKA
Datu basea - Miren Ibarluzea

kritika **azterketa** XH Izenburua

JH Izenburua

Egilea

Jatorrizkoaren herrialdea

Itzultzailea

Itzulpenaren argitalpen-data

Itzulpenaren argitaletxea

Kritikagilea

Kritikaren argitalpena

Kritikaren argitalpen-data

Kritika

Existitzeak dakarren ardura
Erru sentimenduek izugarriko zama dute nor bere bizitzarekiko ardura eta funtsezko erabakiak hartu behar dituztenean. Are gehiago maila guztietan irakiten dagoen gizarte testuinguru batean suertatzen bada erabaki horiek bizitzea.
Testu autobiografikoei garrantzi handia izan zuten Beauvoiren lanean eta eleberrir honetan nabarmena da eragin hori. Parisen kokatzen da istorioa, iragan den mendearen lehen erdialdeko gerrartean, ideia iraultzaileak egunerokotasunean finkatzeko saio sakona egiten zen garaian. Nazien eraginez bere nortasuna eraldatuta ikusiko duen Paris ezagutzen ahal du bertan irakurleak. Orduko egunerokotasuna, aldaketa sozialak eta guda bera islatzen dira liburu honetan, betiere protagonisten sentimenduen baitatik. Hondamen sentsazioaren erdian zentzua aurkitu nahian iristen da existentzialismoa, garaiko egonezari irtenbidea edo forma bederen eman nahian. Jean-Paul Sartre eta Simone de Beauvoir izan ziren ideia horien adierazle esanguratsuak.

Gure datu-basearen irudia, "Kritika atala".

Kritika mota

- Azterketa akademikoa
- Dibulgazio-iruzkinak
- Erreseina edo aipua

Hasierako araua

- Egokitasuna
- Onargarritasuna

Aldez aurreko arauak

- Agente eragilea
 - Aipatzen al da zein ekimenen bidez egin den itzulpena? Eta horrek nola eragin duen?
- Jarduera-agentea
 - Aipatzen al da itzultzailea? Haren jardunbidearen eta pentsamoldearen inguruan zerbait esaten al da?
 - Itzultzailearen lan-egoera edo baldintzak esaten al dira?
 - Editorialak ezarri dizkion irizpideak zein izan diren esaten al da?

Itzulpena eta hizkuntza bikoteak

- Aipatzen al da itzulpena bera? Nola?
- Itzulpena baloratzen edo kalifikatzen al da?

- Jatorrizko hizkuntza zein den esaten al da? Eta xede-hizkuntza?
- Zubi-hizkuntzarik erabili den jakinarazten al da?
- Hizkuntzari buruzko gogoetarik egiten al da?

Itzulpena polisisteman

- Jatorrizko literatur sisteman/kulturan lanak duen lekua aipatzen al da? (jatorrizkoaren garaia, ingurua, hartzaileak...)
- Xede-literatur sisteman/kulturan lanak duen lekua/harrera aipatzen al da?

Testu motari buruzko azalpenik bada?

Jarduera-arauak

- Erkaketarik egiten al da jatorrizkoaren eta itzulitakoaren artean?
- Akatsak aipatzen al dira?
- Itzulpen-estrategiak aipatzen al dira?

Oharrak

EUSKARARA ITZULITAKO LITERATURA - KRITIKA
 Datu basea - Miren Ibarluzea

kritika **azterketa** XH Izenburua Godoten esperoan

Kritika mota Dibulgazio iruzkinak

Hasierako araua Bai Ez

Agente eragilea Bai Ez
 argitaletxearen lana goratu

Jarduera agentea Bai Ez
 izena + esperientzia

Itzulpena eta hizkuntzak Bai Ez
 euskararazko itzulpena
 Euskara aberats dotore eta hasoa

Obra jatorrizko polisisteman Bai Ez
 Egileak nor izan duen iturri eraginen aldetik / literatur korrontea aipatu

Obra xede polisisteman Bai Ez

Testu mota Bai Ez
 Antzezlanak euskaratu eta argitaratzea goratzeko lana da

Jarduerazko arauak Bai Ez
 Jatorrizkotik erregistro aldaketa

Oharrak


Gure datutegiaren irudia, "Azterketa atala".

3.2. Corpusaren azterketa

Kritika kopurua

Sortu dugun datu-base berrian 511 kritika bildu ditugu. Hona hemen urtean-urtean literatur itzulpenen kritikek izandako bilakaera:

2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
18	32	49	47	34	39	74	70	79	67



Gero eta leku gehiago du itzulpenak gure gizartean, eta literatur itzulpenen kritikak ere gero eta ugariagoak dira. Jazoera, noski, bat etor daiteke hizkuntza-normalizazioko ekimenen emaitzekin; kasurako, EIZIEk abian jarritako Literatur Itzulpena Hedabidetan ekimenarekin.⁶

Estatistikak egin guran izan garen arren (itzulgaien eta kritikagaien arteko erlazioa, kasurako), han-hemengo datuek batasunik ez zutela eta, dagoen-dagoenean utzi dugu atal honetako informazioa. Izan ere, Lopez Gasenik egi-na du itzulpen-katalogoa⁷ (sarean dago, kontsultarako⁸), baina ez datoz bat

⁶ Hala jasotzen da elkartearen webgunean: *Literatur itzulpenen presentzia bermatzeko eta literatur itzulpenen irakurzaletasuna sustatzeko asmoz sortu zuen EIZIEk programa hau*. Adierazpen hori elkarteak bidalitako albiste bateko honako hitz hauekin osatu daiteke: *Izen hori dauka EIZIEk 2000. urtean abian jarri zuen egitasmoak. Euskal Herriko zenbait hedabidetara bidalitako iruzkin kritikoekin osatu izan da euskarara itzulitako literatur lanen inguruko berri ematea. (...) Orain arte honako lau agerkari hauetan plazaratu izan dira kritika lanok: Berria egunkarian, Deia-ren "Ortzadar" gehigarrian, Zabalik astekarian eta Nafarroako Diario de Noticias egunkarian. Karlos del Olmo, Manu Lopez, Mikel Garmendia, Inma Errea eta Ander Irizar dira iruzkingileak. (...) Programa honen barruan, EIZIEk bultzatzen duen Literatura Unibertsaleko itzulpenei ere egi-ten zaizkie iruzkinak. Iruzkin horiek, baina, Literatura Unibertsala bilduma. Iruzkinak izeneko txoakoan daude jarrita.* <http://www.eizie.org/en/News/1141376548> | Azken kontsulta: 2010-08-20 |

⁷ LOPEZ GASENI, Manu: Euskal itzulpenen inbentarioa eta azterketa (1976-2008) (ELI dossier-rra), *Senez* 37, 2009.

⁸ <http://amarauna.org/eizie/> | Azken kontsulta: 2010-09-08 |


katalogoaren dosierreko eta sarean eskegitako emaitzak, ez eta gure corpusean jasotako kritika kopurua eta sarean jasotakoa (iturria bera den arren: Kritiken Hemeroteka) ere. Esan legez, hortaz, bere horretan utziko dugu atala, kritiken bilakabideari bere soilean begiratuta.

Kritika-argitaratzaileak

Kritiken Hemerotekan jasotako 511 kritikak beheko taulan jasotako kazetetan argitaratutakoak dira. Taulan islatutakoa kazetetako bakoitzak 2000-2009 tartean argitaratutako literatur itzulpenen kritika kopurua da.

<i>Aizu</i>	10
<i>Argia</i>	5
<i>Berria</i>	98
<i>Bilbao</i>	5
<i>Deia</i>	32
<i>Diario de noticias</i>	38
<i>Egunero</i>	3
<i>Eizie.org</i>	53
<i>El Correo</i>	54
<i>El Diario Vasco</i>	74
<i>El Pais</i>	4
<i>Euskaldunon egunkaria</i>	33
<i>Gara</i>	75
<i>Hitzak & Ideiak</i>	
<i>Idatz & Mintz</i>	1
<i>Guaixe</i>	2
<i>Irunero</i>	3
<i>Luma berrien eleak</i>	1
<i>Maxixatzen</i>	4
<i>Nafar periferiatik</i>	1
<i>Nasmastarren apunteak</i>	1
<i>Noticias de Guipuzcoa</i>	4
<i>Putz</i>	1
<i>Radio Euskadi</i>	5
<i>The Balde</i>	2

Ondoko grafikoan ikusgai daude 511 literatur itzulpen kritiken banaketa zein den, aurreko datuen arabera, ehunekotan.



Grafikoan, “Beste batzuk” atalak hartzen ditu 5 kritikatik behera argitaratu duten kazetak: *Egunero*, *El Pais*, *Hitzak & Ideiak*, *Idatz & Mintz*, *Guaixe*, *Irunero*, *Luma berrien eleak*, *Maxixatzen*, *Nafar Periferiatik*, *Nasmastarren apunteak*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Putz* eta *The Balde*.

Kritiken argitaratzaileak egunkariak, astekariak, aldizkariak, irratsaioak, blogak eta euskal erakundeetako aldizkari eta webguneak dira, hots, euskal prentsa edo komunikabideak. *Idatz & Mintz*, *Eizie.org* eta *Luma berrien eleak* argitaratzaileen kasua berezia dela uste dugu: *Idatz eta Mintz* aldizkaria (Labayru Ikastegia), literatur aldizkaria da, gure ustean prentsatik baino gehiago duena akademikotik; izan ere, Ikastegiaren webgunean adierazten den gisan, literatur sorkuntza eta saioa da aldizkariaren helburua, eta balizko hartzaileak literaturzaleak, irakasleak eta akademikoak dira⁹; halatan ere, bertan jasotako kritika Kritiken Hemerotekako datu-basean dago. *Eizie.org* webgunean argitaratutakoei dagokienez, kontuan hartu beharrekoa da EIZIEko webgunean kritikak

⁹ www.labayru.org | Azken kontsulta: 2010-08-20 |

jasotzen dituzten bi atal daudela: *Literatur itzulpena hedabideetan eta Langintza xeheki*. Lehena, literatur itzulpenen presentzia bermatzeko eta literatur itzulpenen irakurzaletasuna sustatzeko asmoz sortutako programa bateko emaitza da; bigarrena, ostera, itzultzaileei zuzendutakoa da¹⁰. Kritiken Hemerotekan jasotakoak, Literatur itzulpena hedabideetan proiektuko parte diren aldetik, gure datu-basean ere sartu ditugu, prentsan argitaratukoaren parekotzat ditugu (horietako batzuk, gainera prentsan argitaratutakoak dira). *Luma berrien eleak* kritika argitaratu zuenen hedabideari dagokionez, Idazleen Eskolako master-ikasleek idatzitakoak biltzen dituen aldizkaria da, baina orotariko hartzaile-entzakoak da, eta ez dira artikulu akademikoak jasotzen bertan¹¹. Hortaz, aldizkari horretan jasotako kritika ere gure corpusaren zati da.

Eizie.org da literatur itzulpenen kritikak soilik argitaratzen dituen gunea. Are gehiago, zenbait kazetatan argitaratutakoak elkarte horrek bultzatutako ekimen baten harira egiten dira, Literatur Itzulpena Hedabideetan ekimenaren harira, alegia. Begira EIZIEtik bertatik helarazi dizkiguten jakingarriak:

Literatur Itzulpena Hedabideetan ekimena 1999. urtean hasi zen, 2000ra arte *Egunkarian* argitaratzen zirelarik 2, 3 edo 4 kritika urtean, gutxi gora behera. Jon Alonso izan zen lehen bi urteetan kritikari eta, ondoren, Karlos del Olmo eta Juan Garzia. 2001ean *Deian* ere argitaratzen hasi ziren, 3 artikulu zehazki, eta kritikaria, berriz, Manu Lopez. 2002an *Egunkarian* (Karlos del Olmo) eta *Deian* (Manu Lopez) aritu ziren programaren barruan, 10-11 artikulu egin zituztelarik.

2003an, berriz, *Berria* (9 kritika): Karlos del Olmo eta Jon Alonso; *Deia* (11 kritika): Manu Lopez; *Zabalik* (*Diario Vasco*, gehigarria – 5 kritika): Koldo Biguri, eta *Mugalarri* (*Gara* gehigarria – 5 kritika): Mikel Garmendia. 2004an berdin antzera jarraitu zen, baina *Berrian* Karlos gelditu zen kritikari, eta kritika kopurua igo egin zen: *Berria* 8 kritika, *Deian* 10, *Zabaliken* 11 eta *Mugalarri* 7. 2005ean berriz, *Mugalarri* desagertzen da, egunkariaren barne erabakiz eta sistema aldatzea erabakitzen dute. Urte horretan, *Diario de*

¹⁰ Hala dio EIZIEko webgunean sail honen sarrera-testuko txatal batek: *Jatorrizko testuaren ordean egin zitezkeen hautu guztien artean zergatik bat egin den; baztertu direnak zergatik baztertu diren, zer eman duen hautu horrek, zer ez; zer eman zezakeen bestela eginik. Hori guztia eta beste hamaika koska sortu ohi zaigu itzultzen ari garenean edo amaitu ondoren: Zer iruditu zaie irakurleei, irakurle aditu ditugun lankideei.* www.eizie.org | Azken kontsulta: 2010-08-20 |

¹¹ Honela mitzatu zen kazetako kide den Ainara Maia aldizkariaren aurkezpena: *Sorkuntza aldizkaria da. Ez diogu aldizkari literarioa denik, sorkuntza literarioari ere espazio handia eskaintzen zaion arren, literariotzat dauzkagun generoekin batera, bestelako genero batzuk ere txertatzen dituen aldizkaria baita: iritzi eta dibulgazio-lanak, liburu-iruzkinak, elkarrizketak...* <http://www.gara.net/paperezkoa/20070722/29962/eu/L-Luma-berrien-eleak-aldizkariak-idazle-berriak-aurkezten-ditu-udako-alean> | Azken kontsulta: 2010-08-20 |

Noticias de Navarra gehitu zen proiektura (bertako kritikariak Inma Errea eta Ander Irizar dira, urtean 9 kritika argitaratuz). 2006an *Berria* programatik kanpo geratzen da, *Mugalari* lehenago gertatu zen bezala. Baina Karlos eta Mikel Garmendiaren kritikak www.eizie.org-en argitaratzen hasten gara (gaur egun horrela jarraitzen dugu) eta *Diario de Noticias*en kolaboratzaile bat gehiago dugu: Fernando Rey. 2007tik gaur arte hauxe da egoera: hilean behin webgunean jartzen dira kritika guztiak, baina Karlos del Olmorenak eta Mikel Garmendiarenak webgunean bakarrik argitaratzen dira. Inma Errea, Ander Irizar eta Ander Aranarenak (2009an hasi zen kritikari bezala), ostera, txandaka hilean behin *Diario de Noticias de Navarra*n argitaratzen dituzte, eta ondoren guk gure webgunean.

(EIZIE, Idazkaritza)

Ekimen interesgarria da oso EIZIEk abian jarritakoa; izan ere, helburu zehatz batzuen inguruan eraikia denez, kritikariek helburu horiei egin behar diete men, eta gisa horretan, ez dabilta noraezean kritikak idazterako orduan. Gainera, ekimeneko kritikak EIZIEk izendaturiko kritikoen eskutik datozkigu, beti ere itzulpengintzarekin nolabaiteko lotura dutelarik.

Kritiken bilakaera irudikatzen duen taulara eta grafikora joz gero, datuak bat datozela ikusten da. Halaber, bat datoz EIZIEren ekimeneko parte izan diren kazeten izenak literatur itzuliaren kritika gehien atera dituzten kazetenekin. Hortaz, ekimenak fruituak izan ditu, proiektuaren helburua bete dela dirudi, batez ere, proiektutik atera diren argitaratzaileek, gerora ere, literatur itzuliaren kritikak ematen jarraitu dutelako.

Euskarara ekarritako literatur itzulpenen kritika gehien eman duten argitaratzaileak *Berria* (% 19) *Gara* (% 15) eta *Diario Vasco* (% 15) egunkariak dira. *Berria* egunkariari gehitu egin behar zaizkio *Euskaldunon egunkaria* eta *Egunero* kazetetakoak: % 7 eta % 1 hurrenez hurren.

Kritikak argitaratzen dituzten hedabideek, noski, ez daramate kalean denbora bera, ez eta literatur itzulpenen kritikak argitaratzen ere. Argitaratu kritiken eta kritikak argitaratzen daramaten urteen erlazioa aterata¹², urtean kritika gehien ematen dituen *Berria* egunkaria (urtean 14 kritika, batz bestea) dela ikus daiteke, eizie.org atzetik duelarik (urtean 10,6 kritika eman ditu batz bestea 2000-2009 tartean). Zerrendan hurrengoak *Gara* eta *Diario Vasco* egunkariak ditugu (7,5 eta 7,4 kritika urtean, hurrenez hurren); horien ostekoek batz bestea 6,3 kritikatik beherako emaitzak dituzte.

¹² Erlazioaren emaitzak ateratzeko, Kritiken Hemerotekea izan dugu datu-iturri. Bertan jaso dugu argitaratzaile bakoitzak zenbat urte egin dituen kritikak ematen 2000-2009 tartean.

Datuon arabera ondorioztatu daitekeen gisan, oro har, gure sisteman ez dago oso argi kritika akademikoaren eta dibulгатiboaren eremua zein den. Kritika akademikoa unibertsitate inguruan egiten dena delako ustea dago zabaldurik; eta bestelako eragileek egindakoa agertzen denean, ez omen da erraza dibulгатiboa den ala ez erabakitzea. Gainera, ez da kontuan hartzen eragileon balizko hartzailleak zein diren; hala, alde batera uzten da, nolabait, kritikaren edukia bera.

Are gehiago esatera ausartuko ginatke: kritika dibulгатiboaren esparruan, aztertzeo modukoa litzateke euskal prentsako eta komunikabideetako kritiken hartzailleak zein diren, hots, zeinek irakurtzen dituen; ez dugu uste irakurle arruntek horietara jotzen dutenik, ez bada literaturaren inguruko jendeak.

Bestalde, bildutako datuen arabera, euskal kazetek egiten diote leku gehien euskarara ekarritako itzulpenen kritikei; eta dibulгатzio-kritika kazetaren euskararekiko atxikimenduarekin zein EIZIEren programan duten parte-hartzearekin lotuta dago; bada, azken horrek berebiziko garrantzia duela begitantzen zaigu.

Kritikagileak

Ondoko taulan daude 2000-2009 tartean euskarara itzultako literatur lanen baten kritika idatzi duten kritikarien izenak, eta, parentesi artean, bakoitzak idatzitako kritika kopurua.

Orotara, aztergai dugun denbora-tartean, 65 kritikari ditugu. Kritika bat edo bi idatzi dituzten kritikariak 36 dira, % 56, alegia. % 38k, hau da, 25 kritikarik, 3 eta 20 kritika artean idatzi ditu. Gutxiengoa da 21 kritikatik gora idatzi dituenak: % 6,4 kritikari.

Oso kontuan hartzeko datua iruditzen zaigu, halaber, literatur itzulpenen kritikak egiteaz gainera, euskaraz sortutako lanak ere kritikatzeko dituela kritikarien % 78,5k. Hortaz, % 21,5 baino ez da aritzen soilik literatur itzulpenen kritikak idazten.¹³ Itzulpen-kritikak soilik idazten dituztenen artean sartu ditugu Karlos del Olmo eta Mikel Garmendia kritikariak, ezen, datuei begiratuta, bistan denez, salbuespena baita idatzi duten kritika bakar hori, sormen-lanen kritiken taldekoa.

Sarrien kritikagile berak egiten ditu komunikabide bateko kritikak. Igor Estankona (*Gara* eta *Deia*), Iker Zaldia (*Noticias de Gipuzkoa* eta *Gara*), Inma Errea (*Eizie.org* eta *Diario de Noticias*), Karlos del Olmo (*Beria*¹⁴, *Gara*, *Eizie.org*) eta Mikel Garmendia (*Eizie.org*, *Gara* eta *Zabalik*) dira komunikabide baten baino gehiagotan aritu direnak (65 kritikaririk, 5 baino ez).

¹³ Datua betiere Kritiken Hemerrotekan jasoa da, kritikariaren araberrako bilaketa eginda lortua.

¹⁴ *Beria* aurreko *Euskaldunon Egunkaria* eta *Eguneron* ere kolaboratu zuen kritikariak.

1-2 kritika	3-20 kritika	21 kritikatik gora
Alberdi Uxue (2)	Alvarez, Amaia (3)	Garmendia, Mikel (38) **
Alonso, Jon (1)*	Arana, Ander (6)*	Del Olmo, Karlos (62)**
Amilibia, Lorea (2)	Asurmendi, Mikel (3)	Juaristi, Felipe (67)
Aristi, Maider (1)	Ayerbe, Mikel (20)	Rojo, Jabier (54)
Benito, Jon (1)	De Amezaga, A. (5)	
Egia, Lutxo (1)	Egaña, Ibon (14)	
Egimendi, M. (1)	Errea, Inma (19)*	
Elortza, Irene (1)	Esnaola, Iratxe (3)	
Elustondo, M.A. (1)	Estankona, Igor (18)	
Etxeberria, Isabel (1)*	Galarraga, Aritz (17)	
Ezkerra, Estibaliz (1)	Gillan, Oier (4)	
Garzia de Kortazar, Mirari (1)*	Irizar, Ander (14)*	
Iban, Anagoia (2)	Landabaso, Goizalde (5)	
Iribertegi, Paula (1)*	Lartategi, Josu (6)	
Irigoiien, Joxe (1)	Lopez Gaseni, Manu (3)*	
Jimenez, Gus (1) *	Olano, Ion (13)	
Kirch, Leo (1)*	Rabelli, Albaro (3)	
Kortazar, Jon (1)	Retolaza, Iratxe (10)	
Lasarte, Genma (1)	Roque, Iñigo (12)	
Luzarraga, Asel (1)	Sarasola, Beñat (14)	
Maia, Ainara (1)	Serrano Izko, Bixente (20)	
Markuleta, Gerardo (1)	Unanue, Ana (9)	
Padron, Jose Luis (2)	Zaldúa, Iker (6)	
Rey, Fernando (1) *	Zapiain, Markos (8)	
Rodriguez, Fito (1)	Ziaurriz, Maider (3)	
Ruiz, Saioa (1)		
Sarasola, Asier (2)		
Sarriegi, Patxi (1)		
Sarriugarte Iñaki (1)*		
Sastre, Pablo (1)		
Suarez, Castillo (2)		
Uribe, Kirmen (1)		
Urkiza, Ana (1)		
Zabala, Juan Luis (1)		
Zubeldia, Leire (1)		
Zubiate, Aritz (1)		

*Itzulpen-kritikak idatzi dituzte soilik.

** Itzulpen-kritikak izan dira idatzi dituzten guztiak, bat izan ezik.

Kritikari bakoitzak idatzitako kritika kopuruari begiratuta, bistan denez, literatur itzulpenen kritikaren alorrean ez da espezializaziorik gurean. Kritikarien % 56k behin edo behin baino ez du kritikaren bat idatzi, eta, horrez gainera, itzulpenen kritikak soilik idazten dituzten kritikariak % 21,5 baino ez dira. Gainera, badirudi itzulpen-kritikak soilik egiten dituztenek lotura estua dutela itzulpenaren munduarekin. Itzulpen-kritika gehien idatzitakoen artean daude horietako batzuk, eta haiekin batera daude, gisa berean, kritika gehien idatzi dituztenen artean, alegia, kritikan luze ibilitakoak. Ezen, maiz, tarte laburrak (urte bat edo bi gehienez) egiten baitituzte literatur kritika dibulгатiboan gehienek, ostean euren langintza beste baten eskutan uzteko. Hortaz, baieztatu baino ez da egiten espezializatzeko ezaren susmoa.

Itzulpen-kritikak soilik egiten dituztenek, itzulpenaren munduarekin lotura estua dutela genioen aurretik, baina nabarmentzekoa da kritikarien artean ez dela EHUKo Itzulpengintza eta Interpretaritzaz lizentziadunik. Badira kritikagai diren itzulpenak egin dituzten EHUKo aipatu programako ikasle ohiak; arlo horretan, itzulpen praktikan gura bada, nabarmenak dira itzulpen-ikasketak gurean ezartzearen ondorioak. Literatur itzulpen-kritikaren alorrean, ostera, ez da halakorik jazotzen; gure iritziz aipatu programan itzulpenaren kritikan sakontzeko ikasgairik ez gotea izan daiteke arrazoibideetako bat.

Kritiken argitalpena

511 itzulpen-kritika bildu ditugun arren, kritikaturako izenburuak 233 dira. Ezagun da izenburuak errepikatu egiten direla, hots, izenburu bera behin baino gehiagotan kritikatzeko dela, kazeta ezberdinetan.

Ohikoena kazeta berean liburu beraren kritika behin baino ez agertzea da. Halatan ere, salbuespen bat dugu *Piknika izotzetan* (Alberdania, 2009) lanaren kasuan; Bixente Serrano Izko kritikariak 2009ko abenduaren 20an *Berrian* idatzitako kritikan halaxe dio: “Gazte Literatura bezala komentatu zuen egunkari honetan joan den igandean Imanol Mercero–, baina bere itxurazko lainotasun literarioaren azpian zama handia darama narrazio honek, helduentzako are produktu biziki interesgarriagoa delarik”. Haur- eta gazte-literatura eta helduen literaturaren muga lausoaren ondorio da, hortaz, salbuespenaren arrazoia.

Kritika gehien dituzten bi lanek 6 kritikariren testuak biltzen dituzte (*Satanen seme* eta *Intimitatea* liburuak). Alabaina, aztertzeke dago zeren arabera hautatzen diren hedabideetan kritikaturako diren izenburuak.

Obra agertu eta gutxira egiten dira kritikak, ez da denbora gehiegi igarotzen argitalpenetik kritika egiten den arte. Urtebete baino gehiago ez da joa-

ten normalean. Are gehiago, *Bi epaile frantziarrentzako eskutitza* lanari Ion Olanok Garam 2008ko maiatzaren 24an egin zion kritikan, argitalpenetik urte erdi igaro zenean, kritikariak berandu zebilen irudipena zeukan: “Berandu heldu izanaren sentipena dut. Berandu samar, baina agian garaiz. Urte erdia joan da ia Txalapartak *Bi epaile frantziarrentzako eskutitza* argitara eman zuenetik.”

Lan zaharragoen kritika egiten denean, berrargitalpenen edo edizio berriren baten harira egiten da. Horixe da, hain zuzen, adibide baterako, *Grimm anaaien berrogeita hamar ume ipuin*¹⁵, *Eguarri abestia*¹⁶, *Wilhelm Tell*¹⁷ zein *The Nabarra*¹⁸ lanei, hurrenez hurren Karlos del Olmok (*Euskaldunon Egunkaria*, 2002-06-01), Felipe Juaristik (*El Diario Vasco*, 2003-10-17), Karlos del Olmok (*Berria*, 2005-10-18) eta Alvaro Rabellik (*El Pais*, 2004-02-29) egindako kritikak.

Testu berriagoa izanik ere, *Estilo Ariketak* lanaren kritika (Lorea Amilibia, *Deia*, 2008-07-08), berrargitalpen baten harira egiten da. Izan ere, *Estilo Ariketak* lehen aldiz 2006an agertu zen arren, 2008an beste argitalpen bat izan zuen, eta horrexen aitzakian egindakoa da, hain zuzen ere, aipatu kritika¹⁹.

Datuon interpretazioa egite aldera, badirudi euskarara ekarritako lanen kritika dibulgatiboa merkatuari lotu-loturik dagoela. Ematen du, nolabait, marketin estrategia bat dela kritiken argitalpena, argitaratu berri diren lanak baino ez dira kritikatzin, eta testu zaharrak edo lehenago argitaratuak beste esparruetarako uzten dira. Testu klasikoak zein literatura unibertsaleko aleak betiereko irakurgai izan beharrean, iraungitze-data duten literatur lanak omen dira gurean, euskaraz sortu berri den literatur lanen lehiakide, nolabait.

Kritika-testuak

Kritiken luzera argitaratzen diren kazeten arabera da. *El Correo* eta *El Pais* egunkarietako testuak dira laburrenak (1250 karaktere gutxi gorabehera). Luzeago jotzen dute, oster, *Diario de noticias* (3250 karaktere gutxi gora-

¹⁵ Labayruk 2001ean berrargitaratutako itzulpena da. Itzultzailea Ipolito Larrakoetxea “Legaldi” da, eta jatorrizko liburua 1928. urtean jaio zen mundura.

¹⁶ EIZIEk 2003an berrargitaratu zuen Ander Arzeluz “Luzear” itzultzailearen lana, “Itzultzaile Aitzindariak” bilduman.

¹⁷ EIZIEk 2004an “Itzultzaile Aitzindariak” bilduman argitaratutako Iñaki Goenaga itzultzailearen lana.

¹⁸ “The Nabarra” olerkia Day Lewisen *Overtures to Death* liburuan agertu zen lehenengo aldiz, 1938an, Espainiako Gerra Zibila amaitu gabe zegoela. *Idatz & Mintzek* argitaratu zuen 2004an, Luigi Anselmiren itzulpena jatorrizkoaren ondoan agiri delarik.

¹⁹ Izenburu beraren aurreko kritika biak 2006koak dira, lehen argitalpena dela eta eginak.

behera), *Berria* (3400 karaktere inguru), *Argia* (2800 karaktere bueltan)... kazetetan argitaratzen direnak.

Aurreko hori ere lehenago aipatu dugun hizkuntzaren normalizazio-prozesuarekiko eta euskararekiko atxikimenduaren arabera dela uste dugu.

Kritikak egiteko moldeetan ez da inongo batasunik ageri, esan nahi baita, kritikari bakoitzak bere erara egiten duela kritika, eta berdintsu eta antzeko estiloan egin arren, ez diola beti egitura berari eusten.

Gure azterketaren helburu izan ez arren²⁰, aipatu kritika moldeen ugaritasuna agertze aldera, hona hemen nolakoak aurkitu ditugun 2000-2009 tartean, Kritiken Hemerotekatik gureru ekarrira:

Kritika batzuk datu zenbait gehitutako erreseinak diren artean, beste batzuk literatur lanen egituraz, narrazaileaz, estiloaz, gaiaren trataeraz, pertsonaien azterketaz... ari dira, gehienez ere beste lanen baten pare jartzen dutenak obra kritikatu, edota egilearen zein itzultzailearen daturen bat ematen dutenak. Kritika molde tradizionalagoa da hau, hurrengoekin alderatuz gero. Ezen, badira, halaber, aurreko datuak emateaz gainera, jatorrizko zein xede-sistemetako datu gehiago ematen dituzten kritikak, konparatibistagoak direnak, zelanbait. Jatorrizko edo xede-sistemei buruzko gogoeta egiten dute kritikariek horietan; kasu batzuetan jatorrizko sistemaren eta xede-sistemaren arteko harremanak jartzen dituzte agerian. Molde horretako kritikak idazten dituzten kritikariak “gazteak” dira (Beñat Sarasola, Iratxe Retolaza, Ibon Egaña, Aritz Galarraga eta Mikel Ayerbe, kasurako).

Gertaera hori, noski, kritikaren korrante berrien eraginei eta kritikarien ikasketei lotu dakiekeen ustekoak gara, kritikarietako batzuk literatura konparatuan adituak diren aldetik.

Itzulpenaz denaz bezainbatean, badira itzulpena aipatzen ez dutenak, itzultzailea edo itzulpena aipatu besterik egiten ez dutenak eta itzulpenaz gogoeta egiten dutenak. Gogoeta orokorra izan daiteke: xede-sistemara egindako ekarria zein izan den, itzulpenaren zailtasuna agerian jartzea...; edo zehatzagoa: dela jarduera arauren bat aipatzea, adibidez, izenburuaren itzulpena nola egin den, akatsen bat dagoela jakinaraztea (akatsak egon arren arazorik ez dagoela diote gehienek, halere), edo itzulpen-adibide zehatzak ematen dituztenak (esamolderen baten itzulpena, kasurako).

²⁰ Gogoeta gisa gera bedi soilik, esan bezala, hau ez baita gure ikerketaren xede izan.

Kritika bera testu-genero gisa hartuta, aipagarria iruditzen zaigu Karlos del Olmo kritikariak lantzean dakarkigun orijinaltasuna²¹.

Hasierako araua

Hasierako araua aipatzen duen kritika bakarra dago gure corpusa osatzen duten 511 kritiken artean. Karlos Del Olmo kritikariak *Euskaldunon egunkarian* (2002-06-01) *Grimm anaien berrogeita hamar ume ipuin* lanaren inguruan egingakoa da kritika hori. Egokitasunaren aldera egiten duen itzulpena dela dio kritikariak. Egia da ez duela “Hasierako araua” terminoa baliatzen, baina ideia oso argi azaltzen du.

Grimm anaien berrogeita hamar ume ipuin (Grim anaiak) liburuz; itz. Ipolito Larrakoetxea “Legaldi”:

Lehendik ere, estiloan ere bilakabidea izana zuen idazleak, betiere irakurlearen beharrianetara egokitzearen. Hitzetik hitzera baino, modu nasaian euskaratu zituen ipuinok. Zenbateraino eta Grimm anaien pertsonaia batzuei izena aldatzeraino. Toponimoak ere Euskal Herrikoetara ekarri zituen. Segur aski egun ez litzateke oso ulergarri edo onargarri horrela jokatzeko. Baina garaiko asmo didaktikoa ez da atzendu behar. Egia da, lana ez da itzulpen hutsa, bolada batean hain indarrean izan ziren moldapen edo egokitzapen horietako bat baino: horra hor liburua aditzera emateko beste zio bat.

(Karlos del Olmo, *Euskaldunon Egunkaria*, 2002-06-01)

Hasierako araua behin baino ez aipatzeak aditzera ematen digun iragarpena ondokoa da: ez zaio itzulpen-ekintzari orokorrean begiratzen, ez bada zehaztasunei, edo bestelako itzulpen-arauei, itzultzailea eta hizkuntzari, kasurako.

Kritika mota

Lehenago ere esana dugu dibulgazio-kritikak direla 511 kritiketatik 510. Bat baino ez dugu akademikotzat jo guk osatutako corpusean²². Izan ere, bistakoa da Iñaki Sarriugartek 2003ko abenduan *Zortzi Kontakizun* lana gaitzat hartuta

²¹ Gogoan dugu, esate baterako, *Euskaldunon Egunkarian* (2001-12-15), *On Camillo* lanaren harira elkarrizketa legez planteatutako kritika.

²² Bat bera ere aurkituko ez genuen ustearekin abiatu ginen, Kritikken Hemerotekan dibulgazio-kritikak soilik biltzen zirelakoan.

Idatz & Mintz aldizkarian argitaratua ongi landutako kritika dela, kritika-lan sendoa dela eta, bibliografia emateaz gainera, testua ataletan banatuta dagoela, kritikariaren argudio eta hipotesiak antolatze aldera. Aipatu aldizkari horretan argitaratzeak berak markatzen du kritikaren hastapeneko helburua; lehenago ere esana dugu, gainera, aldizkari literariotzat dugula *Idatz & Mintz*.


Aipatu kritika horretan itzulpenari buruzko jakingarri oso gutxi emateak, ordea, literatura itzuliaren kritika akademikoaren ahultasunaren berri ematen digu, beste behin ere. Kritikara joz gero, itzultzailearen eta bildumaren izena emateaz gainera eta “ederto euskaratuta” dagoela esateaz aparte, ez dela itzulpenaren inguruko bestelako zehaztapenik egiten ikusiko dugu.

Agente eragilea

Esana dugu, lan honen alde teoriko-metodologikoan, agente eragilea itzulpenaren bultzatzailea dela, izan jatorrizko kulturako eragilea, xede-kulturako eragilea, itzultzailea bera... Agente eragilea zein den, eta haren egoera sozio-ekonomikoa nolakoa den, halako edo bestelako eragina izango du itzulpenean.

Corpusa aztertzean, ondoko galdera planteatzen genuen guk: aipatzen al da zein ekimenen bidez egin den itzulpena? Eta horrek nola eragin duen? Bada, corpusa osatzen duten 511 kritiketako 151 kritiketan azaltzen da agente eragilea. 151 horietako 95etan aipatu besterik ez da egiten, esan nahi baita, argitaletxearen izena ematen da, Literatura Unibertsala bildumako lana dela esaten da eta Jokin Zaitegi sariari lotutako itzulpena dela adierazten da.

151 kritikatik 56tan sakontzen da gehixeago agente eragilearen eremuan. Kasu batzuetan, 17 kritikatan zehazki esanda, agente eragilea goratu edo eskertu egiten da, besterik gabe. Beste batzuetan, 14 kritikatan, argitaletxearen erronkaren berri ematen da, dela itzulpenak argitaratzeko eta horiek ateratzeko denbora-tarteak direla, zein itzulpenaren eredu den irudia ematen duelako, kalitate-ikur izanik, kasurako. Arduradunen berri ematen da –ardura ekonomikoa zein akademikoa dutenena– 11 kritikatan, eta edizioa 3 biderrez goratzen da. Agente eragilearekin lotuta, itzulpen-prozesua behin aipatzen da, estilo zuzentzailearen lana agerian jarrita. Bestelako datuak ematen dira 3 aldiz –argitaletxea berria dela esaten da birritan, eta eragilea egilea bera dela behin. Agente eragilea modu negatiboan 7tan aurkitu dugu, dela edizioan akatsak daudela aipatzen dutelako kritikek, edo bestelakoak jartzen dituztelako agerian, adibidez: akats ortografikoak, irizpide ezberdintasunak edo itzultzailearen izena ez agertzea.



Oro har, literatur itzulpenen kritiketan, ezer gutxi aipatzen da agente eragileaz; gehienetan ez delarik hari buruzko zehaztasunik ematen. Aipatzen denean, jakintzat ematen da kritika-irakurleak badakiela agente eragilearen testuingurua zein den, ez baita askotan jakinarazten argitaletxea nongoa den, zenbat urte daramatzen lanean, zer motatako lotura duen itzulpenarekin... Argi-argia deritzogu, kasurako, Literatura Unibertsala bilduma aipatzen denekoa, ezen gehienetan ez baita aipatzen zein argitaletzek ateratzen duen bilduma, ez eta nork bultzatzen duen ekimena (EIZIEk eta Eusko Jaurlaritzak). Gauza bera gertatzen da Jokin Zaitegi Bekaz dabiltzanean kritikariak, bekaren izena ematen da, besterik gabe, gehienetan. Hortaz, ematen du kritiken irakurleek datu zenbait jakin badakizkitela segurutzat ematen dela. Interpretazioa harago eroanda, normalizazio-egoera irudikatu guran, ekimen publikoen berri eman gura ez izatea egon liteke; beharbada haiekiko aurreiritziak tarterko direla. Ekimen pribatuen kasuan, ostera, argitaletxeen artean diferentziarik egin gura ez izatea egon al daiteke?

Jarduera-agentea

Jarduera-agentea itzulpen-lana egin bitarteko eragileen multzoa da: itzultzailea bera, itzultzailearen lan egoera, itzultzailearen pentsamoldea, argitaletxe jakin bateko irizpideei jarraitu beharra...

Kritiketan jarduera-agentearen berri ematen zen aztertzeko, ondokoak ziren kritikak arakatu ahala buruan genituen itaunak: aipatzen al da itzultzailea? Haren jardunbidea eta pentsamoldeari buruzko zehaztasunik ematen al da? Itzultzailearen lan-egoera edo baldintzak esaten al dira? Argitaletxeak ezarritako irizpideak zein izan diren esaten al da?

Jarduera-agenteari dagozkionak lotu-loturik daude Pascale Cassanovaren *La Republica Mundial de las Letras* lanean, Ezra Pounden hitzak ekarrira azaltzen den "autorearen kredituarekin" (gure kasuan, itzultzailearenarekin). Halaxe dio:

«(...) Ocorre lo mismo en lo referente a los cheques del saber (...). No se aceptan los firmados por un desconocido sin referencias. En literatura, la referencia es el "nombre" del que escribe. Al cabo de cierto tiempo, se le concede crédito...». La idea de un «crédito» literario como el que esboza Pound permite comprender cómo, en el universo literario, el valor está asociado directamente con la creencia. Cuando un escritor se convierte en «referencia», cuando un nombre se ha convertido en un valor en el mercado literario, es decir, cuando se cree que lo que hace posee un valor literario, que está consagrado como escritor, entonces se le «concede crédito»: el crédito, la «referencia» de Pound, es el poder y el valor otorgados a un escritor, a una institución, a un lugar o nombre en virtud de la creencia que se le profesa; es, quien cree en él le confiere («Somos» dice Valéry, «lo que creemos ser y lo que creen que somos»).»

(Casanova, 2001: 31)

Bada, jarduera-agentea 511 kritikatik 344tan ageri da. Horietarik zenbaite-tan, jarduera eragilea, hots, itzultzailea nor den aipatzen da, izen-abizenak ematen dira orokorrean (154 kritikatan). Beste batzuetan (190), ostera, haren esperientziaren berri ematen da, askotan lanbidea ere aipatuta; egindako lanaren aitortpena egiten da, zelanbait. Sarri aipatzen dira jarduera-agentearen hitzak zein itzulpenen sarrera edo hitzaurreetan aipatutakoak.

Hona hemen kritika batzuetatik ateratako txatalak, jarduera eragileari buruz esaten direnen adierazgarri:

Kamaleoientzako musika (Truman Capote) liburuaz; itz. Xabier Olarra:

Xabier Olarrari eskerrak eman behar zaizkio, Capoteren lana hain ongi euskaratzeagatik. Idazleari bere maisutasuna onartzen zaion bezala, ezin

aipatu gabe utzi itzultzailearen lana, itzulpen honekin egin digun ekarpenagatik.

(Estibalitz Ezkerra, *Euskaldunon Egunkaria*, 2000-12-16)

Amodiozko hogeï poema eta kanta bat (Pablo Neruda) liburuaz; itz. Jose Luis Padron:

Badakit 80 urte itxaron behar izan dugula amodiozko poema ezagunenak euskaraz sentitzeko. Baina idatz ditzaket bertsorik alaiena gaur. Jose Luis Padron idazle eta itzultzaile urretxuarrari esker, berriz ere maitemintzeko eta berriz ere hunkitzeko aukera edukiko dugulako, eta historia osoan zehar gehien irakurri eta sentitutako poema horiek jaio egingo direlako berriz ere, oraingo honetan euskaraz.

(Mirari Garzia de Kortazar, *Gara*, 2004-07-03)

Sumendiaren azpian (Malcom Lowry) liburuaz; itz. Karlos del Olmo:

500 orrialde paseak euskarazko bertsoan (meritu itzel handia Karlos del Olmorena), egun bakar bateko ibilaldia kontakizun (Joycereneko bezain luze-laburra).

(Bixente Serrano Izko, *Berria*, 2008-11-02)

Ipuin hautatuak (J.L. Borges) liburuaz; itz. Juan Garzia:

(Juan Garziaz) Ez da lan makala, gero, Euskadi Saria eraman ez ezik, Itzulit itzultzaile jendea biltzen duen zerrendako heroiaen lana kritikatzan jartzea.

(Jon Alonso, *Euskaldunon Egunkaria*, 2000-01-22)

Durduzaz eta dardaraz (Amélie Nothomb) liburuaz; itz. Joxan Elosegia:

Ondo jasoak daude, gainera, horiek guztiak Joxan Elosegiren itzulpen-lan txukun eta zaindu horretan. Erakutsia zigun lehendik ere Elosegik itzultzaile-sen berezi bat R. Queneau-ren “Zazie metroan” eleberri berezi hartan; ez gaitu, beraz, ezustean harrapatu itzulpen-lan sarigarri honek.

(Mikel Garmendia, *Gara*, 2004-04-17)

Mandarin dotore (Du Fu, Wang Wei, Li Bai) liburuaz; itz. Rafa Egiguren:

Egigurenek biografia luzea du Txinako kulturarekin lotua. Bere lehen poematik, ekialdeko estetikan jarraitu du bere lanak. Poesia liburuak atera zituen lehenik (*Txiptiroien bat edo beste*, 1981, *Mugarrien garraioan*, 1986), eta Pekinen kokaturiko nobela bat ondoren, *Ilargia putzuan ageri* (1990), kontrajarpenez osatua.

(Jon Kortazar, *El Pais*, 2004-03-15)

Gizona ilunpean (Paul Auster) liburuaz; itz. Oskar Arana:

Oskar Arana itzultzaileak batasun moduko bat lortu du egilearen estiloa ematerakoan, zubia eregita hiru liburuon artean, amaraun moduko bat ehunduaz. Estandarizazioaren bide neketsu eta guttiz osatu gabeen, euskaraz neketsuago gertatzen da Austerren puntuazio molde bitxia; baina, behintzat esatea dugu itzultzaileak ez duela aldapa kantsagarriago bihurtu, eta hori ez da gutxi.

(Karlos Del Olmo, *eizie.org*, 2008-10-06)

Artistakume baten erretratua (Dylan Thomas) liburuaz; itz. Koro Navarro:

Koro Navarrok sarrerako testuan idatzi duen bezala: pertsonaiak, guttiz galestarrak izanagatik ere, ez zaizkigu batere arrotzak gertatzen”. Halakoxea du literaturak indarra.

(Felipe Juaristi, *El Diario Vasco*, 2000-05-13)

Emakume ezezagun baten gutuna (Stefan Zweig) liburuaz; itz. Edorta Matauko:

Kontakizun oso laburra izanda ere, intentsitate handikoa dugu liburua, “samurra eta lazgarria aldi berean”, Edorta Matauko euskaratzailearen hitzetan.

(Ander Irizar, *Diario de Noticias*, 2006-04-16)

Gainbehera dator dena (Chinua Achebe) liburuaz; itz. Alberto Martinez de la Cuadra:

Chinua Achebe pertsona ere mezulari eta engaiatua dugu Afrikako bizi-tza politiko eta kulturean. Alberdania eta Elkar argitaletxeen lankidetzaren fruitu den Literatura Unibertsala bildumak ohiturik gaitu, hitzaurre efikaz bidez, euskaraturiko egile bakoitzari buruzko berririk funtsezkoenak jasotzera, hala biografikoak nola literarioak. Itzultzaileek beraiek egin ohi dituzte aurkezpen horiek, eta, kasurako, Alberto Martinez de la Cuadraren hamalau orrialdeko hitzaurrea interesgarria suertatuko zaio irakurle jakin-goseari, aise jabe dadin Achebek jokatu duen paper kultural eta politikoaz, Nigerian, Biafran, Afrikan eta mundu zabalean.

(Bixente Serrano Izko, *Berria*, 2007-11-04)

Itzultzaileen hitzaurreetara zein esanetara joaz, nolabait esatearren, kritikari izaera onartzen zaie itzultzaileei. Itzulpenaz ez eze “literaturaz” diotena ere aintzat hartzen zaie. Jazoera horrek handitu baino ez du egiten “itzultzaile=kritikari akademiko” adierazpenaz genuen susmoa. Izan ere, batez ere Literatura Unibertsaleko liburuen kasuan, itzultzailea bera da lanaren hitzaurrea idazten duena, nolabaiteko kritika egiten duena, jatorrizko sistemako datuen zein

itzulpen prozesuaren berri emanaz. Aztertzeak lirake aipatu bildumako sarrerek zer duten kritikatik eta zer itzulpen-arau lantzen dituzten.

Aipamenak bai, baina gogoetak? Oso gutxitan egiten da jarduera-agenteari buruzko gogoetaren bat, eta, topatu ditugun kasuetan, kritikaria beti izan da itzulpen arloarekin oso lotutakoa, esaterako, itzultzailea bera ere, hurrengo adibidean ikus daitekeenez:

Tom hil da (Marie Darriussecq) liburuaz; itz. Karlos Zabala:

Itzulpeneko Euskadi Saria irabazitako Karlos Zabala itzultzaile trebearen esku utzi du argialetxeak lan hau euskarara ekartzeko lana; Mariaren aurreko lan euskaratua ere argialetxe berak plazaratu zuen, baina beste itzultzaile batek emana. Euskal itzulpengintzan gauzak noizbait normaltzen hasten badira, horrelako kontuak ere zaintzen hasi beharrean egongo gara: ahal dela, egile beraren ahotsari eta estiloari itzultzaile bakarraren ahotsa izendatzea komeni da.

(Karlos Del Olmo²³, *eizie.org*, 2008-07-10)

Nahiko begiratzen zaio itzultzaileari, eta itzulpen-kritika erdietan baino gehiagotan geratzen da jasota haren izena. Ez hori bakarrik, jarduera-eragilearekin gertatzen ez den gisan, jarduera-agentearen kasuan zehaztapenak ematen dira, dela esperientziagatik, dela lanbideagatik. Goratu egiten dira, eta ez hori bakarrik; esperientzia aurrekariak gutxi direnean ere, edo kritikagai den lana itzultzailearen lehen lana denean, itzultzailea goratu egiten da:

Goragalea (Jean Paul Sartre) liburuaz; itz. Monika Etxebarria:

Monika Etxebarriak euskaraturiko lehenengo eleberria dugu hau, baina ezin uka daiteke administrazioko itzultzaile-interprete emandako urteetan bereganatutako ikasbidea onuragarri suertatu zaionik. Haren itzulpena bitarte dela ikusiko dugu zergatik uste zuen Sartrek unibertsoa beltza baino ezin dela izan, gizakiak animalia ilun eta makurrak garela. Gizakia gaitzaren beraren muina da, txartasun gauzatua; metafisikak berak darabilen gaitz abstraktua ez da, antza, pertsona bezain ankerra.

(Karlos del Olmo, *Berria*, 2004-03-13)

Desio izeneko tranbia (Tennessee Williams) liburuaz; itz. Xabier Payá:

Xabier Payá itzultzaile gazteak unibertsitateko ariketa moduan hasitako lanetik abiatuta euskal antzokietara zailtasun handirik barik erodateko moduko itzulpena sortu du. Eta ez da munta txikikoa! Itzul molderen bat edo bes-

²³ Karlos del Olmo kritikagilea itzultzaile aditua eta aritua da euskal itzulpengintzan.

te agian hobetu litekeela? Baliteke, baina... zein lanetan ez? Edozelan ere, itzulpen honek ez die zorrik batere uzten bildumako beste obrei.

(Karlos del Olmo, *Berria*, 2006-01-17)

Bizian argitaratuak (Franz Kafka) liburuaz; itz. Naroa Zubilaga:

(...) ez da estreinaldi makala gertatu Naroa Zubillaga itzultzaileak literatur itzulpenean gauzaturikoa, Kafkaren idazlan bilduma hau askotarikoa denez gero itzultzeko zailtasunen aldetik.

(Karlos Del Olmo, *Eizie.org*, 2008-01-08)

Adierazgarria da, oso, aipatu ditugun azken hiru kritiketako egilea bera dela ziurtatzea. Argi dago, hortaz, oso lotuta dagoela kritika nork egiten duen eta itzulpen-prozesu osoari dagokion kritika-edukia.

Hala ere, kritiketan ez da inolako daturik itzultzailearen lan-prozesuaz edo eragin diezaioketen arazleei buruz. Jarduera-agentearen izena da interesatzen zaiguna, eta ez, ordea, haren lan-baldintzak zein diren edota hari ezarri zaizkion irizpideak zein diren.

Itzulpena eta hizkuntzak

Jarraian datozen itaunen gomutan ibili gara, itzulpenari berari eta hizkuntzari buruzko zantzuen bila, gure corpuseko 511 kritiketan: aipatzen al da itzulpena bera? Nola? Kalifikatzen eta baloratzen al da? Esaten al da zein den jatorrizko hizkuntza? Eta xede-hizkuntza? Zubi-hizkuntzarik izan al da itzulpen-prozesuan? Hizkuntzari buruzko gogoetarik egiten al da?

Corpus osoa osatzen duten literatur itzulpenei egindako 511 kritiketatik 390etan aipatzen da itzulpena. Hortaz, badirudi nahiko zabaldurik dagoela datua emateko joera.

Esan beharra dugu, sarritan, itzulpenaren aipamena itzultzailearen izena ematean egiten dela, bi itzulpen-arau horiek bat eginik, zelanbait:

Arrotza (Albert Camus) liburuaz; itz. Xabier Galarreta:

orain euskaraz Xabier Galarretaren itzulpenean datorkiguna.

(Javier Rojo, *El Correo*, 2000-09-30)

Galton kasua (Ross MxDonald) liburuaz; itz. Javi Cillero:

Javi Cilleroren itzulpenean filme batean bezala ikusten ditugu islaturik MacDonaldek 1959an argitara emandako kontakizunean hain modu grafi-koan aletutako gertaerak eta deskribatutako pertsonaiak eta giroa.

(Inma Errea, *eizie.org*, 2006-12-18)

Ravel (Jean Echenoz) liburuaz; itz. Gerardo Markuleta:

Gerardo Markuletak dotore itzulitako nobela
(Ibon Egaña, *Berria*, 2007-07-29)

Emakume ezezagun baten gutuna (Stefan Zweig) liburuaz; itz. Edorta Matauko:

itzultzaileak ondo baino hobeto jakin du euskarara ekartzen
(Iñigo Roque, *Gara*, 2005-11-19)

Dantzaldia (Irene Nemirovsky) liburuaz; itz. Eider Rodriguez:

Rodriguezek asmatu du ur horiek guregana fresko ekartzen.
(Inma Errea, *Diario de Noticias*, 2006-07-30)

Aldea dago, baina, itzulpena aipatzetik aipatzera; ezen, gehienetan (390 horietarik 338tan), lan bat itzulia dela esateaz gainera, bestelakoak gehitzen dira.

Gehigarririk ugariena balorazio edo kalifikazio positibo labur bat izaten da, sarri-sarri agertzen dena, baina beti ere nahiko orokorra eta anbigua izaten dena, itzulpenaren uretan gehiegi sakondu gabe idazten dena, alegia. Hona hemen adibide zerrenda bat:

Lisboako setioaren historia (Jose Saramago) liburuaz; itz. Jon Alonso:

Itzulpen gogoangarria
(Markos Zapiain, *Euskaldunon Egunkaria*, 2000-07-29)

Artistakume baten erretratua (Dylan Thomas) liburuaz; itz. Koro Navarro:

Koro Navarrok itzulpen dotorea egin du, euskaraz irakurtzen dugunok gozatzeko modukoa.
(Felipe Juaristi, *El Diario Vasco*, 2000-05-13)

Bizi alegiazkoak (Marcel Schowb) liburuaz; itz. Juan Garzia:

itzulpena gozamen hutsa da
(Karlos del Olmo, *Euskaldunon Egunkaria*, 2002-10-26)

Kastilla Zaharreko ipuin zaharrak (Miguel Delibes) liburuaz; itz. Patxi Apalategi:

itzulpen ederra
(Felipe Juaristi, *El Diario Vasco*, 2002-09-29)

Gauzen izaeraz (Lukrezio) liburuaz; itz. Xabier Amuriza:

itzulpen jostaria

(Markos Zapiain, *Euskaldunon Egunkaria*, 2002-09-28)

Betiko biak (Alfonso R. Castelao) liburuaz; itz. Ramon Etxezarreta:

itzulpen estimagarria

(Pablo Sastre, *Gara*, 2002-03-02)

Zortzi kontakizun (I.B. Singer) liburuaz; itz. Koro Navarro:

ederto euskaratuta

(Iñaki Sarriugarte, *Idatz & Mintz*, 2003-12)

Zertaz ari garen maitasunaz ari garenean (R. Carver) liburuaz; itz. K. Navarro:

itzulpen zilarra

(Karlos del Olmo, *Gara*, 2003-08-30)

Atzo (Agota Kristof) liburuaz; itz. Eskarne Mujika:

dotore itzulia & kalitatearen bermea duen itzulpena

(Joseba Bergara, *Hitzak & ideiak*, 2003-06)

Lotsaizuna (J.M. Coetzee) liburuaz; itz. Oskar Arana:

itzulpen ona

(Felipe Juaristi, *El Diario Vasco*, 2004-12-10)

Amodiozko hogei poema eta kanta bat (Pablo Neruda) liburuaz; itz. Jose Luis Padron:

maisutasunez dakar aspaldiko bertsoak sentitzeko modu berezia

(Mirari Garzia de Kortazar, *Gara*, 2004-07-03)

Durduzaz eta dardaraz (Amelie Nothomb) liburuaz; itz. Joxan Elozegi:

itzulpen txukun eta zaindua

(Mikel Garmendia, *Gara*, 2004-04-17)

Ehortzi ezazue nire bihotza Wounded Kneen (Dee Brown) liburuaz; itz. Jose Luis Aramendi:

itzulpen eskerga eta preziotsua

(Karlos del Olmo, *Berria*, 2004-04-17)

Poeta New Yorken (Federico García Lorca) liburuaz; itz. Juan Luis Zabala:

itzulpen dezentekoa

(Felipe Juaristi, *El Diario Vasco*, 2004-03-12)

Berdin dio (Agota Kristof) liburuaz; itz. Eskarne Mujika:

txukun bai txukun euskaratua

(Iñigo Roque, *Gara*, 2005-06-25)

Zazpi urkatuak (Leonid N. Andriev) liburuaz; itz. Jose Morales:

ikaragarri ondo itzuli du liburua, euskara zuzen eta errazean

(Uxue Alberdi, *Deia*, 2006-11-10)

Ibrahim jauna eta Koranaren loreak (Eric Emmanuel Schmitt) liburuaz; itz. Patxi Zubizarreta:

dotore ekarria euskarara

(Ibon Egaña, *Berria*, 2006-10-22)

Hemen gu biok (Dorothy Parker) liburuaz; itz. Mirentxu Larrañaga:

ganoraz ekarri du euskarara

(Uxue Alberdi, *Deia*, 2006-07-07)

Guizzadiren abenturak (Gianni Celati) liburuaz; itz. Fernando Rey:

itzulpen eredugarria eta gozagarria

(Iratxe Retolaza, *Berria*, 2006-05-28)

Estilo ariketak (Raymond Queneau) liburuaz; itz. Xabier Olarra:

egokia eta txalotu beharrekoa

(Manu Lopez Gaseni, *Deia*, 2006-02-14)

Satanen seme (Charles Bucowski) liburuaz; itz. Mikel Olano:

ondo baino hobeto jasotzen jakin duena bere itzulpenean

(Joxe Irigoien, *Deia*, 2007-12-04)

De Profundis (Oscar Wilde) liburuaz; itz. Aitor Arana:

euskarara ederki ekartzeagatik

(Ion Olano, *Gara*, 2007-11-03)

Oker ttiki garrantzigabeak (Antonio Tabucchi) liburuaz; itz. Fernando Rey:

itzulpena oso ondo gertatzen da

(Karlos Del Olmo, *eizie.org*, 2007-06-04)

Maitale koitaduen kronikak (Vasco Patrolini) liburuaz; itz. Koldo Biguri:

itzulpena oso neurtua, garbi-garbia

(Karlos Del Olmo, *eizie.org*, 2007-04-02)

Bidaiak scriptoriumean zehar (Paul Auster) liburuaz; itz. Oskar Arana:

itzulpena oso ona da

(Mikel Ayerbe, *Berria*, 2007-03-04)

Altxor uhartea (R.L. Stevenson) liburuaz; itz. Maria Garikano:

itzulpen leial bezain irakurgarria

(Javier Rojo, *El Correo*, 2008-07-19)

Amodio gutunak oinordetzan (Lydia Flem) liburuaz; itz. Joxan Elozegi:

luxuzko itzulpena

(Mikel Garmendia, *eizie.org*, 2008-03-05)

Ez da erraza gizon on bat aurkitzea (Flannery O'Connor) liburuaz; itz. Itziar Otegi:

ondo landua & maila handiko itzulpena

(Mikel Garmendia, *eizie.org*, 2009-11-26)

Gaueko hegaldia (Antoine Saint Exupéry) liburuaz; itz. Koldo Izagirre:

itzulpen lan totala egin du Izagirrek, muturreraino zaindua eta maisutasunez burutua

(Ion Olano, *Gara*, 2009-04-24)

Alabaina, kritika gehienen helburua zein den ez da ahaztu behar: itzulpenaren presentzia areagotzea eta sustatzea; bat baitatuz horretan kritiken isla eta helburua.

Jatorrizko hizkuntzaz eta xede-hizkuntzaz denaz bezainbatean, nabarmendu dezagun oso gutxitan aipatzen dela jatorrizko hizkuntza. Xede-hizkuntza, ordea, askotan ematen da. “Euskaratu” zein “euskarara ekarri” moldeak erabiltita, adibidez, itzulpenaz gainera xede-hizkuntzaren berri ere ematen ari gara. Bada, sarri aurkitu ditugu halakoak corpuseko kritiketan. Ez hori bakarrik,

garrantzi berezia ematen zaio xede-hizkuntza egokia erabiltzeari. Bi korrante daude xede-hizkuntzaz ari diren kritikarien artean: batzuek euskara irakurte-rraza goratzen duten artean, besteek euskara aberatsa dute gogoko.

Xede-hizkuntzari hainbesteko garrantzia ematea hizkuntzaren normalizazio-egoerarekin lotu daitekeelakoan gaude; zenbaitetan, gainera, esplizituki lotzen da itzulpena eta normalizazioa, batez ere lehenago ere itzulita zeuden lanak berreditatu direnean eta hizkuntza-aldaketak ageri direnean.

Deabruaren hiztegia (Anbrose Bierce) liburuaz; itz. Xabier Olarra:

euskaraz txukun eta dotore kaleratu dena

(Felipe Juaristi, *El Diario Vasco*, 2001-07-14)

Hobe nuen etxean gelditu (Horace McCoy) liburuaz; itz. Fernando Rey:

Hizkuntza eredu orekatua eta egokia

(Paula Iribertegi, *Berria*, 2003-09-13)

Atzo (Agota Kristof) liburuaz; itz. Eskarne Mujika:

Gallastegiren bigarren liburu itzuli honek izugarritzko estimua lortu zuen euskal irakurleen artean. Gaia eta kontatzeko moldea ezberdinak ziren, oso bestelakoak euskaraz orduan –eta orain?– argitaratzen ari zenaren aldean; baina, horretaz gain, Kristofen estilo aldi berean lehor eta sujerikor hori txundigarria, musikalki hipnotikoa gertatzen zen Mujikaren euskara aldi berean bizi eta eutsian.

(Gerardo Markuleta, *Egunero*, 2003-06-07)

Idi orgaren karranka (Victor Hugo) liburuaz; itz. Koldo Izagirre:

(...) euskaraz eskaintzen digu. Eta zein modu landuan eta ederrean.

(Mikel Asurmendi, *Irunero*, 2003-02)

Anne Franken egunkaria (Anne Frank) liburuaz; itz. Josu Zabaleta:

euskara egokian eta sinesgarrian

(Ander Irizar, *Diario de Noticias*, 2005-05-02)

Ahardikeriak (Marie Darriussecq) liburuaz; itz. Joxan Elozegi:

euskarazko testua bikaina da, joria, zurruntasunik eta margultasunik batere gabea

(Iñigo Roque, *Gara*, 2005-02-19)

Nola hustu nuen gurasoen etxea (Lydia Flem) liburuaz; itz. Joxan Elozegi:

ongi jaso eta fin bulkatu baititu euskarara

(Mikel Garmendia, *Zabalik*, 2005-07-28)

Antologia apetatsua (Julio Cortazar) liburuaz; itz. Jon Alonso:

euskara on eta erosoan

(Inma Errea, *Diario de Noticias*, 2005-06-17)

Loroaren teorema (Denis Guedj) liburuaz; itz. Jon Muñoz:

Euskarazko bertsoak primeran kurrutzen du euskarak berezko dituen egiturak egun gero eta finkatuago dauzkagun molde, joskera eta lexiko modernoarekin egoki uztartuz. Lan bikaina egin du alde horretatik Jon Muñoz-ek Juan Garziaren laguntza beti estimagarriarekin.

(Mikel Garmendia, *eizie.org*, 2006-05-02)

Elurra (Orphan Pamuk) liburuaz; itz. Monika Etxebarria & Fernando Rey:

euskarazko itzulpenaren ederra & euskaraz (ongi) idatzitakoa bailitzan

(Aritz Galarraga, *Gara*, 2008-05-10)

Izatearen arintasun jasanezina (Milan Kundera) liburuaz; itz. Karlos Cid:

euskarazko lan hau txukuna dela oso

(Ion Olano, *Gara*, 2009-08-28)

Bizitza atzeraka (Gudule) liburuaz; itz. Mikel Garmendia:

Jatorrizkoa ezagutzen ez badut ere, esan dezadan euskarazko testuak betetzen duela bere zeregina: ulertteraza da.

(Felipe Juaristi, *El Diario Vasco*, 2000-06-17)

Lisboako setioaren historia (Jose Saramago) liburuaz; itz. Jon Alonso:

Euskaraz, jatorriz baino pixka bat errazago irakurtzen da eta hori itzul-tzailearen alde da. Baina badago lana; esan nahi dut gure erretorikabideak eta Saramagorenak bat egiteko saioa ongi planteaturik eta buruturik dagoela.

(Felipe Juaristi, *El Diario Vasco*, 2000-03-04)

Godoten esperoan (Samuel Beckett) liburuaz; itz. Juan Garzia:

Jatorrizkoa nolakoa den ez dakigun arren (...) berez irakurtzen da, gus-tura, eta hori da seinalerik onena

(Javier Rojo, *El Correo*, 2001-10-24)

Bederatzietatik bederatzietara (Leo Perutz) liburuaz; itz. Anton Garikano:

hiztegia erabili gabe irakurtzeko modukoa

(Mikel Garmendia, *Gara*, 2003-12-06)

Ezezaguna helbide honetan (Kressman Taylor) liburuaz; itz. R. Etxezarreta:

ondo kurritzen du, enbarazurik gabe, ulertteraza da eta ondo funtzionatzen du

(Mikel Garmendia, *Gara*, 2004-01-17)

Zazpi urkatuak (L. N. Andriev) liburuaz; itz. Jose Morales:

Ikaragarri ondo itzuli du liburua, euskara zuzen eta errazean

(Uxue Alberdi, *Deia*, 2006-11-10)

Alemaniarra deportatua (Grégoire Joannateguy) liburuaz; itz. M. Etxehandi:

euskara molde bizia dario, gatza eta piperra du

(Karlos del Olmo, *Berria*, 2003-06-28)

Laguna (Dennis S. Miles) liburuaz; itz. Andolin Eguzkitza:

Itzulpenari dagokionez, argi eta garbi adieraziko dizut: ondoan hiztegia hartuta irakurtzekoa duzu liburua. Ez zaizu, ordea damutuko. Liburuei, alferrikako izan ez daitezten, zerbait berri eskatzen diegun bezala, itzulpenek ere ez dute alde horretatik lo gelditu behar. Oraingoan ez duzu aurkituko literatura itzultzeko azken urteotan osatu dugun nolabaiteko euskera standar hori –kostata osatu duguna eta egundoko merezimendua duena– aurkituko. Euskalki bateko eta besteko hitz eta egiturez zipriztindua, oso lan polita, bixia bezain interesgarria, egin zuen Andolinek itzulpen honekin.

(Mikel Garmendia, *Zabalik*, 2005-05-26)

Laguna (Dennis S. Miles) liburuaz; itz. Andolin Eguzkitza:

Eta hori guzti hori euskararik intelektualenean ageri zaigu (hura Leizarragarena ei zen baina). Izan ere, liburuan oso agerikoa da itzultzailearen lana. Andolin Eguzkitzak ez zuen erabili betiko euskara beratza, eta apur bat harago egin zuen; beti usatzen zuen bezala, bestalde. Horren inguruan hamaika aburu egongo dira. Niri, behinik behin, guztiz egokia iruditzen zait liburu honetarako; batzuek hiztegia dantzan ibili behar izatea.

(Iñigo Roque, *Gara*, 2005-04-30)

Ibrahim jauna eta Koranaren loreak (Eric Emmanuel Schmitt) liburuaz; itz. Patxi Zubizarreta:

euskara fresko eta erregistro ugarikoa

(Inma Errea, *eizie.org*, 2006-05-17)

Ravel (Jean Echenoz) liburuaz; itz. Gerardo Markuleta:

Euskal editoreren batek esana du euskal irakurleari gauzak erraztu behar zaizkiola, modu errazean eman behar zaizkiola, eta ez direla euskalkiak lar nahastu behar. Nekez erraztuko du itzultzaileak jatorrizkoan erraza ez dena, eta euskalkiak nahasteari dagokionez, izan bitez ondo etorri aberastasun guztiak. Irakurtzerakoan enpeinu apur bat jarrita, irakurlea berehala konturatu da eskuratzen duen sariaren handiak irakurraldiko bidaiaren balioa handitu duela.

(Karlos Del Olmo, *eizie.org*, 2007-09-03)

Lisboako setioaren historia (Jose Saramago) liburuaz; itz. Jon Alonso:

Beti esan ohi da itzulpenak, lur batetik bestera birlandatua izan den zuhaixkak bezala, ez duela gure artean indarririk; hala ere itzulpen batzuk, bultzada haundikoak ez ezik, besteentzat ereduagarri ere izan direla uste dut. Buruan dauzkat horietako batzuk: Berrondoren “Kixote”, Orixeren “Mireio”, Juan Garziaren “Shakespeare”. Bat edo beste kanpoan utziko nituen, baina horiek dira gogoan ditudanak.

(Felipe Juaristi, *El Diario Vasco*, 2000-03-04)

Buda zoriontsuen etxea (Joao Ubaldo Ribeiro) liburuaz; itz. Karlos Zabala:

Euskal estilistikak hainbat gai oraindik ez ditu behar beste jorratuta. Haietako bat, hitzezko erotismoarena edo pornografiarena. Karlos Zabala-ren saio honek eremu labanak zapaldu behar izan ditu, halere, zorionez, ez du irristaldi arriskutsurik jasan.

(Karlos del Olmo, *Berria*, 2004-07-10)

Eta ez zen alerik ere geratu (Agatha Christie) liburuaz; itz. Koro Navarro:

Bigarren edizio honetan euskara finkatuago dago

(Ander Irizar, *Diario de Noticias*, 2005-10-30)

Egun bat nire bizitzan (Bobby Sands) liburuaz; itz. Mitxel Sarasketa:

Egun bat nire bizitzan berrargitalpena da. 1991ean argitaratu zen Mitxel Sarasketa euskal presoak egindako itzulpen hau. Orain, 15 urte pasatuta, edizio berritua kaleratu du Txalapartak. Hamabost urte joan dira eta ukitu

dexente behar izan ditu liburuak. Gutxi dira ukiturik ez duten esaldiak, euskararen bilakaeraren adierazgarri. Izan ere, euskararen munduan denbora hori, 15 urte ez, baizik askoz ere gehiago direla ematen baitu. 1991. urtea, euskararen corpusaz ari garela, iragana dela esan dezakegu.

(Fernando Rey, *Diario de Noticias*, 2006-09-14)

Ilegorriaren emaztea (B. S. Sallinger) liburuaz; itz. Xabier Olarra:

Bidenabar esanda, Iturralderen itzulpenetik Olarrarenera igarotako urte-etan euskal itzulpengintzak eta, oro har, euskararen normalizazioak berak egin duten aurrerabideaz jabetzeko aukera aparta ematen dute Ballingerren bi liburu horiek.

(Ander Arana, *Diario de Noticias*, 2008-04-20)

Lantzean, itzulpenari buruzko gogoetak ere jasotzen dira:

a) Positibotzat jotzen da itzulpena denik ez nabaritzea zein irakurketa ez zailtzea.

Atzo (Agota Kristof) liburuaz; itz. Eskarne Mujika:

Itzulpenak ez du irakurketa inolaz zailtzen

(Asier Sarasola, *Gara*, 2003-04-05)

Eszerren ondarea (Sandor Marai) liburuaz; itz. Ander Irizar:

ez zaio inondik antzematen itzulpena denik

(Mikel Garmendia, *Gara*, 2004-03-06)

Desio izeneko tranbia (Tennessee Williams) liburuaz; itz. Xabier Payá:

itzulpenari buruzko kontu bat: ona da, hobe esanda: egokia: hain egokia non itzulpenik ez dagoela ematen duen

(Josu Lartategi, *Deia*, 2006-03-21)

Festa aldameneko gelan (Mariasun Landa) liburuaz; itz. Jesus Mari Lasa:

Liburuaren jatorrizko bertsoia, nire harridurarako, gazteleraz idatzita dago, baina Jesus Mari Lasaren itzulpena hain da bikaina (dorpe hitzaren erabilera alde batera lagata) ezen sarritan ematen baitu Landa bera dela hitz horiek idatzi dituen.

(Beñat Sarasola, *Berria*, 2007-12-16)

Hilketa lokartua (Agatha Christie) liburuaz; itz. Xabier Aristegieta:

inondik inora ez zaio igartzen itzulpena denik eta hori da itzulpen-lan bati gerta dakioken gauzarik onena.

(Mikel Garmendia, *eizie.org*, 2009-03-31)

b) Itzulpenaren zailtasuna agerian jartzen da, itzulpenaren estatusa goratu nahirik edo.

Pedro Páramo (Juan Rulfo) liburuaz; itz. Juan Garzia:

Ez da edonolakoa Juan Garzia Garmendia itzultzaileak esku artean hartu duen erronka. Ezein itzulpen lanek izan ditzakeen berezko zailtasunei Juan Rulfo idazle mexikarrak sortutako lan konplexu eta berezkoaren izaera gehitu behar zaio, tartean mexikarren hizkera propioaren isla eta Pedro Páramo honetan bereziki landutako prosa indartsua, alde askotarikoa eta neurri handi batean lirikoa.

(Oier Gillan, *Gara*, 2002-07-13)

Zoririk ez (Imre Kelèsz) liburuaz; itz. Urtzi Urrutikoetxea:

euskaraz jartzen lan handia egin du itzultzaileak

(Felipe Juaristi, *El Diario Vasco*, 2003-12-26)

Arratseko ahotsak (Natalia Ginzburg) liburuaz; itz. Pello Lizarralde:

Eta Pello Lizarralderi itzultzea egokitu zaion lanak erraza dirudien arren, ez dago itxuraz neke bakoa den zeregina baino eginkizun lepoan eraman gaitzagorik. Baina Nataliak behinola esan zigunez, “Literatura norberaren asuntua da! Guztiz pribatua eta askea, idazkuntza!”. Eta itzulpengintza?

(Karlos del Olmo, *Egunevo*, 2003-05-24)

Lotsaizuna (J.M. Coetzee) liburuaz; itz. Oskar Arana:

nekez eta afanez egiten da itzulpena

(Felipe Juaristi, *El Diario Vasco*, 2004-12-10)

Parisen sabela (Emile Zola) liburuaz; itz. Karlos Zabala:

Ezin hobeto leitzen da lantzean-lantzean garai hartako gastronomi entziklopedia eta bidai gida dirudien mamidun liburu hau, ondo mastekatuta ematen asmatu duelako itzultzaileak, nahiz eta ezin ukatuzkoa den hamaika arazo eta oztopo gainditu behar izan duela irakurlearen sari.

(Karlos del Olmo, *Berria*, 2005-04-12)

Poeta New Yorken (Fernando García Lorca) liburuaz; itz. Juan Luis Zabala:

Juan Luis Zabalak itzulpen dezentekoa egin du, kontuan hartuta, ez dela batere erraza halako itzulpen bat eta, besterik uste duenak, har dezala, esaterako, “Harlemgo erregea” eta saia dadila txuria beltzean ipintzen, amak erakutsi zion hizkuntzan. Gaztelaniaz ere, lanak ematen ditu ulertzeak, hizkuntzaren edertasunagatik ez ezik, testuari darion irudi mordoagatik ere bai, surrealistikak baitira.

(Felipe Juaristi, *El Diario Vasco*, 2004-03-12)

Txakurrari gauean gertatutako istripu bitxia (Mark Haddon) liburuaz; itz. Xabier Olarra:

Zinez, itzulpena egiteko trebetasun berezia eta hizkuntzaren ezagutza sakona eskatzen duen nobela baten aurrean gaude.

(Iratxe Retolaza, *Berria*, 2006-12-10)

Anarkia hutsa (Woody Allen) liburuaz; itz. Oskar Arana:

Bestela esanda, umorearen gakoa jokabide egokiak dira. Egokitasuna edozer dela ere. Itzultzaileak noraezoko izango du Woody Allenen testuan bereiztea zer dagoen gizaki guztion jokabide edo ezagupen unibertsalen menpean, zer gizarte edo kultura jakin baten osagarriren bati loturik eta zein datorren hizkuntzaren alderdiren batetik. Hirurak aurkituko ditugu liburuan: lehenengo klasekoak samurragoak eta ulergarriagoak dira; bigarrenenekoak eta hirugarrenenekoak neke handia eskatzen diote itzultzaileari. Itzulpen eta itzultzaile asko anbiguotasunaren ur handietan ito dira. Hala-korik ez zaio Oskar Aranari jazo kontakizun bilduma honetan, pertsonaia errealak egoera surrealista samarretan aurkituko ditugun arren.

(Karlos Del Olmo, *eizie.org*, 2007-10-15)

Altzor uhartea (R.L.Stevenson) liburuaz; itz. Maria Garikano:

Hona zer dioen gai horrekin lotuta, A. Lertxundik, irailaren 30eko (San Jeronimo eguneko) bere zutabea: “Ausardi handia behar da beste hizkuntza batean emandako emozioak sentitzeaz gainera, norbere hizkuntzaren ehundura emozionalera ekartzeko”. Hori Meryl Streep-ek berriki botatako esaldi batekin lotu (“Ezer izatekotan, emozioen itzultzaileak gara gu: itzulpen horixe lortzea da gure loria”) eta hara non atera digun esamolde bikaina: emozioen itzultzaile. Emozioen itzultzaile izan dugu, hala, M. Garikano eta izan du, bai, Lertxundik aipatzen duen ausardia handi hori.

(Mikel Garmendia, *eizie.org*, 2008-10-06)

c) Aldiro, bestelako gogoetak ere ageri dira: itzulpen eredugarriez, itzulpenaren zergatiak, zubi-hizkuntzez, galerez, itzultzailearen idazle figuraz, itzulpen-prozesuko partaideez, jatorrizkotik urrundu beharraz eta, era berean, hari jarraitu beharraz, itzulpenak berregin beharraz, egile bera itzultzeko itzultzaileak txandatzeaz, ikusezintasunaz...²⁴

²⁴ Itzulpenari buruzko gogoetako batzuk lotuta daude itzulpena egiten deneko xede-polisistemiarekin; hortaz, hemen aipatu ohar batzuk aurrerago datorren “xede-polisistema” atalean landuko ditugu.

Lisboako setioaren historia (Jose Saramago) liburuaz; itz. Jon Alonso:

Beti esan ohi da itzulpenak, lur batetik bestera birlandatua izan den zuhaixkak bezala, ez duela gure artean indarrik; hala ere itzulpen batzuk, bultzada haundikoak ez ezik, besteentzat eredugarri ere izan direla uste dut. Buruan dauzkat horietako batzuk: Berrondoren “Kixote”, Orixeren “Mireio”, Juan Garziaren “Shakespeare”. Bat edo beste kanpoan utziko nituen, baina horiek dira gogoan ditudanak.

(Felipe Juaristi, *El Diario Vasco*, 2000-03-04)

Bermeo basatia (Paul Henri Capdevielle) liburuaz; itz. Begoña Bilbao:

Lehen kontua da ohartaraztea oraindik ere badabilela hortik zehar hainbat jende, franko gainera, Borges jatorrizko hizkuntzan irakurtzen ahal dugunez (euskaldun gehienok), “Borges euskaraz zertarako” galdetzen duena. Arduragabekeria handiaren seinale ote den, edo norberaren gaitasun eza edo nagikeria ezkutatzeko argudioa ote den, ez jakin nik. Borgesek gaztelera eskaintzen duen eredia eta prosa moldea gaizki etorriko al zaigu, ba? Itzulisten irakurria izango da, agian, baina oso oker ez banago, norberaren diskurtsoa besteren ekarriaz osatzen, mamitzen, aberasten, elikatzen da; hori hala bada, ez al zaigu mende honetako idazle nabarmen eta handiaren erreferentzia –euskaraz– interesatzen? Alferrik da honetaz gehiago jardutea.

(Karlos del Olmo, *Euskaldunon Egunkaria*, 2001-11-10)

Pulp (Charles Bukowski) liburuaz; itz. Josu Lartategi:

itzulpenak lortu du bere helburua: idazlearen unibertsoa ekartzea irakurleari.

(Karlos del Olmo, *Euskaldunon Egunkaria*, 2002-09-21)

Buhamer argiak (Ramón María del Valle Inclán) liburuaz; itz. A. Esnaola:

Teorilarien ustez, itzultzerakoan beti galtzen da zerbait. Baliokidetasuna lortu behar du itzultzaileak. Erraza esaten, gaitza egiten, baina. Areago antzerkia denean. Antzerkian ezin egin daiteke itzulpen hutsa. Testua eszenategian esateko egokitu beharko da, hartzailearen kulturara eta esamoldeetara ekarri. Itzulpen honek bietatik edan du: itzulpena da, bai, baina areago joaten da.

(Karlos del Olmo, *Euskaldunon Egunkaria*, 2002-03-02)

Gerrako pilotu (Antoine Saint Exupéry) liburuaz; itz. Josu Zabaleta:

Adituen arabera, itzultzaile onak garden behar du, idazlearen estiloa desitxuratu barik. Josuk ederto betetzen du araua. Baina itzultzailea aldez

idazle ere den aldetik, kontraesan moduko bat jazotzen da: idazlearen estiloari begirunea erakutsirik, Josuk ukitu berezia eransten die itzulpenei, zenbateraino eta bere lanak ezagutzen dituenak testua hartu eta itzultzailea nor den ez dakiela ere, harena dela erraz asmatu ahal izateraino.

(Karlos del Olmo, *Berria*, 2003-12-27)

Zoririk ez (Imre Kelèsz) liburuaz; itz. Urtzi Urrutikoetxea:

(...) azpimarratzen du itzultzaileak, zeinak hiru edizio erabili baititu liburuak euskaratzeko: alemanezkoa, ingelesezkoa eta frantsesezkoa; gainera, Károly Morvay, Budapesteko Eötvös Loránd unibertsitateko irakasle euskaltzalearen laguntza izan du.

(A. de Amezaga, *Bilbao*, 2004-03)

Lorategi beldurgarriak (Michel Quint) liburuaz; itz. Josu Zabaleta:

Askotan esanagatik egia biribila dena frogatzen digu bertsio honek: itzulpen ona jatorrizkotik behar bezain urrun eta ahal bezain hurbil mugitzen den huraxe da.

(Mikel Garmendia, *Gara*, 2004-02-14)

Wilhem Tell (Friedrich Schiller) liburuaz; itz. Iñaki Goenaga:

Ia-ia, itzulpen teorilari batzuek gomendatzen dutena, alegia, klasikoei dagokienez, ahal dela, belaunaldi bakoitzak klasikoak berriro itzultzea, garaian garaiko irakurleei ulergarriago egitearren. Euskal literatura itzuliari doakiola, ondo gauza jakina da helburu hori nekez lortuko dela ekimen pribatuaren esku utziz gero.

(Karlos Del Olmo, *Berria*, 2005-10-18)

Pereirak dioenez (Antonio Tabucchi) liburuaz; itz. Fernando Rey:

Pereirak dioenez hau, Fernando Reyk berak liburuaren aurkezpenean esan zuenez, ez du enkarguz itzuli, plazer hutsez baizik. Horrenbestez, aukera izan du, dioenez, epeen estutasunik gabe lan egiteko: nobelaren erritmoaz jabetu lehenbizi, itzulpena egin hurrengo, denbora batean egoten utzi, gaztelaniazko bertsioarekin konparatu...

(Ander Irizar, *Diario de Noticias*, 2006-11-27)

Tunela (Ernesto Sábato) liburuaz; itz. Mikel Garmendia:

Garmendia itzultzaileak dioskunez, Sabatok honela erantzun omen zuen behin batean: "Nik egin behar nuena egin nuen. Gainera, ez nuen denen gustukoa izan nahi. Nik idatzitakoa gustatzen ez zaionak ez dezala irakurri. Hori ez da lagun izateko ala ez izateko arrazoia". Itzultzaileak, ordea, zen-

bateraino ote du antzekorik esatea, horren moduko askatasun batekin jokatzea? Alegia, esatea ote du “nik nahi nuen moduan itzuli nuen, eta ez dut denen gustukoa izan gura. Nik itzulitakoa gustatzen ez zaionak, ez beza irakur!”? Hara hor itaunaren latza, itzulpen teorilarietara eta, jakina, kritikoei eta editoreei nekez askatuko duten korapiloa!

(Karlos Del Olmo, *eizie.org*, 2007-07-10)

Mirarien kalezuloa (Nagib Mahfuz) liburuaz; itz. Patxi Zubizarreta:

Berdin gertatu ohi da gure euskarazko idazleen obrak frantsesa edo gaztelania ez diren bertze hizkuntzetara itzultzen direnean: ez ohi dira lehen eskuko bertzioak, gaztelania edo frantsesezko bigarren bertzioen itzulpenak baizik. Gutxiegi gara euskaldunok hizkuntza askotatik euskaratze zuzenekin amets egiteko, eta are gutxiago dira bertze hizkuntzetatik euskarazko testuetan murgil daitezkeen itzultzaileak.

(Bixente Serrano Izko, *Nafar periferiatik*, 2007-04-13)

Txoria (Oh Jung-hi) liburuaz; itz. Juan Kruz Igerabide:

Jatorrizkoa ulertu ezinak eta alderatzeko beste itzulpenik ez izateak salduka utz dezakete zenbaitetan itzultzailea, eta hark, horrelako zalantza kasuetan, itzulpenaren darabilen testuari orpoz orpo jarraituz aurkituko du irtenbidea. Irudipena dut Igerabidek, liburu honetan, ikusi duela zenbaitetan bere burua horrelako egoera.

(Ander Irizar, *Diario de Noticias*, 2007-01-28)

Belarra kantari (Doris Lessing) liburuaz; itz. Koro Navarro:

Euskal Herrian, esate baterako, The Good Terrorist lanak joko handiagoa emango luke. Iaz plazaraturiko lanarekin legetxe, beka oinarriek epe estuegiak ez ote dituzten jartzen pentsa daiteke, arteari –eta itzulpengintzak badu zer edo zer ertitik– muga estuegiak jartzeak ondorio kaltegarriak izaten dituelako beti; halaxe jokatuta, azken batean, itzulpenik onena garaiz entregatzen dena izaten delako. Eta industriak (liburugintza halakotzat hartzen dute-eta) merkatu legeen eta epeen arabera jokatu beharra duen arren, onuragarriago gerta dakiguke denoi itzultzaileari, artisauari bere trebezia behar bezala ontzeko beta ematea.

(Karlos Del Olmo, *eizie.org*, 2008-12-30)

Tom hil da (Marie Darriussecq) liburuaz; itz. Karlos Zabala:

Mariaren aurreko lan euskaratua ere argialetxe berak plazaratu zuen, baina beste itzultzaile batek emana. Euskal itzulpengintzan gauzak noizbait normaltzen hasten badira, horrelako kontuak ere zaintzen hasi beharrean

egongo gara: ahal dela, egile beraren ahotsari eta estiloari itzultzaile bakarren ahotsa izendatzea komeni da.

(Karlos Del Olmo, *eizie.org*, 2008-07-10)

Bizian argitaratuak (Franz Kafka) liburuaz; itz. Naroa Zubilaga:

Itzultzaileak, idazlearen modura, historia aldez edo moldez berridazten du, apurtxo bat besterik ez bada ere. Babelgo liburutegian legetxe, bada liburu infinitu bat, barruan beste guztiak dauzkana. Eta itzulpen bat, barnean orain arte izan diren eta gerokoan izango diren beste itzulpen guztiak jasotzen dituen.

(Karlos Del Olmo, *eizie.org*, 2008-01-08)

Alferrikaldia (Thomas Bernhard) liburuaz; itz. Ibon Uribarri:

Uste dut itzulpengintzaren inguruan mintzatzeko aukera berri ederra dela oraingoa. Itzulpengintzak euskal literaturari zenbateko ekarpena egin dion aitortzea topiko bihurtzen ari da dagoeneko, baina ez dago lekuz kanpo beste behin ere langintza honek eman dituen aurrerapausoak azpimarratzea. Izan ere, Bernharden literaturak, beste zenbait autore garaiakidek bezalatsu (Samuel Beckett, Jaques Derrida, Helene Cixous...), itzulpengarritasuna –eta komunikazioa oro har– kolokan jartzen ditu bere idazmoldearen bidez. Hitz joko, neologismo eta abarrekin, adierazlea-adierazia bikoitearen erlazio klasikoa irauli egiten du, adieraziari lehenetasuna kenduz nolabait. Horren ondorioetako bat da, hain zuzen ere, itzulpena, funtsean adieraziekin lan egiten duen heinean, kinka larrian ipintzen duela. Hori dela eta, bereziki aipagarria iruditzen zait liburu hau, euskararen itzulpen arazo espezifikoei erantzuna ematen saiatzeaz gain, itzulpengintzak oro har dituen arazoei aurre egin behar izan baitie Uribarrik, hots, gainontzeko hizkuntzen itzulpenek izan dituzten arazo bertsuei.

(Beñat Sarasola, *Beria*, 2009-09-27)

Gaueko hegaldia (Antoine Saint Exupéry) liburuaz; itz. Koldo Izagirre:

Nahikoa arrunta izaten da beste hizkuntzen, beste kulturen egoeraren espaz izatea, pentsatzea auzokoarena norberarena baino hobea dela. Itzulpengintzan ere ez da harrigarri halakoak gertatzea, auzoko hizkuntzen itzulpenak gureak baino hobekak direlakoan egotea. Baina aztertzen hasiz gero, berehala konturatuko gara ez dela beti hala jazotzen, auzokoek ere badutela txikiengandik zer ikasi. Esku artean dugun lan hau adibide ederra da. Koldo Izagirrek berak *Bazka* agerkari digitalean azaldu duenez, itzuli ahala, bertatik konturatu zen zatiak falta zirela espainierazko itzulpenetan frantseseko edizioarekin alderatuta. Eta horrek harroina jartzen digu itzultzailearekin batera itauntzeko: “Zergatik dira zenbait editore handi (Gallimard jatorra

tarteko) horren estuak euskarari eskubideak saltzerakoan, eta horren zabalak beraiek (kontratuz) zaindu behar lituzketen egileen eskubide moraletan, hizkuntza nagusituekin? Zergatik ditugu horren estuak tratuan eta horren zabalak obraren duintasunean?”. Ez da, jakina, auzi makala, nahiz eta ulergarriago gerta daitekeen kontuan izanez gero, azken buruan, argitaletxeak enpresak direla, etekinak (edo diru asko ez galtzea) lortzeko sortuak, eta egilearen eskubideak (diruzkoak eta moralak) bigarren edo hirugarren mailako gauzak izaten direla haietako batzuentzat. Eta egoera areagotzen da beste hizkuntzetarako itzulpenei dagokienez, batez ere, zertan esanik ez, handien ustez, itzulpena txikia den hizkuntza batean argitaratu behar duen argitaletxe txiker bati eskubideak saltzea tartean dela.

(Karlos Del Olmo, *eizie.org*, 2009-02-27)

Oro har, itzulpenari buruzko esplizitazioak egiten dituztenak itzulpenari lotutako kritikariak dira (gehienetan eurak ere itzultzaileak dira), edo itzultzailea bera ezagututa, haren lan-prozesuaren berri dutenak.

Badirudi hezi egin gura dela kritiken irakurlea, itzulpenak bere lekua behar duela ikas dezan, itzultzailearena ez dela langintza erraza; itzultzaileari errekonozimendua zor zaiola aldarrikatu gura da. Ekarri ditugun txatalak bezalakoak kritiketan txertatuta, itzulpen-prozesua gerturatu egin gura zaio kritika-irakurleari.

Badirudi itzulpena itzultzaileei dagokien auzia dela, kritiketan islatzen denetik, behintzat. Gainerakoan, hizkuntzarekiko ardura nabari da.

Itzulpen-arau honek bidea ematen digu itzulpenaren onarpenari begira, oraindik orain gurean onarpenik ez dela pentsatzeko. Itzulpena bigarren mailako kontua litzateke, tramitea, gura bada; euskara zuzen eta egokidun testuak izateko dakartzagu geurera han-hemengo obrak; emaitza ardura zaigu; baina ez dugu arretarik egiten prozesuan.

Obra jatorrizko polisisteman

Jatorrizko polisistemaz denaz bezainbatean, lanak jatorrizko literatur edo kultur sisteman betetzen duen lekua aipatzen ote zen galdetzen genion geure buruari corpuseko kritikak arakatu bitartean; hots, jatorrizkoaren garaia aipatzen den, inguru kulturalaz daturik ematen den, hartzaileen inguruko gogoe-tarik egiten den...

Bada, kritikarik gehientsuenetan ematen da jatorrizko polisistemaren datu-
ren bat: 511tik 406tan.

Goazen itzulpen-arau horri buruz esaten direnak zehaztera: batez ere egile-aren datuak ematen direla ondorioztatu dugu.

Aztergai den lanaren egilea nor den eta haren jaiotza- eta heriotza-data eta lekuak ematea da hedatuena, bai eta hark jasotako sarien zerrenda egitea. Bestalde, eta batez ere (suposatzen dugu) kritikariak balia ditzakeen karaktere kopuruarekin zerikusia duelarik, obrarekin lotutako zenbait datu kultural ere gehitzen dira ahal denean, betiere gaiari edo idazleari dagozkionak: dela gerra sasoia, dela idazlearen ezaugarri biografikoak pertsonaiengan agertzea... Oso ohikoa da, halaber, kritikagai den obraren egilearen beste lan batzuk aipatzea, katalogo modura. Horrekin lotuta, eta arlo honen barne datorrenez jatorrizkoen izena ematea (kritikagai den obrarena edo beste batena), bada, aipa dezagun jatorrizko izenburuak, orokorrean, jatorrizko hizkuntzan eskaintzen direla, ez bada obra lehenago ere euskarara itzulita dagoela. Halatan ere, gertu dugun espainolezko sistema dela eta, obra asko eta askoren aipamena espainolez egiten da. Gutxiago dira frantsesez aipatzen direnak, bakan batzuk badira ere.

Jatorrizko polisistemako bestelako informazioa ere jasotzen da, baina hori ere, itzulpenarekin lotu daitezkeenak legetxe, kritikari bakanek baino ez dute aipatzen. Gisa horretakoak dira, esaterako, obra jatorrizko kulturaren eskolako irakurzaile ote den, beste hizkuntzetara itzuli izan den, probokatzailea izan zenetz bere garaian eta kultura giroan, obrak arrakasta gehiago izan ote duen bere kulturaren edo handik kanpo, obraren ibilbidea zein izan den, hari buruzko ikerketarik egin denetz, kritikak lanaren inguruan zer esan duen, edo jatorrizko sistemaren barnealdean ala periferian kokatzen den.

Itzulpenarekin lotuago egon daitekeen jatorrizko polisistemari buruzko informazioa, nolabait gurera ekarri den obraren itzulpena justifika dezakeena, kasurako, obraren arrakastaren zergatia (itzulitako obrak gurean funtziona dezakeela justifikatzea), korrante jakin bateko gorengo lana izatea edo unibertsaltasunera egindako bidea, gutxiagotan aipatzen da: 35 bat kritikatan soilik.

Hor ere, jarduera agentearenean gertatzen zen modu berean, pertsonak du garrantzia, haren bizimoduak eta biziak, hark jasotako sariak eta egindako lorpenak, haren ezaugarriak istorioan nola islatzen diren eta abar. Baina gutxitan saiitzen da kritikaria (badira batzuk, baina gutxienekoak) lanaren itzulpena justifika ditzaketen ezaugarriak nabarmentzen, eta obrak sistema literarioan (garaitik eta gertaera historiko oso ezagunetatik kanpo) duen lekua zehazten.

Obra xede-polisisteman

Jatorrizko polisisteman egiten genuen antzeko galdera da xede-polisisteman planteatzen genuena kritiken azterketarako: xede-literatur sisteman/kulturaren lanak duen lekua/harrera aipatzen al da?

Jatorrizko polisistema baino agerikotasun gutxiago du xede-polisistemak: 244 kritikatan aipatzen da, erdietan baino gutxiagotan.

Gehien ematen den informazioa, egilearen beste obrarik bada, haien izenburuak eta argitalpenei buruzkoak, edo itzultzaileak lehenago euskarara eka-rritako beste obra batzuen izenak dira. Euskaraz irakur daitezkeen obren katalogo bat osatzea da, antza denez, xede-polisistemaren aipamena egiten duten kritikarien helburua. Hori bat dator, erabat, lehenago ere aipatu dugun normalizazio-egoerarekin; hizkuntza ez eze, itzulpenen agerikotasuna ere normalizatu gura den heinean, eta Literatur Itzulpena Hedabideetan programaren zioak zein diren ikusita. Era berean, horixe da kritikari orok eskura duen informazioa, hortaz, erraz balia dezake. Izan ere, arlo akademikoan egindako lanak gutxi direla esana dugu, eta horietara jo ezinik, katalogo gisako hori egi-tea da kritikari zenbaiten aukera bakarra.

Badira, ordea, bestelako datuak ematen dituztenak: batez ere kritika “konparatibistagoak” egiten dituztenak eta itzultzaile diren kritikariek eurek eman-ikoak. Bestelako datu horiek dira, hala nola, xede-polisisteman itzultitako obrak betetzen duen lekuari buruz jarduten direnak, jatorrizko eta xede-poli-sistemen arteko loturaz ari direnak zein aztergai den obra xede-polisistemako obraren batekin erkatzen dutenak. Halatan ere, ikerketa interesgarria litzate-ke gertaera hori itzulpenak ez diren kritiketan ere agertzen den aztertzea.

Hona hemen adibide batzuk, azkenik aipatu ditugun ideia bien adierazga-rrri:

Zertaz ari garen maitasunaz ari garenean (Raymond Carver) liburuaz; itz. Koro Navarro:

Raymond Carver-en idazkera soilak euskal idazle asko, batez ere gazteak, liluratu ditu, erretorika handiusteaz nekatuta. Izan ere, Carver funtsezko idazlea da, bazterrean geratu direnen istorioak inork baino hobeto konta-tzen baitaki.

(Javier Rojo, *El Correo*, 2003-08-13)

Pasio hutsa (Annie Ernaux) liburuaz; itz. Joseba Urteaga:

Gogoan daukat Unai Elorriagaren SPraiko tranbia kaleratu berritan bati baino gehiagori entzun/irakurri izana zerbait berezia zela liburu hura, ordura arte sekulan irakurri gabeko literatura zela nobela hartakoa. Eta an-tzeko sentazioa izan dut *Pasio hutsa* irakurriz ere, agian irakurri ditudala liburu borobilagoak, baina ez hau bezalakorik. Niretzat, behintzat, berria eta berezia dela Ernauxen literatura, alegia.

(Ibon Egaña, *Euskaldunon Egunkaria*, 2003-01-25)

Ezezaguna helbide honetan (Kressman Taylor) liburuaz; itz. R. Etxezarreta:

Esandakoa, bai literaturaren aldetik –narrazio teknikaren aldetik–, bai gaiarenetik ere, ondo irabazia du liburu honek bere lekua euskarara itzultitako liburuen ondarean, euskal literaturaren ondarean, azken finean.

(Mikel Garmendia, *Gara*, 2004-01-17)

Emakume ezezagun baten gutuna (Stefan Zweig) liburuaz; itz. Edorta Matauko:

Neke izaten dugu klasikoetara hurreratzea, edizio doratuegiek edo eskola usain larregikoek uxatuta. Igela argitaletxeak, ordea, bide hori zelaitu egingen du. Horrenbestez, ondoz ondo ikusten ditugu liburudendetan euskal idazleen azken obrak eta lehengo gizaldiko klasikoen lanak.

(Iñigo Roque, *Gara*, 2005-11-19)

Wilhem Tell (Friedrich Schiller) liburuaz; itz. Iñaki Goenaga:

Irakurleak zuzen oso itaundu lezake zertan datorren euskal itzultzaileen bilgune izan gura duen elkarteak lan hura atzera ere plazaratzea, 1934. eta 1935. urteotan zatika argitaratu zuten zuzen gero. Zioari dagokionez, noraezoko da adieraztea behin-behingo zurigarria begi bistakoa dela, eta, hark, berez, bestelako barik funtsatzen duela plazaratze hau: Inazio Mujika Iraolak paraturiko edizioa da Goenagaren itzulpenak lan oso moduan argia ikusitako lehenengoa. Gainera, Yakintza aldizkarian publikaturiko bertsioa eman du prestatzaileak, baina egungo irakurleek hobeto leitzearren, huts nabarmen batzuen zuzenketak eta bestelako gaurkotze grafiko ia ezinbestekoren bat edo beste emendatuta. Eta ezaugarri horiek, honenbestez, edizio txukun eta elebidun hau oinarritzeko behar beste indarra dute. Ez da ahaztu behar, osterantzean, helburu didaktikoa, ikasmaterial moduan lanabes ezinago egokia gertatzen da eta.

(Karlos Del Olmo, *Berria*, 2005-10-18)

Nola hustu nuen gurasoen etxea (Lydia Flem) liburuaz; itz. Joxean Elozegi:

Saiakeratik adina du liburu honek kontakizunetik, eta auto-laguntzako liburutik beste, oroitidazkitik. Hibrido bat, inondik ere. Niri pasarte batzuek Yolanda Arrietak *Jostorratza eta Haria* liburuan isuritako gogoetak ekarri dizkidate gogora, eta beste batzuek, bizitza bera.

(Inma Errea, *Diario de Noticias*, 2005-07-04)

Berdin dio (Agota Kristof) liburuaz; itz. Eskarne Mujika:

Euskaraz plazaratutako Agota Kristofen hirugarren liburua dugu honakoa; aurrekoetan legez, Eskarne Mujikak txukun bai txukun euskaratua. Lehenbizikoak, “Koaderno Handia”k, harrera ikusgarria izan zuen, inork

uste baino handiagoa, seguru asko. Hala ere, egingo nuke, literatura-arrazoiekin batera, gure hizkuntzaren egoerak eta ikasbideak izan zutela zerikusia: testu erraza, itxuraz ume batek idatzia, eta euskaraz oso dotore emana. “Kutsidazu bidea, Ixabel”ek eta antzeko lanek izandako arrakasta bera izan zuen, nire aburuz; osterantzean, ezin uler daiteke gisa horretako liburuak hainbeste irakurle erakartzea.

(Iñigo Roque, *Gara*, 2005-06-25)

Don Kijote Mantxako (Miguel de Cervantes) liburuaz; itz. Pedro Maria Berrondo:

Batura ekartze honek ez dio, alabaina, zahar-kutsurik kendu bertsio honi. Batura ekartzea ez baita grafia eta hitzen forma eguneratze soil bat. Alde horretatik, arrotz samar gerta dakieke irakurle gazteei, esango nuke, Berrondok erabilitako hainbat egitura, hitz-elkarketa eta aukera lexiko. Espezialistagoa beharko du, nik uste, irakurleak testu honekin gozatzeko. Alde horretatik, irakurle gazteei zuzendua bada edizio hau –ez dakit hala den–, horretan behintzat ez da asmatu. Aldiz, irakurle bereziagoentzat pentsatua izanez gero, egokiago litzateke antologiaren ordean, Berrondoren bertsioa osorik ateratzea.

(Mikel Garmendia, *Zabalik*, 2005-06-23)

Peaceful soldadua (Michael Morpurgo) liburuaz; itz. Mirentxu Larrañaga:

Ari gara gu ere “normalizatzen”. Euskal irakurleok nobelak eskatzen omen ditugu, eta argitaletxeek ez dute, nonbait, euskarazko aski originalik jasotzen gose hori asetzeko. Izango da besterik, baina horixe omen azkenaldian euskal argitaletxeek atzerriko nobela garaikideak euskaratzeko egiten ari diren ahalegin eta apustuaren arrazoietakoa bat. Gure “normalizazioaren” beste erakusgarri bat, omen. Eskertzekoa da, noski, idazleak hil arte zain egon beharrik ez izatea haien lanak euskaraz irakurri ahal izateko.

(Ibon Egaña, *Berria*, 2006-11-05)

Kaukasiar kreazko borobila (Bertolt Brech) liburuaz; itz. Itxaro Borda:

Theatre de Chimeres eta Pok taldeen ardurapean taulaturiko Bertolt Brecht-en *Kaukasiar kreazko borobila* lanaren antzezpenak oso harrera ona izan zuen duela hiruzpalau hilabete. Antzezlan eta antzezpena hainbat eta hainbat komunikabidetan goratu zen, eta baita VI. Donostia Antzerkia saria jaso ere. Sari horretako epaimahaiaren hitzetan, antzezlana hori euskal antzerkigintzaren historian mugarri dugu. Hortaz, hain harrera beroa izan duen antzezlana izanik, poztekoa da Artezblai argitaletxeak lan hau argitaratzeko asmoari lotu izana, eta antzezpen haren oinarri izandako testua guz-

tion eskura jarri izana. Izan ere, halako argitalpenak euskal antzerkigintza-
ren historiarako premiazko lekukotzak ditugu.

(Iratxe Retolaza, *Berria*, 2006-07-09)

Groucho eta ni (Groucho Marx) liburuaz; itz. Miren Arratibel & Aintzane Atela:

Atzerriko literatur lanak itzultzerakoan, aukera amaigabe horretatik zein
lan euskaratu hautatzerakoan euskaraz sortutako literaturak ments ditun
genero, literatur molde eta erregistroak dituzten lanak itzultzea izan liteke
agian irizpideetako bat, edo hala ez bada ere, irizpidea horixe izan ote den
etortzen zaio bati gogora Groucho eta ni irakurtzean.

(Ibon Egaña, *Berria*, 2006-06-04)

Guizzardiren abenturak (Gianni Celati) liburuaz; itz. Fernando Rey:

Nire ustean, trilogia hori euskaratzeko egitasmoari Celatik eginiko estimua
handitu baino ez da egiten euskal irakurleen begi-bihotzetatik. Halakoa dut
neronek behintzat susmoa, edota bihozkada: gure artean espermentaziorantz
jotzen duten narrazioak euskaraz irakurtzeko ohitura gutxi da, izan. Horrega-
tik, Fernando Reyk Guizzardiren abenturak euskaratzeko harturiko lanak bi
dohain bildu ditu, gutxienez: batetik, hainbat euskal irakurleri ezezagun
zuten (genuen) Celatiren nobelaz jabetzeko aukera eskaini zaie (zaigu); bes-
tetik, euskaraz ondutako espermentaziorako eredu bikaina sortu du.

(Iratxe Retolaza, *Berria*, 2006-05-28)

Desio izeneko tranbia (Tennessee Williams) liburuaz; itz. Xabier Payá:

Literatura dramatikoa berezia da, ahozkotik hurbilago dago eta lar ira-
kurtzen ez duen jendeak ere atseginez leitu ohi du. Tennesseeeren arabera,
antzerkiak garaian garaiko gizarteetan aurrerapen artistiko ikaragarriak lor-
tu ditu, giza jokabidearen eta esperientziaren armairu, mandio eta sotoak
zabaltzen, argizatzen eta aireberritzen dituelako. Horri gagozkiolarik, esan
beharrean gaude Literatura Unibertsala bildumari oraindik ez diola inork
marka kendu, egun euskaraz antzezlan gehien argitaratzen duen bilduma
izaten dirau. Pozgarria da, beste argitaletxeen aldetik kezagarria bada ere.

(Karlos del Olmo, *Berria*, 2006-01-17)

Hogeita lau ordu emakume baten bizitzan (Stefan Zweig) liburuaz; itz. Edorta
Matauko:

Edonola ere, susmoa dut honelako bitxi literarioak, sarri askotan, ohar-
kabean joaten direla gure letren ibaian, are gehiago Durangoko urteroko
uholdean. Eta pena da, horrelako maisulanak edonorentzat gerta baitaitez-
ke gustagarri.

(Ander Irizar, *Diario de Noticias*, 2007-12-12)

1984 (George Orwell) liburuaz; itz. Oskar Arana:

Institutu garaian Filosofia ikasgairako irakurri behar izan nuen estreina-koz George Orwell-en *1984* liburu. Nire ingeles eskasa kontuan izanik, gazteleraz irakurri nuen nahiz eta geroko eginbeharrak (laburpenak, komentarioak eta abarrekoak) euskaraz idatzi nituen. Ikasketak euskaraz burutu dituen inori ez zaio arraroa irudituko halakorik, are gehiago unibertsitatean ere euskaraz ibili baldin bada. Euskaraz mintzatzen gara eskolan, euskarazko ikasliburuak erabiltzen ditugu, euskaraz lan eta azterketak, baina ikas-material oinarritzkoa ikasliburu eta apunteak izateari uzten diotenean... Horregatik, ezer baino lehen, poz handia hartu dut hemendik aurrera, Oskar Aranari esker, liburu hau euskaraz irakurri ahal izango dutelako, nik ez bezala, batxilergoko ikasleek.

(Beñat Sarasola, *Berria*, 2007-11-04)

Salbazioko Armada (Abdela Taia) liburuaz; itz. Patxi Zubizarreta:

Titular deigarriekin ezagutarazten diren liburuak gehiago saltzen omen dira. Eta titular oso deigarriak izan ditu Abdela Taiaren *L'armée du Salut* liburu itzuli berriak. Batetik, Patxi Zubizarretak euskaratu duen *Salbazioko Armada* eta Gerardo Markuletak gaztelaniara itzuli duen *El ejército de salvación* batera kaleratu direlako. Bestetik, Aurelia Arkotxaren eta Alberdaniakoen laguntzarekin, Abdela Taia bera egon zelako Donostian egin zen liburuaren aurkezpenean (jarraian, Bartzelonan eta Madrilen ere liburu aurkeztekoak ziren). Gogoratu, egunkari honetan atera zen idazleari eginiko elkarrizketa ere, "Nire heroi propioa naiz" titularra zeramala. Eta azkenik, *Salbazioko Armada* liburu autobiografikoan idazleak itzulingururik gabe heltzen diolako azkenaldian hain modan dagoen eta hain deigarria den homosexualitatearen gaiari. Titular hau oraindik gehiago puztu daiteke, jakinez gero, Abdela Taia izan dela homosexuala dela aitortu duen lehen idazle marokarra.

(Mikel Ayerbe, *Berria*, 2007-05-27)

Peaceful soldadua (Michael Morpurgo) liburuaz; itz. Mirentxu Larrañaga:

Gero eta ohikoagoa bihurtzen ari da euskal editoreen artean liburu argitaratu berri samarrak aukeratzea beste hizkuntza batzuetatik euskarara ekartzeko. Batzuetan, inguruko erdaretara ere itzuli gabe egoten dira gainera; hemen hizpide dugun hauxe bera frantsesera itzulita dago, baina ez dago oraindik gaztelaniaz irakurtzeko aukerarik.

(Ander Irizar, *Diario de Noticias*, 2007-04-01)

Txoria (Oh Jung-hi) liburuaz; itz. Juan Kruz Igerabide:

Apustu txiki gisa aurkeztu zituen Alberdania argitaletxeak Michael Morpurgoen *Peaceful soldadua* eta eskuartean dugun Oh Jung-hi korearraren *Txoria*. Euskaraz gaur egunean (eta iraganean ez bezala) itzulpen dezente argitaratzen da eta, garrantzitsuagoa dena, dezenteak. Literatura Unibertsoaren bildumarekin egiten ari diren lana dugu, akaso, adibiderik behinena, baina ezin ahaztu literatur Nobel saridunak euskaratzeko antolatzen den Jokin Zaitegi saria edo joandako azken urte honetan izandako sorpresa atsegin eta bakanak, Paul Auster-en itzulpen “aldiberekoa” edota Groucho Marxen autobiografia, horien artean. *Peaceful soldadua* eta *Txoria* eleberriekin, gazteleraren filotrik iragazi gabeko bi lan eta bi autore ezezagun ekarri nahi izan dituzte euskarara. Arriskuak hartzeko tarterik badagoenaren seinale. Seinale ona.

(Aritz Galarraga, *Gara*, 2007-01-13)

Azken anaia (Nathacha Appanah) liburuaz; itz. Mikel Garmendia:

Azken urteotan frantsesa darabilten idazle garaikideen obrak itzultzen hartu den lanaren baitan sar genezake idazle gazte honen azken eleberria (...)

(Iratxe Esnaola, *Gara*, 2008-12-12)

Infernuko hesteetan (Charles Bukowski) liburuaz; itz. Mikel Olano:

Euskal literaturaren egungo gabezia argienetako bat poesia itzulpenak dira. Ulergaitza egiten zait nola den posible 2008. urtean ez existitzea oraindik Charles Baudelaire-n *Les Fleurs du mal*-en euskarazko itzulpen eskuragarri bat. Nork pentsa dezake fundamentuzko literatura bat bere heldutasunera irits daitekeela halako obrak eduki gabe?

(Beñat Sarasola, *Berría*, 2008-11-02)

Gizarte irekia eta haven etsaiak (Karl Popper) liburuaz; itz. Josu Zabaleta:

Merkatu murrizta izanen du liburuak gure artean. Ezer gutxi, mundu akademikotik kanpo.

(Bixente Serrano Izko, *Berría*, 2008-05-18)

Sommer jaunaren istorioa (Patric Süskind) liburuaz; itz. Lourdes Oñederra:

Ipuin bat da; gaztetxoentzako ipuintxo bat, hasiera batean. Erein argitaletxeak ere haur eta gazte literaturako Perzebal sailean eman du argitara. Nabarmena da, baina, Süskinden lan ederrari motz samar gelditzen zaiola sailkapen hori, eta, nire iritzirako, Sommer jaunaren istorioa aise har daiteke helduentzako ipuintzat ere.

(Ander Irizar, *Diario de Noticias*, 2008-02-27)

Amodio gutunak oinordetzan (Lydia Flem) liburuaz; itz. Joxan Elozegi:

(...) itzulpenak barra-barra. Kontua hanpatzen ari naiz, baina egia da itzulpen asko aurkeztu zituztela, eta asko gurean izen ez hain ezagunenak: Dubois, Boyne edo Taylor. Gauza txarrik ere izango du itzulpen politika horrek akaso, baina nik gauza bat ikusten diot onetik, ausartetik eta esker-garritik: gaztelararen irazkitik pasatu behar izan gabe euskaratzen ari direla, ongi euskaratzen gainera.

(Aritz Galarraga, *Gara*, 2008-01-19)

Alferrikaldua (Thomas Bernhard) liburuaz; itz. Ibon Uribarri:

Uste dut itzulpengintzaren inguruan mintzatzeko aukera berri ederra dela oraingoa. Itzulpengintzak euskal literaturari zenbateko ekarpena egin dion aitortzea topiko bihurtzen ari da dagoeneko, baina ez dago lekuz kanpo beste behin ere langintza honek eman dituen aurrerapausoak azpimarratzea. Izan ere, Bernharden literaturak, beste zenbait autore garaikidek bezalatsu (Samuel Beckett, Jaques Derrida, Helene Cixous...), itzulpengarritasuna –eta komunikazioa oro har– kolokan jartzen ditu bere idazmoldearen bidez. Hitz joko, neologismo eta abarrekin, adierazlea-adierazia bikotearen erlazio klasikoa irauli egiten du, adieraziari lehentasuna kenduz nolabait. Horren ondorioetako bat da, hain zuzen ere, itzulpena, funtsean adieraziekin lan egiten duen heinean, kinka larrian ipintzen duela. Hori dela eta, bereziki aipagarria iruditzen zait liburu hau, euskararen itzulpen arazo espezifikoetara ematen saiatzeaz gain, itzulpengintzak oro har dituen arazoei aurre egin behar izan baitie Uribarri, hots, gainontzeko hizkuntzen itzulpenek izan dituzten arazo bertsuei.

(Beñat Sarasola, *Berria*, 2009-09-27)

Mila eguzki eder (Khaled Hosseini) liburuaz; itz. Josune Zuzuarregi:

Aitortu beharra dut euskal argitalpen mundua oso ezberdina dela, bestelako herrialdeetako argitalpen munduaren aldean. Beste tokietan best-sellerak direnak nekez itzultzen dira euskarara eta, noizean behin, Khaled Hosseini bezalako idazle baten liburuak argitaratzen dira. Ez dago gaizki; izan ere, honelako liburu bat argitaratzeko argitaletxe bat behar da, itzultzaile bat, liburu irakurria izango ote den esperantza. Ez dakit zer gehiago behar ote den...

(Felipe Juaristi, *El Diario Vasco*, 2009-09-25)

Izatearen ezintasun jasanezina (Milan Kundera) liburuaz; itz. Karlos Cid:

(...) euskaraz irakur daitezkeen literatur lanen artean, itzulpenak direla distira gehien dutenetakoak, ez naiz Amerika deskubritzen ariko. Nabarmen-

na baita, azken urteotan bereziki, euskarazko idazkera literarioa aberasten ari dela itzultzaileen ekinaren ondorioz, eta akaso, idazleen lanagatik baino gehiago. Esan gabe doa, itzulpen-bildumetan ale eder askoak azaldu izan dira, ez horratik beti nahi bezain txukun.

(Ion Olano, *Gara*, 2009-08-28)

Udaberri alua (Patric Modiano) liburuaz; itz. Pello Lizarralde:

Gainera, Pello Lizarralde gustua hartzen ari zaio, nonbait, literatura-itzul-pengintzari, euskaratutako laugarren liburua baitu honako hau. Ez da harritzekoa, etekinik ere aterako dio-eta seguruenik langintza horri; luma eta begirada zorrozteko ariketa ezin egokiagoa da, edo izan daiteke, izan ere, literatura itzultzea.

(Ander Irizar, *Diario de Noticias*, 2009-05-20)

Bikarioetxeko hilketak (Agatha Christie) liburuaz; itz. Itziar Diez de Ultzurrun:

Gutziz british, deskuidu hagitz zaindu batez. Gotzon Garateren *Esku Leu-na* nobelako estiloaren itzala edo oihartzuna ere han-hemen.

(Karlos Del Olmo, *eizie.org*, 2009-03-31)

Are gutxiago dira, noski, xede-polisistemaren parte den euskal kritikaz gogoeta egiten dutenak (5 kritika):

Durduzaz eta dardaraz (Amelie Nothomc) liburuaz; itz. Joxan Elozegi:

Berriren berri euskal kritikari bat kexu agertu da Euskal Herrian benetako kritikarik ez ei dagoelako, hau da, kritikari (propagandista ote?) dihardutenen arabera, liburu baztergarririk ez dagoelako. Inon ez bide da liburu baten gaineko kritika txarrik agertzen. Baliteke hala jazotzea. Baina ez dirudi hala denik. Euskal Herrian hizkuntza eta kultura normalizaturik baleude, halako egoera bat salatzeke modukoa ez ezik, guztiz tamalgarría ere litzateke. Baina euskal kazeta, irrati, telebista eta aldizkari batzuetan genero literatura dramatíkoa, poesia, kritika bera, biografía, zientzi fikzioa... batzuen gaineko iruzkinik (edo aiputxorik, sikiera) ere agertzen ez den bitartean, egile eta itzultzaile saiatu batzuk sancta sanctorum, olinpotxo eta parnasotxo guztietatik at dauden artean, hainbat argitalpen ikusezin direla, literatur kritika hutsezko aldizkari espezializatu barik edukitzeke, alegia, egile, itzultzaile eta argitaratzaile guztiak berdintasun egoeran ez dauden arteraino, kritika negatiboez berba egitea baikorregi izatea da. Mingarri ez esatearren. Egia da, propaganda larregi dabil bazterretatik; marketingak, adiskidekeriak eta taldetxoek zabal-zabalik kurrutzen dituzte gure literatur bideak. Bada, halere, kritika txarra baino gauza latzgorik. Askoz ere hilgarriago gertatzen denik: ezereza, aipu (ez on, ez txar) bat bera ez jasotzea, gardena izatea, hau

da, inortxo ere ez izatea letren errepublikan, enbaxadorerik ez izatea irakurleen aurrean. Hustasuna. Kanpoko espazio hotz, ilun eta mugagabea, beste izarrak ñirñirka eta harrapaezin ikusteko kondena. Eta kritikan (propaganda?) dihardutenek honako honen moduko liburuen gainean jardun barik, txar irizitakoen nork du eskua, bestalde, txartasunaz berba egin ahal izateko? kritikan jardunez gero, argitaratze ahalegin batzuk ahuntzaren gauerdiko eztula gertatuko lirateke. Tamalez.

(Karlos del Olmo, *Berria*, 2004-02-07)

Groucho eta ni (Groucho Marx) liburuaz; itz. Oskar Arana:

Jaun-andreok ongi etorri kritika literarioaren mundura! Hasier Etxeberriak elkarrizketa batean adierazi zuen benetako pasiorik ez zuela ikusten hedabideetako kritikan (“ez liburu bat goratzeko, ez ukatzeko, ez horren arrazoa emateko ere”), bada, hemen daukazue *Groucho eta ni* liburuari buruzko iruzkina, amoranteari izkiriaturko geniokeen eskutitza baino grina handiagorekin idatzia! Oilobustiarena egin gabe, busti eginen naiz behinogogatik! Belaunetaraino bakarrik, hori ere esan beharra dut.

(Aritz Galarraga, *Gara*, 2006-12-09)

Hildakoen entziklopedia (Danilo Kis) liburuaz; itz. Monika Etxebarria:

Zer esan dezake iruzkingile batek euskaratutako literatura unibertsaleko lan batez? Euskaraz sortutakoaren gainean epaia emateko ausarkeria duenak nola joka dezake mendebaldeko literatur tradizioak behi sakratutzat jo duen obra baten aurrean? Itzulpenaren maila baloratu beharko luke? Baina nola, demagun, jatorrizko testua serbokroazieraz idatzia bada? Eta zalantzak puztu eta korapilatu baino ez dira egiten liburua Danilo Kisen *Hildakoen entziklopedia*-ren gisakoa denean, alegia, obra bat non irakurlea perplexitatearen mugetaraino eramaten duen narratzailearen esku bihurriak, tradizio anitzetan barna sartu-irtenak eginaz, erudizio erreal eta aizunaren alardea eginaz, narrazio teknikaik landu eta bihurrienak maisuki erabiliz, orain irakurketa lanbrotuz eta bat-batean argituz. Zer argi gehitu diezaioke obraren irakurketari iruzkingileak, Danilo Kisek berak *Hildakoen entziklopedia*-ko bederatzia ipuinei erantsitako post-scriptum-a leitu ostean, non agerian jartzen baititu egileak karta guztiak, halako moldez non liburuan zehar ironiaz tratatzen duen kritikari egindako adarjotze jostariaren traza hartzen dion kritikariak? Dagoeneko esanda dagoenaren parafrasia egiteaz harago, ezer gutxi.

(Ibon Egaña, *Berria*, 2006-04-25)

Gizona ilunpean (Paul Auster) liburuaz; itz. Oskar Arana:

Apustua ez zen hain gaizki aterako, hirugarrenez jarraian, Paul Austerren lanik berriena Estatu espainoleko hizkuntza ofizial guztietan eta egun bere-

an kaleratu bada: “Brooklyngo erokeriak” izan zen lehena, 2006an, “Bidaiak scriptoriumean zehar” gero, 2007an, eta joan den irailaren 2an argitaratu zen *Gizona ilunpean* hau. Kasu honetan, gainera, ingelesezko originala argitaratu eta hurrengo egunean bertan. Beste aurrerapauso txiki bat, ezbairik gabe, bide luze honetan. Ez genuke nahi, ordea, nobedadearen olatua igarota, irakurlearen interesak beherako bidea hartzea, kritikarenak hartu duen bezalaxe: kritiken hemeroteca ezinbestekoari kasu eginez gero, eta *Kristalezko hiria* komiki liburua aintzat hartu gabe (bestelako apustu bat izan zen hura, era berean interesgarria), Auster euskaratzeko lehen saiakera hark lau iruzkin bildu zituen, bigarrenak hiru eta azkenak, oraingoz, bakarra (irakurtzen ari zaren honekin, bi lirateke).

(Aritz Galarraga, *Gara*, 2008-10-24)

Pijama marradunaz jantzitako mutikoa (John Boyne) liburuz; itz. Mirentxu Larrañaga:

Eskertzekoa da Alberdania egiten ari den saioa orain arte euskaraz irakurtzerik ez zegoen liburu motak itzultzeko, baina badirudi kritikak ez die-la jaramon handirik egiten. Edonola ere, euskal irakurleak leku askotan entzun duen *Pijama marradunaz jantzitako mutikoa* hori irakurtzea erabakitzen badu, orain erdararen batean edo euskaraz irakurtzea erabaki dezake. Urrats bat gehiago euskararen normalizazioan, bada.

(Beñat Sarasola, *Berría*, 2008-04-20)

Aurreko bost adibideetan ere begi bistakoa da zein diren kritikagileak eta bakoitzaren ibilbidea.

Nabarmenezkoa da, ordea, kritika bera sarritan aipatzen ez bada ere, kritikariek sarri aipatzen dutela elkar: ohikoa da batak bestearen izena, ideiak zein hitzak ekartzea kritika-testura. Izan ere, gaitza da lan beraren obraz lauzpabost kritika egiten direnean, kazeta ezberdinetan, (kritika kopuruaren atalean aritu gara gaiaz), ezer berririk esatea. Era berean, kritikarien artean, zelanbait, elkartasuna adierazten du horrek, batasun moduko bat, norberaren iritzia konpartitua denez gero lan egokia egin deneko sentipena-edo lortu gura balitz legez.

Kuriosoa da, halaber, jatorrizko eta xede-polisistemen arteko lotura egiten denean, batez ere, gurera begira egiten dela; hots, jatorrizko obran Euskal Herrian jaso den antzeko egoera delako, edo Euskal Herria aipatzen delako itzultitako obran. *Idi orgaren karranka*, *Nire aitaren fusila*, *Egun bat nire bizitzan*, *The Navarra*, *Hitza hormaren kontra* eta *On Casmurro* lanen kasua da hori, adibidez. Obra zenbait itzultzeko arrazoia zein den ageri-agerian dago agerpen horietan.

Testu mota

Testu motari buruzko azalpenik ba ote zen aztertu dugu gure kritiken corpusa osatzen duten testuak irakurtzean. Noski, testu motaren edo generoaren aipamen soila egiteari ez diogu inolako garrantzirik eman: generoa itzulpen-auziren batekin lotuta agertzea da gure interesekoa.

Bada, ezer gutxi esaten da kritiketan gaiari buruz: 15 kritikatan baino ez da aipatzen, beti ere antzerkiaren, poesiaren eta autobiografiaren (azken hori behin baino ez da ageri) itzulpen urritasunarekin lotuta: generoak gure sisteman duen zabalkunde falta aipatzen dute kritikariek.

Honakoan ere itzulpen-prozesuaren ardura ezaz ohartzen gara, edo ardura dutenen urritasunaz. Horrez gainera, generoaren gabezia aipatu bai, baina itzulpen-prozesua bera, hots, poesia, antzerkia edo autobiografia itzultzeak zer nolako estrategia zehatzak eskatzen dituen, kasurako, ez da inondik inora aipatzen.

Jarduera-arauak

Jarduera-arauak testuari berari eragiten dioten arauak dira, eta horien isla-rik ba ote zen aztertu guran planteatutako itaunak ziren jatorrizko testuaren eta itzulitakoaren artean erkaketarik egiten denetz, akatsak aipatzen direnetz eta itzulpen-estrategiak aipatzen direnetz.

90 kritikatan aipatzen dira jarduera-arauak. Gure korpusean, 511tik 90 horietako 31 Karlos del Olmorenak dira (herena, gutxi gorabehera), eta 25 Mikel Garmendiarenak. Gainontzekoak 22 kritikarik egindako aipamenak dira. Argi dago, hortaz, bi kritikariok direla jarduera-arauez ari direnak nagusi, gainontzekoek behin edo behin aipatu dituzte.

Sarrien aipatzen dena testuan zenbait akats egotea da, baina justifikatu egiten dira, ez diotela eta irakurketari kalterik egiten, edo txikikeriak direla gehituta. Akatsak aipatzearen auzia eztabaidagai izan zen EIZIEk 2008an antolatutako *Literatur itzulpenak baloratzeko irizpideak* lan saioan: parte-hartzaileek kritika dibulгатiboan akatsak ez zirela gehiegi nabarmendu behar ebatzi zuten²⁵. Bada, hala uste dugu guk ere kritika dibulгатiboaren alorraz ari garelarik eta kritika horien helburua, batez ere, literatura itzuliaren irakurketa sustatzea den aldetik. Dena den, honelako aipamenek zuzentzailearen figuraren garrantziaz ohartarazten gaituzte.

²⁵ Lan saioaren akta www.eizie.org helbidean dago kontsultagai. Bibliografian ere ematen da haren berri.

Hona hemen bi kritikari horiek gaiari buruz idatzitako hiruna adibide:

Kontakizunak (Edgar Allan Poe) liburuaz; itz. Koro Navarro:

Kontakizunen batean jatorrizko izenburua laburrago eman digu Korok, baita adjektibo “harrigarri beldurgarriren” bat ere tartekatu, baina horrek zer digu emaitza ikusita? Irakurri ahala jabetuz goaz itzultzaileak ez duela nahitaez zertan traidorea izanik. Poezale intelektual astunok zein nerabe izu zaleak asebeteko dituen itzulpena, ezbairik gabe.

(Karlos del Olmo, *Euskaldunon Egunkaria*, 2001-07-07)

De Profundis (Oskar Wilde) liburuaz; itz. Aitor Arana:

Nonbait, antzerki bakarriketa moduko honen barrunbeak gaurko euskal irakurlearentzat onargarri emateko lana ez da ahuntzaren gauerdiko ez tul gertatu, aditu batean errazen eman ditzaketen lanak izaten direlako itzul tzen latzenak. Normalean testua oso ondo irakurtzen da, nahiz eta lantzean lantzean itzultzaileak ingelesetik gertuegi jardun duela dirudien, zenbate raino eta batzuetan ilun samar gertatzeraino ere. Azken orraztaldi edo irakurraldi pausatua baten beharrean dagoela pentsa liteke, han-hemenka belar txarren bat kendu edo aldapa latzen bat arintzeko.

(Karlos Del Olmo, *eizie.org*, 2007-11-15)

Hobbita edo joan etorri bat (J.R.R. Tolkien) liburuaz; itz. Sergio Ibarrola & Xabier Olarra:

Itzulpen joera ezberdinak agertzen dira idazlan hau emateko orduan, esaterako, portugesez, gaztelaniaz, frantsesez eta italieraz, itzulpen argia duten patronimikoak eta zenbait toponimo ere itzultzen dituzte (hala jokatu zuen Agustin Otxoa Eribekoak *Erastunen Jauna* lanean), euskarazko bertsio honetan ez bezala. Euskarazko protagonista, beraz, ingelesezko berbera izango da, *Bilbo Baggins hobbita*. *Dictionary of Obsolete and Provincial English* hiztegiaren arabera, bilbo bat zer eta Euskal Herrian, Bilbon (!) egindako ezpata ospetsu eta bikaina zen! Ezpatariari bilboman zeritzoten. Baggins izenari doakionez, bestalde, Tom Shippeyk *The Road to Middle-Earth* liburuan aipatu zuenez, baggin terminoak zerikusia ei du arkume larruz eginiko artzain zorro (bag) mota batekin edo hartan eroandako gauzeekin. / Euskaraz ere bi eskola edo saio ditugu, itzultzaile eta argitaletxe ezberdinek eman dituztelako *Erastunen Jauna* eta *Hobbita*, eta igarri-igarriak dira itzulpen joeren arteko aldeak. Xabier Olarrak eta Sergio Ibarrolak ingelesezko izenei eustea erabaki dute, esaterako, ordea, kanten eta poemen eta enparauen itzulpenak oso modu euskaldunduan ordaindu dituzte. Honako bigarren pauso hau ez da abiaburu makala geroko belaunaldiek edo itzultzaileek Tolkieni euskaraz zor diogun “tornuya” eman ahal izateko. Almarë, enomentuvalmë!

(Karlos Del Olmo, *eizie.org*, 2009-01-30)

Bederatzietatik bederatzietara (Leo Perutz) liburuaz; itz. Anton Garikano:

Eta eleberriaren erritmo biziak ez ezik, Garikanoren itzulpenak ere badu horretan zerikusia. Itzulpen onak itzulpen direla nabaritzen ez direnak direla esan ohi dugu. Eta hala da, eta kasu honetan ere hala gertatzen da. Harantzago doa, ordea, itzulpen hau. Irentsi egiten diren horietakoa izateaz gain, oso hurbilekoa egiten da idazteko tankera hau edo, bestela esanda, oso urrun dago itzulpen bortxatu edo ortopediko bat izatetik. Horra, labur beharrez testuingururik gabe, adibide pare bat esandakoaren adierazgarri:

“Nik bai tankera txarra hartu: iritsi zenean, hirurogeita lau kilo pisatzen zuen ardi-gaztaren kaxak”. “A, ba nire atean jota ez dute asmatu. Berehalakoan ametituko dut! Tuntuna behar nuke!”.

Hiztegia erabili gabe irakurtzeko modukoa, bestalde, itzulpen-lan hau. Alde horretatik, ezer nabarmentzekotan, burutu (moldatu) eta galarazi (molestatu) aditzen esanahi ez ohiko bezain interesgarriak nabarmenduko nituzke. Eta amaitzeko, itzultzaileak ñabardurarik txipienak ere kontuan izan dituela esan. Hona nola aukeratzen digun, esate baterako, inportante adjektiboa garrantzitsuren ordez: “Dendaria ez zen, horratik, bere gai inportantetik saihestu”.

(Mikel Garmendia, *Gara*, 2003-12-06)

Salbazioko Armada (Abdela Taia) liburuaz; itz. Patxi Zubizarreta:

Irakurketa eroso-erosoa egiten da eta ez hori bakarrik, oso estimatzekoak gertatzen dira P. Zubizarretak eskaintzen dizkigun kontraste politak. Hala, elkarren segidan aurkituko ditugu aukera ausartak (eta fini, egia berdaderoa, inpentsan, hastio izan, pikardatu, koketkeria, klartasuna...) euskarak oso bere dituen esamolde eta lokuzioekin kontraste ederrean.

(Mikel Garmendia, *eizie.org*, 2007-06-04)

Ez da erraza gizon on bat aurkitzea (Flannery O'Connor) liburuaz; itz. Itziar Otegi:

Eta begien bistakoa da I. Otegi ere efektu horren bila aritu dela, baita lor-tu ere, ondo landuta eskaini digun euskarazko bertsioan. Sintaxiari dago-kionez, segida naturalean irakurtzen den horietakoa da eta lexikoaz denaz bezainbatean, berriz, behar denean ausart eta konplexurik gabe jokatzeko (negro, mesanotxe, igual, enkontru, deserritua...) eta behar denean euskarak oso bereak dituen formak erabiliz (suhigose izan...), baita, sentimendumaila kontuan harturik, lizentziak hartuz ere (atta, mattagarriena, mattia...).

Maila handiko itzulpena maila handiko literaturarentzat.

(Mikel Garmendia, *eizie.org*, 2009-11-26)

Literatur itzulpenaren kritika dibulгатiboan, hortaz, itzultako testuaz, estrategiez, hizkuntza batetik bestera igarotzeko hizkuntza baliabideez... oso gutxi egiten da berba. Oro har, gehiago begiratzen zaio lanaren testuinguruari testuari berari baino.

4. Ondorioak

Lan honen alderdi teoriko-metodologikoan genioen *Translations studies* direlakoan parte direla itzulpenaren teoria, produkzioa eta produktuak. Produktuen deskripzioak, 2000-2009 urte tartean argitaratutako literatur itzulpen-kritiken deskripzio metodologikoak, kasu honetan, euskal itzulpenaren egoera balioesteko zein euskal literatur sisteman itzulpenak duen lekuaz jabetzeko tresna behar duela, horixe izan da gure hasierako abiapuntua. Kontuan izan dugu, gainera, itzulpena ematen den markoko faktore guztiek izan dezaketela eragina itzulpenean, bai eta haren kritikan ere. Eta, hain zuzen, halaxe dela ondorioztatu dugu ikerketan: gurean egiten den dibulgazio-kritika garaia lortzen zaio, euskarara itzultitako literaturaren kritikan oso agerikoa da hizkuntzaren normalizazioa, itzulpenaren kritika arloaren garapen urria, merkatuaren garrantzia eta produktuak pertsonalizatzeko dugun gizarte-joera.

2008an, EIZIE elkartearen baitan *Itzulbaita* egitasmoak garatutako *Literatur itzulpenak baloratzeko irizpideak* lan saioko dossierrean²⁶ euskarazko literatura itzuliaren kritikan, dibulgazio-xedea duen kritika nagusi dela esaten da, helburua irakurleari gidaritzza eskaintzea eta itzulpengintza sustatzea izanik; bada, gure corpusa osatzeko egindako lanetan, halaxe dela ziurtatu dugu. Lan saio hartan esandakoa da, era berean, dibulgazio-kritika egitean, kritikariek kontuan izaten dutela hartzailea, hots, gogoan dutela irakurle ororentzat ari direla. Horretan ere halaxe da, kritikaren ur sakonetan sartu barik, testu ulertterazak egiteaz gainera, obrak irakurle arruntari gerturatzeko saioa egiten da. Kritikariarena iritzi subjektiboa dela argi utzi behar omen da, lan saioko partaideen ustez, eta horixe ere bete egiten da, oro har; izan ere, nolabait, jakintza itzultzaileari berari edo beste kritikari batzuei ematen zaie. Bestalde, jato-

²⁶ <http://www.itzulbaita.eu/jarduerak/lit-balorazio-irizpideak> | Azken kontsulta 2010-09-08 |

rrizkoa eskutan izatearen ezinbestekotasunaren ukoaz ezin dugu gauza bera esan, ez baita beti hala plazaratzen, batzuetan kritikariak penaz agertzen baitira jatorrizkoa ulertu ezinda jatorrizkoaren eta itzulpenaren konparazioa egin ezinaz. Hala ere, itzulpenaren irakurteraztasunaren zein obraren bikaintasunaren galera-eza goratzen da beti. Itzulpena zenbateraino nabarmendu behar den ez zen adostu lan saioan, eta praktikan ere denetarik dago: itzulpena aipatu ere egiten ez duten kritikak, aipamen hutsa egiten dutenak edo bestelako gogoetaren bat egiten dutenak. Kontuan hartzekoa da, halaber, itzulpenari buruzko zehaztasunak egiten dituztenak beti direla itzulpengintzari lotutako itzultzaile edo adituak. Aipatu lan saioko taldeak ez zeritzon egokia akatsak nabarmentzeari, irakurlea nahasi egiten baita; alabaina, egin egiten da, akatsak justifikatu nahirik edo; beti esaten da, gainera, akatsok txikikeriak direla obraren eta itzulpenaren kalitatearen aldean eta abar. Dena den, itzulpenaren beraren prozesuan zuzentzaile-faltaz edo azken orduko orrazketa-ezaz jabea-razten gaituzte halako oharrek, eta, bide batez, itzulpenaren egoera orokorraz, ikertzekoa litzatekeelarik gainerako hizkuntzetako sistemetan halako akatsak barkatuko liratekeenetz eta zuzentzailearen figura gurean legekoa denetz. Noski, jazoera hori hizkuntzaren normalizazioarekin dago lotuta, guztiz.

Esan bezala, normalizazioarekin lotuta dago kritiketako agerkari hori, bai eta kritiken bilakabidean EIZIE elkarte profesionalak abian jarritako Literatur Itzulpena Hedabideetan proiektuaren emaitzak agerikoak izatea. Hala ere, desberdintzekoak dira elkarte profesionalaren ekimena eta kritika akademikoa. Bigarren horretan oso lan gutxi eginik dagoela uste dugu; honako lan honek, kritika akademikoa egin gura bada, zenbait irizpide markatuko dituen iritzikoak gara, arloa guztiz birjina baita gurean: aztertu eta landu gabea. Kritikariek euskararekin duten jarrera, zenbait itzulpenen eragileak zein diren jakintzat ematea eta itzulpenaren balorazioak beti positiboak izatea ere normalizazioari lotuta dauden ustekoak gara.

Literatur itzulpenaren kritikan ageri den espezializazio ezaz denaz bezainbatean, oso agerikoa da: ez dago kritika ereduetan batasunik (irizpideen faltan), kritikatik kritikara aldea dago kritikarien ikasketa eremuaren arabera, itzultzaileari ematen zaio kritiko-izaera (itzultzaileak ez du zertan aditua izan garai jakin bateko literaturan zein haren itzulpenaren eraginean), beste kritikarien esanak ekartzen dira norberaren hitzen justifikazio gisa (elkartasun bila edo), eta liburu beren kritikak egiten dira (kasu bera da haxe, lan bertsuak kritikatzeko dira, izenburuen bakardadean ez jausteko gisan, beti behar da beste norbaitek idatzitakoa abiapuntu modura). Unibertsitate-profilari begiratu-ta, kritika akademikoaren ikuspegitik, kezkatzekoa da hau guzti hau; izan ere,

nola heziko ditugu etorkizuneko itzulpen-kritikariak gurean gaiari buruzko tesirik ez denean, gure ikasketa-programetan itzulpenaren kritikak lekurik ez duenean?

Hain zuzen ere, nabarmentzekoa da guk kritika dibulгатiboa aztertu dugula, kritika akademikorik ia ez delako gurean; badira artikulua batzuk, baina puntualak dira. Gurean, kritika akademiko eskasa da arazoa, hutsune gorria dugu arlo horretan.

Lopez Gasenik, bere itzulpen-katalogoan, joera bi desberdintzen ditu itzulpen merkatuari dagokionez: argitaletxe edo ekimen publiko bidez egindako itzulpenek klasikoak argitaratzera jotzen duten artean, ekimen pribatuek, oro har, salgarriak eta komertzialak diren obretara jotzen dute. Kritikan, baina, ez da bereizketarik egiten, eta proiektu guztiak sartzen dira zaku berean, gure ustean, literatur itzulpen klasiko edo unibertsal deritzen horiei euren klasikotasun edo unibertsaltasun kutsua desagerrarazten zaielarik (merkatuaren mesedetan?).

Literatur itzulpenean garrantzi handia ematen zaio egile, itzultzaile eta eragileen kredituari; horren arabera ematen edo ostentzen da informazioa kritika-testuetan. Eta itzulpen harrerari dagokionez, hots, itzulpenaren onargartasunari dagokionez, oraindik orain gurean literatur itzulpena natural onartzea eta kontsumitzea kostatu egiten dela dirudi, kritikek ere horixe ematen dute aditzera, itzulpena itzultzaileek aztertzeko kontua bailitza, itzulpena eskal literaturaren periferian kokatzen da. Alabaina, bitxia da, dena den, bertoko idazleek, kasurako, itzulpenari aitortzen dioten estimua. Itzulpena goratzeko ahalegina egiteari ere onartze-ezaren sintoma dela deritzogu, dena delako itzulpena izanik ere, haren susperraldia lortzea delarik beti helburua.

Itzulpenaren harrera deskribatzeaz gainera, kritika akademikorako lehen pausuak emateko moduan izango ginela genioen sarreran, itzulpen-sistemaren kritikaren deskribapena egiten ari garen unetik beretik badugulako jadanik, tapiz osoaren irudi txiki baten argazkia, txikia izanik ere, hurrengoetarako abiapuntutzat balia daitekeena eta tapiz osoaren irudia deskribatzeko ezinbestekoa egingo zaiguna. Izan ere, lan hau itzulitako literatur sistemaren kritikaren azterketa gauzatzeko hastapena izan da, ez besterik.

5. Bibliografia

- ARRIZABALAGA, Bakartxo. "Itzulpena eta feminismoa" in *Senez* 32 zenb., (2007), [Online] <<http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/20080201/bakartxo>> | Azken kontsulta 2010-09-08 |
- ALDEKOA, Iñaki eta OLAZIREGI, Mari Jose. "Zenbait gogoeta literatura unibertsala bidumaz" in *Senez* 23 zenb., (2001), [Online] <http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/20011101/aldekoa_olaziregi> | Azken kontsulta 2010-09-08 |
- Azken urteotako literatur itzulpenen azterketa lansaioa [Online] <<http://www.itzulbaita.eu/jarduerak/lit-itzuliaren-azterketa/lansaioaren%20laburpena>> | Azken kontsulta 2010-09-08 |
- CASANOVA, Pascale. *La República mundial de las letras*. Barcelona: Anagrama, 2001
- ERRASTI, Iñigo. "Literatura Unibertsala bildumaren ebaluazioa (ELI dosierra)" in *Senez* 37 zenb., 2009, 313-315 or.
- EVEN-ZOHAR, Itamar. "Teoría de los polisistemas" in *Poetics Today* 11:1 zenb. (Primavera 1990), 9-26 or.
- "La posición de la literatura traducida en el polisistema literario" in IGLESIAS SANTOS, Montserrat (bildumagilea) *Teoría de los polisistemas*. Madrid: Arco Libros SL, 1999, 223-231 or.
- "La fabricación del repertorio cultural y el papel de la transferencia" [Online] <<http://www.tau.ac.il/~itamarez/works/papers/trabajos/EZ-Fabricacion-del-repertorio2008.pdf>> | Azken kontsulta 2010-09-08 |
- FINLAY, Ian F. "Relations between languages" in PICKEN, Catrina (ed.), *The Translators Handbook*. London: Aslib, 1983.
- GALLEGO ROCA, M. "La teoría del polisistema y los estudios sobre traducción" in *Sendebat* 2 zenb. (1991), 63-70 or.
- GNISCI, Armando. *Inroducción a la literatura comparada*. Madrid: Critica, 2002.

- HEWSON, Lance; MARTIN, Jacky. *Redefining Translation The variational approach*. London; New York: Routledge, 1991.
- IGLESIAS SANTOS, Montserrat. “La teoría de los polisistemas como desafío a los estudios literarios” in IGLESIAS SANTOS, Montserrat (bildumagilea) *Teoría de los polisistemas*. Madrid: Arco Libros SL, 1999, 9-20. or.
- KOMISSAROV, Vilen. “Itzulpen literarioaren naturaltasunaz” in *Senez* 15 zenb., (1994), [Online] <<http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/19940901/komissarov>> | Azken kontsulta: 2010-09-08 |
- LAMBERT, J. “Literatures, Translation and (De)Colonization” in DELABASTITA, Dirk; D’HULST, Lieven; MEYLAERTS, Reine (ed.) *Functional Approaches to Culture and Translation: Selected Papers by José Lambert*. Amsterdam: John Benjamins, 2006, 87-103 or.
- Literatur itzulpenak baloratzeko irizpideak lansaioa [Online] <<http://www.itzulbaita.eu/jarduerak/lit-balorazio-irizpideak>> | Azken kontsulta: 2010-09-08 |
- LOPEZ GASENI, M. *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: Eraginak, funtzioak eta itzulpen estrategiak*. Leioa: EHU, 1999.
- *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan*. Donostia: Utrisque Vasconiae, 2005.
- *Euskal itzulpenen inbentarioa eta azterketa (1976-2008) (ELI dosierra)*, *Senez* 37 zenb., (2009), 299-311 or.
- “Euskararako literatura-itzulpenen kritikaz” in *Senez* 37 zenb., (2009), 317-322 or.
- “Kritika eta kritikoak azken euskal literaturan” in *Jakin* 49 zenb., (1988), 73-86 or.
- MENDIGUREN BEREZIARTU, Xabier. “Euskal itzulpenaren garapena” in *Senez* 14 zenb., (1993), 11-32 or.
- “Itzulpen kritikaz” in *Senez* 3 zenb., (1985), [Online] <<http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/19850901/mendiguren>> | Azken kontsulta: 2010-09-08 |
- OLAZIREGI, Mari Jose. “Euskal Literatur sistema milurteko berriaren atarian” in *Uztaro* 34 [Online] <www.uztaro.com/uztaro_fitxategiak/649_uztaro34_4Olaziregi.pdf> | Azken kontsulta: 2010-09-08 |
- ROBYNS, Clem. “Traducción e identidad discursiva” in IGLESIAS SANTOS, Montserrat (bildumagilea) *Teoría de los polisistemas*. Madrid: Arco Libros SL, 1999, 281-309. or.
- SAGER, J.C. “Quality and standards – the evaluation of translations” in PICKEN, Catrina (ed.) *The Translators Handbook*. London: Aslib, 1983.

- TOURY, Gideon. *Los estudios descriptivos de traducción y más allá. Metodología de la investigación en estudios de traducción*. Madrid: Catedra, 2004.
- “La Naturaleza y el papel de las normas en la traducción” in IGLESIAS SANTOS, Montserrat (bildumagilea) *Teoría de los polisistemas*. Madrid: Arco Libros SL, 1999, 233-255. or.
- VALERO GARCÉS, Carmen. *Apuntes sobre traducción literaria y análisis contrastivo de textos literarios traducidos*. Alcalá de Henares: Universidad de Alcalá, 1995.
- “Análisis comparativo de literatura infantil y juvenil: ¿textos originales, textos traducidos o producción bilingüe?” in *Estudios de Lingüística aplicada*. Barcelona: Universidad Jaume I, 1997, 871-882 or.
- VALERO GARCÉS, Carmen et alii. “Polisistemas en contacto: ciertos condicionantes que afectan al trasvase de información” in *Estudios de Lingüística aplicada*, Barcelona: Universidad Jaume I, 1997, 843-850 or.
- VAN DEN BROCEC, Raymond. “Second Thoughts on translation criticism A model of its analytic function” in HERMAN, T. (ed.) *The manipulation of Literature*. New York: Studies in Literary Translation, 1988.

Aldizkariak:

- Poetics today*. Durham: Duke University Press, 1979-.
- Sendebarr*: boletín de la Facultad de Traducción e Interpretación. Granada: Universidad de Granada, 1990-.
- Senez*: itzulpen terminologiazko aldizkaria. Donostia: EIZIE, 1984-.

